

# Zu hemen zaude. goiena



## IBARREKO ZORTZI EUSKAL PRESOEN ETA IHESLARI BATEN ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEN

Presoen eta iheslarien senideek haien egoeraz ohartarazi dute, eta zapatuko manifestaziorako dei egin; 22 autobus irtengo dira Debagoienetik / 2

Debagoieneko preso senideak, eguaztenean, Arrasaten, Bilbon zapatuan egingo den manifestaziorako dei egiten. XABIER URZELAI

## "Penaz" hartu dute Asier Garitano herrikidearen kaleratzea

Juanjo Arrieta Realeko kontseiluko kide ohia eta Javier Igartza kidea, Realaren erabakiez / 38



Juanjo Arrieta eta Javier Igartza, joan den zapatuan, Bergaran. X. U.

## Euren aurka "intentzio txarrez" idatzitakoak salatu dituzte Arrasateko gaiteroek / 11

## 'Musikarium' haurrendako musika ikuskizuna estreinatuko dute domekan Bergaran / 41

### SINADURAK

	ALEX LABAIEN / 8		LEIRE ELEJALDE / 16
	JON KORTABARRIA / 31		MIKEL IRIZAR / 48
	JOSU ZUGASTI / 11		

Doretako santutegia, ziklismoaren tenplua

Manolo Cainzos dibulgetzaileari elkarrizketa





Debagoieneko euskal presoan familietakoa kideak. XABI URZELAI

#### Amaia Zabala ARRASATE

Orain Presoak dinamika gizarte zibil osoari eta alderdi eta instituzioetako kidego osoari egin die aurtengo bi manifestazioetarako deialdia eta lau eskaera egin dituzte bertan: urrunketa amaitzeko, gradu progresioa ahalbidetzeko, preso eriak artatzeko eta Frantziako kartzela urteak zenbatzeko Espainiak. Antolatzaileek nabarmendu dute, lehenengoz, Bilboko manifestazioan sindikalgitza osoaren ordezkari izango dela –ELA, LAB, UGT, Steilas, ESK, EHNE, Hiru eta Etxalde–. Horretaz gain, atzo, erredakzioaren itxiera ordura bitarte, Gure Esku Dago, EHBildu eta Podemos-Ahal Duguk ere publiko egin zuten manifestazioarekiko atxikimendua. Ipar Euskal Herriko alderdi gehienek ere bat egin dute –EH Bai, EAJ/PNB, Generation.s, Europe Ecologie Les Verts, Modem, UDI eta PS–. Bestalde, Kataluniatik babes zabala iritsiko da, "ordezkari politiko ez ezik, preso diren politikarien senideak ere manifestaziora etortzekoak baitira".

#### Euskal presoan datuak

Sarek –herritarren sarea– abenduaren 20an argitaratutako datuen arabera, 264 euskal preso daude gaur egun: 210 Espainiako Estatuko espetxeetan, 46 Frantziako Estatuko espetxeetan, hiru Euskal Herriko espetxeetan,

# Debagoieneko zortzi euskal preso eta iheslari bat daude gaur egun

Orain Presoak dinamika antolaturik, manifestazioak egingo dituzte bihar, urtarrilak 12, Bilbon (Casilla) eta Baionan (Errepublikan Plaza), 17:00etan. Ibarreko herri guztietatik aterako dira autobusak Bilbora eta ostiralerarte eman daiteke izena

bat zentro batean preso, beste bat Portugalen, beste bat Ipar Euskal Herrian, epailearen kontrolpean, eta, azkenik, bi espetxe arinduan. Sarek distantziak ere salatu ditu; izan ere, "aste batean, senide guztien artean 13,2 buelta ematen dizkiote munduari eta 110.112,03 euro gastatzen dituzte bidaietan senide guztien artean aste bakar batean". Horretaz gain, dispersioak hamasei pertsonaren heriotza eragin du dagoeneko. Debagoienaren kasuan, zortzi euskal preso eta errefuxiatu bat daude une honetan.

**LEHEN ALDIZ,  
SINDIKATU GUZTIEK  
MANIFESTAZIORA  
JOATEKO DEI EGIN  
DIETE HERRITARREI**

#### Joseba Erostege antzularra

1997ko uztailean lehen atxilotu zuten eta hogeita hamar urteko espetxe-zigorra ezarri zioten, "Ortega Lararen bahiketan parte hartzeagatik", besteak beste. "Bost egun inkomunikatuta egin ondoren, Auzitegi Nazionalera eraman zuten eta torturatua izan zela salatu zuen", azaldu du Ines Zubia emazteak.

Egun, 65 urte ditu eta askotariko gaitz larriak ditu, eta, ondorioz, preso gaixoen zerrendan dago. 2014tik 2017ra hainbat operazio eta interbentzio egin dizkiote; dena den, gaur egun, "ondo" dago.

Herrera de la Manchako (Ciudad Real) kartzelan dago, 580 kilometrorara. "Komunikazio guztiak interbenituak ditu eta 2003an, beste euskal preso bezala, lagun bati bitartez murriz-

tu zizkioten, eta, orain, sei hilabete behin hamar lagun bati bitartez bakarrik onartzen dizkiote. Gainera, hilean bi orduko bi bisean biseko soilik ditugu. Bestalde, hilean pake bakarra jaso dezake". Zubiak gaineratu du frutak erosteko aukera ere kendu egin ziotela 2018an.

Joseba Erostege lehen graduatu dago egun, eta, hori dela eta, preso sozialek dituzten eskubideekin konparatuz, "euskal presoek eskubide murriztuak" dituztela salatu du presoaren emazteak.

**FRANTZIAKO  
KARTZELA URTEAK  
ZENBATZECO  
ESKATUKO DUTE,  
BESTEAK BESTE**

#### Garikoitz Garcia aretxabaletarra

2010eko urtarrilaren 9an atxilotu zuten, Portugalen, eta hogeita hamar urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, "banda armatuko kide izateagatik, armak eta lehergaiak garraiatzeagatik, indarkeriazko lapurreta egiteagatik eta lesioak eragin zituen atentatu bat egiteagatik". Gaur egun, Picassent-en (Valentzia) dago, 630 kilometrorara, eta, Erostegearen moduan, hura ere lehen graduatu dago. Uda honetan, uztailean lehen bitartez, hura bisitatzen bueltan zetozen bi lagunek istripua izan zuten Teruel parean.

"Presoak etxean nahi ditugu lehenbailehen eta hori gertatu dadin ezinbestekoa da euskal preso politikoei aplikatzen zaien salbuespeneko espetxe politika krudel hau bukatzea, gradu aldatzeko egitea eta honek ekarri ditzakeen espetxe onurak jasotzea eta urrunkeria bukatu eta larriki gaixorik dauden presoaren etxeratzea", salatu du Amaia Garciak, Garikoitz Garciaren arreba.

Honen harira, Aretxabaletako Udaleko bozeramaile batzordeak (EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Irabaziko zinegotzi ohi Luis Mariano) "konponbiderako, elkarbizitzarako eta bakerako unea dela" aldarrikatuz komunikatu bat kaleratu du.

#### Josu Arkauz arrasatearra

1991ko martxoaren 20an atxilotu zuten eta "ETAko komandoen koordinatzaile" izateagatik 115



urteko zigorra ezarri zioten. Murcia II espetxean dago, eta 2023rako dauka ezarrita irteeradata. Presoen aldeko eragileek jakinarazi dutenez, Europako legediak dioena betez gero, 2015a ezkeron egon beharko luke aske, Frantziako egindako espetxe urteak eta Espainiako zigor kode zaharrak barne zituen erredentzioak kontuan izanda. "Euskal presoek ez zaizkie inoiz erredukzioak aplikatzen eta distortsioak jarraitzen du. Iaz, gainera, gure aita hil zen eta anaiari ez zioten ikusten utzi. PSOEek pausoak emango zituen esperantza genuen, baina ikusten da ezetz", dio Ramon Arkauz anaiak.

#### Unai Parot arrasatearra

1990eko apirilaren 2an atxilotu zuten, eta 4.797 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten -40 egingo ditu espetxean-, "26 hilketak eta 166 saialdi egiteagatik". Unai Parotek 2020an aske geratu beharko luke, 30 urte preso egon ostean. Baina espetxean ustez aurkitutako gutun baten ondorioz, 2020an hamabi urteko beste espetxe-zigor bat hasiko luke, "mendekuz sorturiko" zigor kodearen aldaketa baten ondorioz, presoen aldeko eragileek adierazi dutenez. Gaur egun, Puerto III espetxean dago, 1.020 kilometrorra: "Oso baldintza gogorretan".

#### Maixol Iparragirre eskoriatzarra

2003an espetxeratu zuten, eta, 2010ean egindako epaiketan, 20 urteko zigorra ezarri zioten, "ETAko administrazio zuzendaria izateagatik".

Iparragirreraren ahizpak, Maitek, azaldu du gaztetan "atxilotua eta torturatua" izan zela eta aske uztean sortzetatik alde egin behar izan zuela: "Iparraldean zela, Estatuaren errepresioa jasan zuen eta GALen hilketak gertutik bizi izan zituen; egun, Paristik gertu dagoen Reu espetxean dago, 900 kilometrorra, eta bisitatzera joateko zailtasunak izugarriak dira; batez ere, gurasoentzat, adinean aurrera doa-zelako, ezintasuna izugarria da".

#### Xabier Ugarte oñatiarra

21 urte pasa daramatza espetxean eta Ortega Lararen bahiketaren parte hartzeagatik atxilotu zuten, besteak beste. Egun, Topasen dago, Salamancan, 400 kilometrorra. "40 minutuko bisita

edo ordu eta erdiko bisean bisekoa egiteko berarekin, zortzi orduko joan-etorria egin behar izaten dugu Bestalde, urte hauek guztietan behin eta berrero gradu aldaketa eskatu arren, lehen graduan jarraitzen du, euskal preso gehienek dituzten baldintza beretan", salatu du Susana Uribeberria emazteak.

Ugartek Menier sindromea du: "Zorabioak eta belarri batetik entzumena galtzea eragin dizkio. Artritis erreumatoidea ere badu, eta, hotzarekin gaiztotu egiten denez, neguan minaldi handiak izaten ditu", salatu du Uribeberriak.

#### Xabier Usandizaga oñatiarra

1997ko uztailaren 3an, atxilotu zuten Guardia Zibilak, Oñatin, Erosegirekin, Ugarterekin eta Gaztelurekin batera, kausa beragatik. Egun, Kordoban dago, bertan bost urte daramatza, eta ikasteko aprobetxatzen ari da: Filologia Hispanikoko lau garren kurtsoan dago.

"Bere egoera oso latza da; izan ere, lehen graduan eta isolamenduan dago eta espetxeko bizi baldintzak muturrekoak dira, oso gogorrak", salatu du Iñaki Usandizaga anaiak. Gaineratu du legea ez aplikatuta presoen eskubideen urraketa "larriak" egiten ari direla: "Zer gertatzen da larriki gaixo dauden presoekin? Eta 70 urte beteta dituztenekin? Eta erredentzioekin?".

## Debagoienetik autobusak

Oñatitik, Enpresagintza Fakultetetik, bata 10:00etan eta bost 15:00etan. Bergararik, bata 11:00etan eta lau 15:15ean, geltokitik. Arrasatetik, bi 11:00etan eta hiru 15:30ean, Garibaitik. Aretxabaletatik, bata 11:00etan eta bestea 15:15ean, Azbetik. Antzuolatik, 15:30ean, autobus geltokitik; Elgetatik, ordu berean, plazatik; Aramaiotik, 15:00etan, biribilgunetik. Eskoriatzatik, 14:45ean, erdiko geltokitik; aurrez Gatzagatik pasako da.

Gaineratu du larunbat honekako manifestazioak eta beste-lako mobilizazioak "beharrezkoak" direla eta "herritar guztiei" bertaratzeko deia luzatu die.

#### Joseba Arregi oñatiarra

1992ko martxoaren 29an atxilotu zuten eta 36 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten, "11 hilketak eta 83 saialdi egiten laguntzeagatik". 73 urte beteko ditu martxoan eta 27 urte daramatza jada preso. Egun, Ala-

canteko Villena espetxean dago, Oñatitik 780 kilometrorra. 70 urte baino gehiago dituzten hiru euskal preso daude Espainiako espetxeetan, nahiz eta legeak dioen behin adin hau betetzean askatuak izan behar dutela. Bestalde, Arregiren kasuan ere, Frantziako espetxean egindako urteak kontuan hartu izan balizkiote, kalean beharko zuen. "Estrasburgoko epaiarekin esperantza pixka bat bagenuen, baina, beste behin ere, ezer ez, tranpa egin dute

eta ez dituzte sakonean errebisatu", azaldu du Mertxe Arregi arrebak. Izan ere, Estrasburgoko auzitegiak azaldu du Espainiako legerian ez zela zigorrak batzea aukera bezala jasotzen.

#### Alberto Plazaola oñatiarra

Plazaolaren kasua berezia da. 2015eko martxoaz geroztik iheslaria da; izan ere, Frantziako espetxean betetako zigor urteak ez zizkiotela kontuan hartuko ikusita, ihes egin zuen.






## "Errespetua ardatz nagusi hartuta, askatasunean egiten dugu lan"

**Alex Arteaga Urrutia (21 urte, Bergara) Lehen Hezkuntza graduako 4. maila ikasten ari da ibilbide orokorretik Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.**

**Definitu apur bat zeure burua; baduzu hobby edo zaletasunik?**

Zaletasunen artean gitarra da nire pasio handiena. Orduak pasatzen ditut akorde berriak ikasi eta abestiak taldean sortzen. Une hauek lagunekin partekatzen saiatzen naiz, talde giroa alaitzeko musika bezalakorik ez dagoelako.

**Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Orokorra**

**gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Betidanik atentziora eman didan ofizioa delako hautatu nuen gradu hau. Familian bertan badaude jada irakasle batzuk, eta uste dut horrek eragin handia izan duela nigan. Gainera, benetan uste dut ofizio honek gauzak aldatzeko izugarriko aukera ematen duela, etorkizuneko helduekin lan egiten delako.

Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, ikaslearekiko duen gertutasunagatik eta oso ondo azpimarratzen duen identitateagatik.

**Nola balioetsiko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?**

Orain arte bizi izandako esperientzia definitzea edo balorazio bat egitea atzera begirada bat baino gehiago da. Fakultatean sartu nintzen egunetik gaur arte askotarikoak izan dira bizipen, sententzio zein emozioak. Jende eta eduki berri askoren artean galduta sentitzetik, neure burua aurkitzera iritsi naiz eta osotasunean hartuta esperientzia ahaztezina izan da eta izaten ari da.

**Nola definituko zenuke Huhezin jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Ikasteko metodologiari dagokionez, askatasuna hitza da egokien definitzen edo egokitzen zaiona. Materia guztiek dituzte muga batzuk ezarrita, baina, hala eta guztiz ere, askatasun batean lan egitearen sententzioa eduki dut une oro. Nire interesak eta gustuko gaiak ez dira inoiz alde batera utziak izan eta errespetua hartu dugu guztiok ardatz nagusi.



## Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ERAIKIZ

[gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz](http://gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz)

#niredesioa



# Apirilaren 13an eta 14an pasatuko da Korrika

Korrikaren 21. edizioa apirilaren 4an irtengo da Garestik (Nafarroa) eta ibilbideko azken bi egunetan, apirilaren 13an eta 14an, igaroko du Debagoiena. Handik Gasteizerako bidea hartuko du eta bertan amaituko da, apirilaren 14an

## Amaia Zabala DEBAGOIENA

AEK-ko ordezkariak asteazkenean aurkeztu zuten 21. edizioaren ibilbide zehatza, eta, Debagoienaren kasuan, Antzuolatik eta Elgetatik izan ezik, gainontzeko herrietatik igaroko da.

Apirilaren 13an, zapatuan, Udanatik sartuko da Debagoienan; 12:15 bueltan Oñatin izango da -2.265 km- eta alderik alde zeharkatuko du herria. Handik Bergararako bidea hartuko du eta herrigunera 13:30 iritsiko dela aurreikusten da -2.277 km-. Bergara utzi ostean, Soraluze-rantz joko du, baina ordu gutxi barru berriro sartuko da Debagoienan.

Apirilaren 14an, domeka, goizaldean sartuko da Korrika berriz Debagoienan. Otxandiotik etorriko da eta 02:00etan sartuko da Aramaioetik -2.416 km-; herrigunera 03:00etan iritsiko da. Handik Arrasaterako bidea hartuko du, 03:30ean muga zeharkatu -2.430 km- eta goizaldeko



19. Korrika Eskoriatza zeharkatzen. AITOR AGIRIANO.

04:00 bueltan iritsiko da erdigunera. Ordu erdi geroago iritsiko da Aretxabaletara -2.438 km- eta 04:42an helduko da Eskoriatzara -2.440 km-. Azkenik, 05:30ean Leintz Gatzagan sartuko da -2.447 km- eta handik Gorbeialderako bidea hartuko du ibilbidea Gasteizen amaitzeko.

## Korrikako batzordeak

Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere Korrika koordinatuzko batzordeak antolatuko dira Euskal Herriko txoko guztietan, eta Debagoienarako ere lotu dituzte dagoeneko lehen hitzorduak.

Bergarako batzordea izango da lehena hasten, urtarrilaren 15ean 19:00etan udaletxeko ganbaran bilduko baita. Urtarrilaren 16an izango dira hurrengo hitzorduak, Oñatin 18:00etan Euskaldun Berria aretoan eta Aretxabaletan 18:30ean Lora-mendin, udaletxe zaharrean. Urtarrilaren 17an, berriz, Aramaion 18:30ean udaletxean eta Elgetan 18:00etan udaletxean baita ere. Arrasaten, urtarrilaren 21ean bilduko dira, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Amaitzeko, urtarrilaren

23an, Eskoriatzan 18:00etan kultura etxean eta Antzuolan 18:30ean udaletxean.

21. edizio honetako Korrikaren Debagoieneko koordinatzailea Josu Zubia izango da eta herritarrei batzordeetan parte hartzeko dei egin die: "Herrietako kilometroak kudeatzea eta giroa sortzea izango da batzordeen egitekoa. Izan ere, Korrika maila nazionaleko ekimena bada ere, azken finean, norbere herrian gertatuko den hori batzordeetan erabakitzen da".

## Txillardegia omenduko dute

Euskal Herriko bazter guztietara zabalduko du Korrikak euskararen aldeko mezua apirilaren 4tik 14ra bitartean, eta, guztira, 2.560 kilometro egingo ditu. Aurtengo leloa *Klika* izango da, eta, horrekin batera, sarri entzungo da Mad Muasel, Fermin Mugu-ruza eta La Furiaren abestia ere. Amaierako ekitaldia Gasteizen egingo da; bertan irakurriko dute hamaika egunez lekuko barruan eramandako mezua. Era berean, aurtengo Korrikak Txillardegia omenduko du, euskara batua sortzen egindako lanagatik.

## 37 pertsona ospitaleratu dituzte Debagoienan, gripeak jota

Eskualdean, 1.500 lagun joan dira familia medikuarengana gripegatik eta larrialdietara, 303

### Amaia Zabala DEBAGOIENA

Gripe sasoi bete-betean gaude eta eskualdeko ospitaleetan ere nabaritu da birus honen eragina. Izan ere, 2018ko abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra bitarte, 1.500 lagun joan dira familia medikuarengana gripea dela eta; larrialdietara, berriz, 303 lagun. Horietatik, 37 gaixo ospitaleratu behar izan dituzte.

"Gripeak gogor jo du, baina ez da epidemia larri bat izatera iritsi; izan ere, iaz garai honetarako kasu gehiago genituen. Dena den, inoiz ez dakizu, eta gerta daiteke beranduago etortzea", argitu du Txaro Martinezek, Oñatiko Osasun Zentroko zuzendari eta familia medikuak.

Iazko datuak alderatuz gero, esaterako, 2017ko abenduaren 1etik 2018ko urtarrilaren 6ra bitarte, 1.898 lagun joan ziren familia medikuarengana gripegatik, larrialdietara 371, eta horietatik 45 izan ziren ospitaleratuak.

Martinez medikuak gaineratu du gripeaz gain katarro kasu asko ere badaudela une honetan: "Badabil katarro mota bat sukar pixka bat eragiten ari dena, eta, ondorioz, lan asko dabilkigu ospitalean".

Amaitzeko, Oñatiko medikuak gripea saihesteko neurriak hartzeko dei egin die herritarrei: arrisku handiko pertsonen multzoan baldin bazaude, txertoa hartu, eta, behin sintomak izatean, berriz, besteei ez kutsatzen saiatu; esaterako, eskuak sarri-

tan garbituz". Bestalde, argitu du arrisku bereziren bat edo gaixotasun kronikoren bat izan ezean, "ez dela beharrezkoa" lehen egunetik ospitalera joatea, eta, etxean egon eta parasetamolaren hartuz ez bada pasatzen, orduan joateko medikuarengana.

### Jardunaldia Kulturaten

Bestalde, Debagoieneko ESiko eta Aita Menniko Asistentziaren Etikako Batzordeek Herritarrentzako I. Jardunaldia antolatu dute. Urtarrilaren 24an izango da, 17:30etik 20:30era.

Bi gai nagusi jorratuko dira bertan: *Bizitzaren amaierako agertokiak* hitzaldia Alberto Melendezen eskutik -Araba ESiko Zainketa Aringarrien unitateko medikua- eta *Arretaren aurretiazko borondateen plangintza partekatua* Iñaki Saralegik eskainia -Araba ESiko Zainketa Aringarrien unitateko eta Asistentziaren Etikako Batzordeko medikua-.

### Erretzeari uzteko tailerrak

Arrasateko Osasun Zentroak erretzeari uzteko tailerrak antolatu ditu. Urtarrilaren 15ean hasiko dira eta astean behin izango dira, astearteetan, 15:00etatik 17:00etara. Izen emateko, 943 03 52 50 telefonora deitu behar da. Saioak Debagoieneko Ospitaleko Arantzazu aretoko laugarren solairuan eskainiko dituzte eta terapeutak Mila Perez eta Bienve Martin izango dira.

## Atzerrian lanean ari diren Mundukideko langileak bueltan dira

Atzerriko herrialdeetan lanean ari diren Mundukideko lankideak bueltan dira, eta programa ezberdinen egunerokotasuna eza-gutzeko hitzaldiak antolatu dituzte Debagoieneko hainbat herritan.

Horrekin batera, Arrasateko Udala auzoko Ingurumen Eskolan hainbat egunez izan dira beraien esperientziak parteka-

tzeko antolatu dituzten jardunaldietan.

Bestalde, honako hauek izango dira Mundukidekoekin datozen egunetan eskainiko dituzten hitzaldiak: urtarrilaren 14an, astelehena, Kolonbiako proiektuaren inguruan, Eskoriatzako kultura etxean, 09:00etan; eta urtarrilaren 17an, osteguna, Mozambiqueko proiektuaz, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Bi hitzaldiak Beñat Arzadun Mundukideko kooperantearen eskutik izango dira.

## Debagoieneko ibilbidea

### Apirilak 13, zapatua

Oñati 12:13

Bergara 13:30

### Apirilak 14, domeka

Aramaio 02:09

Arrasate 03:38

Aretxabaleta 04:27

Eskoriatza 04:42

Leintz Gatzaga 05:30

# Hamar urtean gora egin du populazioak ibarrean

Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) datuen arabera, 2008an baino 810 biztanle gehiago izan ditu Debagoienak 2018an; hamar urteko epe horretan Bergarak galdu du biztanle gehien, eta Oñati izan da herritar kopurua gehien hazi den herria

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

2019ko urtarrilaren 1ean INEk egindako herriz herriko udal errolden berrikuspenak utzitako datuak dira horiek.

Bergarak, esaterako, 150 biztanle gutxiago ditu duela 10 urte baino, eta azken urtean 95 herritar gutxiago errolatu dira. Kezkaz hartu ditu datu horiek Elena Lete Bergarako alkateak. "Egia da aspaldian ez dagoela hazkunderik, eta hori ez da ona. Baina horrek baino gehiago kezkatu behar gaitu Bergaran eta, oro har, Bergaran populazioa zaharra dela", adierazi du. Hori horrela, jende gaztearen beharra azpimarratu du Letek. "Horri buelta emateko, jende gaztea behar dugu, jakina. Horren harira, gure enpresek ere aspalditik esaten dute jende gaztea behar dutela lanerako. Horretarako, funtsezkoa da Lanbide Heziketan gazteak formatzea, hona etorri eta gelditu daitezten eta, bide batez, aktibitatea indartu dadin".

Beste puntan Oñati dago. Izan ere, 2008an baino 519 herritar gehiago errolatu dira 2018an. Hala ere, azken urtean joera apurto da, eta 59 oñatiar gutxiago izan dira. "Azken urtean, beherakada izan da, jaiotza eta heriotza kopuruaren arteko diferentzia ohi baino handiagoa



Oñatiko herritarrak, Kale Barrian. E.A.

izan zelako 2017an. Horregatik jaitzi da biztanleria, hein handi baten. Urte hartan, 136 hil ziren eta 69 jaiotza", azaldu du Mikel Biain Oñatiko alkateak. Salbuespena izan dela dio Biainek. "Azken urteetan positiboa izan da bilakaera, eta aurrera begira ere joera mantenduko dela uste dugu. Ume gutxiago jaiotzen dira, baina industria asko dago herrian, eta kanpotik ere etortzen da jendea. Tokatu daiteke 2017an moduko salbuespenen bat, baina, orokorrean, tendentzia goranzkoa izango dela uste dugu,

eta herria hazten joango da", nabarmendu du.

## Gainontzeko herriak

Aretxabaletan ere Oñatin gertatutakoaren antzerakoa gertatu da. Izan ere, hamar urteko epea aintzat hartuta, populazioaren hazkundera nabarmena izan da, 2008an baino 341 herritar gehiago izan dituelako 2018an. Azken urtean, ordea, 28 biztanle galdu ditu.

Hazkunde nabarmena izan duen beste herri bat Elgeta izan da, eta joera goranzkoa da bi

## Populazioaren bilakaera

	2008	2017	2018
Aramaio	1.489	1.496	1.483
Antzuola	2.145	2.151	2.136
Aretxabaleta	6.646	7.015	6.987
Arrasate	21.974	21.977	22.019
Bergara	14.746	14.691	14.596
Elgeta	1.050	1.131	1.135
Eskoriatza	4.071	4.089	4.087
Leintz Gatzaga	263	231	232
Oñati	10.816	11.394	11.335
<b>Debagoiena</b>	<b>63.200</b>	<b>64.175</b>	<b>64.010</b>

ITURRIA: INE

epeak kontuan hartuta. Hau da, azken 10 urteetan 85 herritar gehiago errolatu dira eta 2017tik 2018rako epean, berriz, lau herritar gehiago.

Arrasatek, erritmo baxuan bada ere, hazkunderako joera izan du azken urteetan. Hala, 2017tik 2018ra bitartean izandako hazkundera azken hamarkadan izandakoa bezainbestekoa izan da ia. Hau da, azken hamar urteetan 45 biztanle irabazi ditu Arrasatek eta azken urtean, berriz, 42.

Eskoriatzari dagokionez, hazkunde txiki bat izan da populazioan azken hamar urteetan. Hala, 2008an baino hamasei pertsona gehiago errolatu dira 2018an. Azken urtean, aldiz, bi pertsona gutxiago.

Aramaion eta Antzuolan gauza bera gertatu da azken hamar urteotan. Izan ere, 2008tik 2017ra hazi egin ziren eta azken urtean beherakada izan dute.

Aramaioi erreparatuta, 2008tik 2017ra zazpi biztanle gehiago errolatu ziren, baina, azken

urtea kontuan hartuta, jaitziera hamahiru biztanlekoa izan da.

Antzuolan, 2017an sei herritar gehiago ziren 2008an baino. Azken urtean, ordea, antzuolar kopurua jaitzi egin da; hamabost gutxiago izan dira 2018an.

Azkenik, Leintz Gatzagan populazioa nabarmen jaitzi da azken hamarkadan, nahiz eta azken urtean mantendu egin den biztanleria. Hau da, 2008tik 2018ra, 31 herritar galdu ditu. Hala ere, 2017an baino biztanle bat gehiago izan du 2018an; 232, zehatz esateko.

## Debagoiena

Bailara osoa aintzat hartuta, Debagoienak Oñatiren eta Aretxabaletaren bilakaera bera eduki duela esan daiteke. Izan ere, 2018an 64.010 debagoiendar errolatu dira, 2008an baino 810 gehiago. Hala ere, azken urtean, hazkunde hori eten bakarrik ez, beheranzko joera hartu du, eta 2017an baino 165 gutxiago izan dira 2018an Debagoiengan errolatutako herritarrak.

## Debagoieneko errepideetan hiru hildako 2018an, bi istriputan

Urtarrilean bi pertsona hil ziren eta abuztuan beste bat, hirurak ere Aretxabaletan; Araban bi arrasatear hil ziren

**E.A.** DEBAGOIENA

Orotara, bost debagoiendar hil ziren 2018an Euskal Herriko errepideetan –horietatik hiru Debagoiengan, Aretxabaletan–.

Urteko lehenengo egunetan gertatu zen 2018ko lehen istripu

larria, Aretxabaletan. Motor batek eta autobus batek elkar jo zuten eta bi pertsona hil ziren, motor eta autobus gidariak.

Abuztuan, beste istripu larri bat izan zen, hura ere Aretxabaletan. Kasu hartan, motor

batek eta auto batek jo zuten elkar; moto gidaria hil egin zen.

Bestalde, irailean, bi arrasatear hil ziren Asparrenan (Araba), autoan zihoazela matxura bat konpontzen ari zen kamioi baten aurka talka eginda.

## EAEn, 42 hildako

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan 42 izan dira hildakoak 2018an. Araban eta Gipuzkoan hamahiruna eta Bizkaian hamasei. 2017an baino hiru gehiago dira horiek.



Abuztuan Aretxabaletan izandako istripua. E.A.



## GUTUNAK

## 'Sagutxo kaxkarina'

**MIREIA ARAKISTAIN ARANDA**  
BERGARA

Amatxo moduan, nire alabaren jaialdia ikustera joan nintzen abenduan. *Sagutxo kaxkarina* antzerkia egin behar zuten Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleek. Ipuin klasiko bat ikustera joan nintzen, baina txundituta irten nintzen.

Sagutxo kaxkarinaren lagun taldeak berehala egin zion aurre katutxo gaiztoari, sagutxoaren nahia onartu behar zuela garbi utziz. *Ez da ezetz* leloa 5 urteko 40 umeren ahotan egon zen une batez.

Momentu hartan, bihotzeko taupada handi bat sentitu nuen gorputz osoan. Gaur egun gure gizaratean egunero eta edozein lekutan gertatzen ari diren erasoan aurkako umeen ahotsak ozen entzun ziren. Erasoak era askotakoak izan daitezke: bikoteen artekoak, lagun artekoak, ezezagunen artekoak, fisikoak, emozionalak...

Gure umetxoak, zenbakiak eta letrak alde batera utziz, sagutxo kaxkarinaren azalean jarri ziren, berari laguntzea erabaki zuten eta garbi utzi zuten, guraso guztien aurrean, bakoitzaren nahia onartu egin behar dela. Urrezko hiru balio: enpatia, laguntasuna eta errespetua.

Ume horien guztien barrenean izugarritzko oinatza utzi zuen aste haietan landutako antzerkiak. Orain, beraien bizitzan eragina izango dugun heldu guztion ardura da mezu horiek betirako garbi izatea.

Lehen urratsa, behintzat, emanda dago, eta, horregatik, San Martin Agirre eskolako irakasleak zoriondu nahiko nituzke. Lan bikaina benetan.

## Eskerrik asko!

**MARIA ARANZAZU URIARTE**  
ARRASATEKO ERREGE KABALGATAKO  
BATZORDEAREN IZENEAN  
ARRASATE

Arrasateko Errege  
Kabalgatako Batzordeak

eskerrak eman gura dizkie haur guztiei: Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, SUDCi, Lurraldebusi, Gurutze Gorriari, Eroskiri, Laboral Kutxari, BMri, Kutxari eta kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei.

Horiei guztiei esker, beste urte batez, ilusioa banatu dugu umeen artean eta Iturbide egoitzan daudenen artean.

## 2019ko Arrasateko Martxoak 8 plataforma

**JASONE GIRALDO MENENDEZ**  
ARRASATEKO EMM-KO PLATAFORMA ETA  
POTTOGORRIAK  
ARRASATE

Kaixo, lagun!

Zuri zuzentzen gara, bai, zuri, pasa den urteko martxoaren 8an gu beste hunkitu eta emozionatu zinen horri, zuk ere bazenekielako arrakasta horretarako zure aletxo jarri zenuela; agian, ez zenuela asanbladetara etortzeko aukerarik izan, baina bai zure inguru xaxatzen, astintzen, eztabaida sortzen...

Bai, eta zuri ere zuzentzen gara; badakigu zuk, aldiz, zure elkartearen, alderdian, sindikatuan isileko lanean, zure mugimendua, taldea, kolektiboa feministagoa izan dadin lan itzela egiten duzula, askotan oso esker txarrekoa, baina martxoaren 8aren baitan eztabaida gai pila jarri zenituela lehen lerroan.

Zuri ere zuzentzen gara, manifa etxeko balkoitik ikusi zenuen horri, zure zaintza lanetan greba egitea ezinezko zaizun horri, zu ere emozionatu zinen.

Gaztetxoei; aurreko M8-an mugimendu feministara batzeko grina piztu zaizun horri, bizitza osoa feminista izan den pentsionistari, antolatuta egon edo ez, edo orain arte feminismoa arrotz bizi izan duenari eta orain atentzioa piztu dion horri.

Zuei guztioi zuzentzen gara Arrasateko Martxoak 8

plataforma sortzeko; urtarrilaren 15ean hasi eta martxoaren 8 bitarte arituko gara. Gure asmoa, bakoitzak bere gogo eta aukeretatik parte hartuz ahaztezina izango den borroka egun zoragarri bat antolatzea. Askotan, alboan aliatu bat dugula jakitea babes eta hauspo handia delako, eta ahizpatasunak pilak kargatzen dituelako. Emakume guztion artean, Arrasaten, martxoaren 8a aitzakia, zein helburu ezarri nahi ditugun eta zertan eragin nahi dugun erabaki dezakegu.

Urtarrilaren 15ean batuko gara. Bi aukera izango dituzu, 11:00etan edo 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Deialdi egunean, orduan gerturatzeko aukerarik ez baduzu baina hurrengo deialdien berri jaso nahi baduzu edo beste ordutegi batzuk proposatu nahi badituzu, mesedez, idatzi helbide honetara: [martxoak8arrasaten@gmail.com](mailto:martxoak8arrasaten@gmail.com).

Historia liburuetan martxoaren 8 hauen berri idatziko dute eta gure bilobei kontatuko diegu aurrera eramateko lanean aritu ginela. Emakumeok baturik eta elkarlanean geldiezinak garelako, martxoaren 8a borroka egun ahaztezina bihurtuko dugu. Zatoz gurekin!

## Herriaren alde

**JONE ARRIOLABENGOA, MANEX AGIRRE, JOSEBA JAUREGI ETA EDURNE URIBARREN-ITURRIETA**  
ARAMAIOKO EH BILDUREN IZENEAN  
ARAMAIO

Eguberri egunen aurretik, Aramaioko EAJren izenean eskuorri bat iritsi zen gure herriko etxe guztietara. Eta, gehiegi luzatu gabe, gure harridura erakutsi nahi dugu bertan esaten direnen aurrean.

Txundituta gaude, besteak beste, Aramaioko EAJk duen herrigintzaren ikuspegiaren aurrean. Eskuorri horretan

esaten dituztenak etxer etxe banatzea bada Aramaioko EAJk herriaren alde lan egiteko duen modua, egia esan, ez da oso lagungarria. Ez zaigu iruditzen gure herriarentzako ekarpen baliagarri bat denik.

Azken legegintzaldi osoan, Aramaioko EAJk ateak zabalik izan ditu udal batzordeetan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko. Batzorderen baten ardura hartzeko gonbidapena ere jaso dute, udal ordezkarien aldetik, eta erantzuna ezezkoa izan da. Gure ustez, hor dago gakoa: jokamoldeak berak erakusten du herrigintzan aritzeko moduan daukagun aldea.

Ez dugu eskuorrian esandako puntuz puntu erantzuteko lanik hartuko, ez gara joko horretan jausiko. Iruditzen zaigu udalak ahalegin handia egiten duela egunerokoan herritarrei informazio zuzena helarazi eta parte hartzeko bideak jartzeko, eta EAJren desinformazioaren aurrean erantzunik onena horixe dela uste dugu. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi bi puntuk sorrarazi diguten harridura: Eusko Jaurilaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza irekien erabilera partidistak, batetik, eta bere garaian EAJk esplizituki onartutako zaborraren tasaren igoeraren gaineko diskurtsoa aldatu eta erasorako erabiltzeak, bestetik. Horrelako gauzak esanda, ez da erraza sinesgarri izatea.

Ondo eta txarto egindakoak, denak hartu behar dira kontuan. Udal kudeaketa ez da beti erraza. Baina kudeaketa zailtzea asmo bakartzat dutenekin ez dugu zereginik. Lerroon bidez eskerrak eman nahi dizkiegu udalean, hautetsi modura, azken urteotan lanean aritu diren herritarrei. Herrigintza, lanean ari dena gutxienstea eta isekaz hartzea baino gehiago, herriaren alde lan egitea baita.

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Koxka bat estuago

**JAUME GELABERT**  
[HTTPS://LABUR.EUS/T86CS](https://labur.eus/t86cs)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Asko dira Horace Walpolek 1764an *The Castle of Otranto* idatzi zuenetik etxe sorginduen istorioak zabaldu dituzten liburuak; horietako lan batzuk, gainera, euskarara ekarriak dira, Edgar Allan Poeren *Usher etxearen hondamena* edo Henry Jamesen *Koxka bat estuago* kasu. Azken horretan zaila da jakiten Ingalaterrako landetxean gertatzen diren fenomeno paranormalak benetakoak ala protagonistaren burutazioak besterik ez diren. Nolanahi ere, kanpoko edo barneko mamurik izan, Jamesek asmatu zuen bere nobelan ezinegona pizten, eta funtsezkoa da etxea giro itogarria sorrarazteko. [...]

Arrotzapetik Iruñeko Alde Zaharrerako bidean, Nabarrerria plazako Rozalejo jauregiaren paretik pasatu bitartean, maiz pentsatu izan dut beldurrezko istorio gotikoa kokatzeko agertoki ezin hobea zela eraikina. Dekadentea, utzia, iluna, luzez biztanle ezagunik izan gabea. Eta tristea. Horrela gertatu zen 2017ko irailaren 3ra arte. Hainbat gaztek etxea okupatu eta jauregia biziberritzen hasi ziren data horretan: mamuak, nolabait, uxatu zituzten. Gobernuak, Udalak eta Gazte Asanbladak ekin zioten gero etxe sorginduen etorkizuna erabakitzeke negoziatioari. Ikuspuntu kontrajarriak, proposamenak eta arbuioak izan dira prozesuan, negoziatioetan ohikoa den bezala. Ohikoa ez dena –edo izan behar ez lukeena– da errepresioaren bidez irtenbidea adostea. Borren metodologia beste garai batekoa da –edo behar luke izan– eta ez dator bat aldaketa garaiarekin. [...]

Zaila da jakiten zer interesek piztu duten gaztetxearen auzia, gobernuaren barneko mamuek edo kanpokoek, baina zalantzarik ez dago aldaketarako bidea koxka bat estuago ixtea beldurgarria dela.



ZABALIK

ALEX LABAIEN

## Kristalezko bola

Beste asko bezala, kanpoan izan gara Gabonetan, eta kanpora joateak, besteak beste, gure etorkizuna zelakoa izango den ikusteko aukera eman ohi digu, kristalezko bolarena egiten du. Halaxe gertatu zitzaigun 2013ko udan Alemania aldera joan ginenean. Berrehunen bat bizikleta egongo ziren Konstantza hiriko tren-geltokiaren aurrealdean, guztiak ere txukun-txukun aparkatuta. Elektrikoak asko eta asko. Etxera itzuli, eta bizikleta-saltzaile lagunari bota nion: "Jesus, hemendik hamar urtera dena elektrikoa!". Beroarena kenduta, ezin esan zeharo oker ibili nintzenik...

Lurrin-makinaren -eta futbolaren- jaioterrian izan berri gara. Han ere garbi asko agertu zait kristalezko bola. Oraingoan, baina, bizikleta elektrikoaren irudiak barik, lurrinezko lurrin gozoa -gozoegia, nire gusturako- zekarkidan sudur-zuloetan barrena. "Zer ote da?", nik hasieran. Klean

### 'BAPEATZAILE'-AK HAN ETA HEMEN, DENDA ESPEZIALIZATU MORDOXKA, IRAGARKI GALANTAK...

gora eta behera genbiltzala, usaina sumatutakoan, jendearen eskuei arreta pixka bat jarri, eta... Zera da eta! *Vaper*-a esaten ei zaio gaztelaniaz. Misterioa argitzea nahikoa izan

zen *vaper*-ezko mundu ordura arte ezkutua nire begi-sudurretara ekartzeko: *bapeatzaile*-ak han eta hemen, denda espezializatu mordoxka, iragarki galantak hormarik preziatuenetan... Hau ere badatorkigu!, nire kolporako.

Eta, egia esate aldera, hemen zen jada; ufala, baina, ailegatzeke dago oraindik, eta aurki dugu gurean.

Adituak ez ei dira ados jartzen: Britainia Handiko Osasun Ministerioak harrera abegikorra egin dio, deabruzko tabako hilgarriaren ordezkiko onbera delakoan; AEBetako zenbait erakundek, ostera, ardi larruz jantzitako otsoa ikusi dute, batik bat, nerabeen artean izan duen arrakastari erreparatuta, eta ohartarazi digute gazteok betiko tabakora gerturatzeke bide ere izan daitekeela...

Auskalo! Bolari galdetu behar...

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zaleak

#### ONINTZA ENBEITA

[HTTPS://LABUR.EUS/MTGUU](https://labur.eus/mtguu)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Munduaren beste puntatik etorritako jendea aurkitu izan du etxeko atarian.

Ez da ulertzeko erraza muturreko zaletasun hori.

Zein momentutan erabakitzen du batek aurreztuta dauzkan lau txakurrak hegaldi bakarrean xahutzea?

Eta zein momentutan otutzen zaio hegaldi hori miresten duen musikari, kirolari, aktore edo modelo horren herrira joateko izango dela?

Ez da ulertzeko erraza eta, aldi berean, ez da barre egiteko kontua.

Ingurukoekin haserre bizi gara, auzokoekin borrokan; geure bunkerretik begiratzen diogu munduari.

Ez zaigu egiten dugun lana gustatzen eta hilabete amaieran soldata baino gehiago, susto bat hartzen dugu.

Sexualitatea tabuz beteta bizi dugu: beti ari gara geure burua nonbait kokatu nahi eta ezinean.

Bestelako mundua amesten dugu, baina egunero egiten dugu zerbait gure printzipioekin koherentea ez dena.

Ez dugu nahi besteek esaten dutenak eragin diezagun, baina sare sozialetan etengabe ari gara egiten duguna besteei erakusten.

Eta azkenean, egun batean, hegaldi bat hartzen duzu miresten duzun pertsona horrek zure gabezia guztientzat konponbidea izango balu legez.

Erridikulua dirudi, baina kirola hain sutsuki jarraitzen dutenek ere antzeko zerbait bilatzen dute:

Euren talde horrek pozen bat ematea astelehenak errazagoak izan daitezten.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Premia berriei erantzuteko, eskaintza berri du MUK"

**BIXENTE ATXA** MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Eneko Azkarate** ARRASATE Mondragon Unibertsitateak eskaintza akademiko "berritzailea" diseinatu du, gizartearen "premia berriei" erantzuteko, profil berriekin. Datorren ikasturtean, hamaika titulazio berri eskainiko ditu, graduak nahiz graduondokoak. Errektoreak eman ditu azalpenak.

## Garai berrietara egokitu nahi izan du MUK eskaintza akademikoa?

Profil profesional berriak eskatuko ditu lan merkatuak, eta horretara egokitzeko eskaintza aurkeztu dugu, hausnarketa sakon baten ostean. Digitalizazioa, hezkuntzaren eraldaketa, robotak... Horri erantzuteko, titulazio berriak izango ditugu 2019-2020 ikasturtetik aurrera.

## Esaterako, zeintzuk?

Bilboko campusean eskainiko dugu Business Data Analytics gradua, EAEn lehenengoa izango dena. Injineritza alorrean, Industria 4.0 estrategiarekin eta zibersegurtasunarekin lotuta,



Bixente Atxa, eguaztenean, Goiena telebistan, Arrasaten. ENEKO AZURMENDI

Arrasaten eskainiko ditugu Datuen Análisisa, Zibersegurtasuna, eta Garapena eta Eragiketarako masterra, hau ere EAEn bakarra, eta Robotika eta Kontrol Sistemak masterra.

Biak ere dualak. Huhez, azkenik, laugarrena: Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra, hezkuntzako profesionalak eguneratu eta eraldatzen laguntzeko.

## Etorkizuneko MUK ikasleen kompetentzia nagusiak ere definitu dituzue... Zeintzuk dira?

Komunikazioa; identitate propioa; malgutasuna eta egokitzeko ahalmena; ekimena; nazioartekotasuna eta MUKren marka dena: kooperazioa... Ulertzen dugu azken hau dela etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu egokiena. Unibertsitateko esperientzia lau, bost edo sei urtekoa da, baina hortik aurrera etengabe formatzen joan behar du langileak.

## Irakasleek eta hezitzaileek ere eguneratzen joan behar dute...

Ikasleak daude erdigunean eta hezitzaileak alboan, eta hauek ere formatu egin behar dira. MUK ikasleak adituak izan behar dira. MUK formakuntza pedagogikoa etengabea da.

## Lau fakultate ditu MUK. Zeintzuk dira bakoitzaren erronkak?

Hezkuntza berrikuntzan lidergo mantentzea, nazioartekotzea, kanpotik beste ikasle batzuk erakartzea, masterrak-eta egiteko -izan ere, demografiaren aldetik geroago eta gutxiago garelako hemen-, eta laugarrena, goi mailako ikerketa aplikatua egiten jarraitzea enprekin batera, ezagutza enpresei transferitzeko eta enpresak lehiakorraz izaten laguntzeko.

## HAU BE BADOGU!

## Bilboko eta Baionako manifestazioak hizpide



Sare sozialetako hainbat eta hainbat erabiltzaile bihar Bilbon eta Baionan Orain Presoak dinamikak antolatutako manifestazioetara jarri dira begira:

@Lasterbidean: "Tik-tak, tik-tak... Badator eguna eta larunbatean jakinen dugu aurtengo Lasterbidean edizioaren data eta herria. Denok Bilbo edo Baionara! #OrainPresoak Bete ditzagun Bilbo-Baionako karririkak, espeteak husteko! Pausoak ekarri dezake pausoa..."

## Indartsu dator Korrika sare sozialetan

Martitzenean aurkeztu zuten Korrikaren ibilbidea, eta traol erabilienetakoak izan dira #Korrika eta #Klika.

@aek\_eus: "21. #Korrika-ren ibilbidea aurkeztuta! #Klika, pausoa pausoa, gure erritmorak!"

@bienbie014: "Lehenengo korrika parte hartu nuenean, ikastetxean nenbilen eta ez nekien euskaraz. AEKri esker ikasi nuen. Orain, azken 20 urteak Euskal Herriatik urrun eman ditut #Korrika #oroitzapenak".

## Maravillas 'trending topic' izan da

#MaravillasAurrera eta #MaravillasHerriarentzat traolak erabilienetakoak izan dira azken egunetan Twitterren; batez ere, txiolari euskaldunen artean. Izan ere, Iruñeko Maravillas gaztetxea hustu du poliziak asteon, eta sare sozialak gazte mugimenduaren aldeko aldarrikapenez bete dira:

@itzeitzea: "Uste nuen halako irudiak oroitzapenetan bakarrik erreparatu ahal izango nituela. #MaravillasAurrera."

## ITURRI ONETIK

## Debagoieneko Kirol Sariak berriro

Debagoieneko Kirol Sariak antolatuko dituzte aurten, berriro ere, sei urteko etenaren ostean. 2008an egin zen lehenengoa, Aretxabaletan, eta 2012an banatu ziren, azkenekoz, Elgetan. Arteman Komunikazio enpresa eta Debagoieneko udalak izan ziren lau edizioen antolatzaileak. Udalek berriro ere berreskuratu nahi izan dute sariketa -oraingoan, Goienarekin batera-, eskualdeko kirolarien lana aitortzeko. Arrasaten banatuko dira, otsailean.

## ALBISTE IZAN ZEN

2003-01-08

## Ezustea autobideko lanetan

AP-1eko autobideko lanetan istripua izan zen. Soralezko Larreategiko zubi-bidean, porlanezko pieza aurrefabrikatua jartzen ari zirela, bi zutabe pare elkarrekin lotzen dituen errepide tarteko beste hiru pieza mugitu ziren eta erdi erorian geratu ziren. Zubi-bidea 50 bat metro garai da eta piezetako bakoitzak 50 tonako pisua zuen. Autobideko lanak atzeratu egin ziren, baina ez zen ezbehar pertsonalik gertatu.



# Irailetik abendura gora egin dute lapurretek

2017arekin alderatuta, salaketa gutxiago izan dira 2018an –%35,3 gutxiago–, baina azken lau hilabeteetan datua 2017koa baino %58 handiagoa da. 2018ko irailetik abendura, 19 salaketa jaso ditu Ertzaintzak, eta horiekin lotuta sei lagun atxilotu dituzte

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

2018a lapurreta kasuen hazkunderarekin amaitu da, batez ere, tabernekin eta komertzioekin lotutako lapurreten kasuan. Hala ere, Deba Urolako ertzain etxe-ko arduradunek jakinarazi dute bertako kriminalitate datuak "baxuak" direla.

"Esan beharra dago Deba Urola ertzain-etxe-ko barrutiko kriminalitate edo delinkuentzia indizeak Gipuzkoa eta EAEko baxuenak direla; beraz, segurtasun erreala handia da. Baina gertatu daiteke biztanleriak hautemandako segurtasun sentazioa baxua izatea; denbora epe motz eta eremu konkretu batean hainbat lapurreta edo gertaera jazotzen direlako; nahiz eta estatistika eta delitu kopurua larria izan ez. Hala ere, detaile hau ere kontuan hartzen dugu, hautemandako segurtasun hori etengabe hobetu nahian".

**Iaz baino gutxiago**

Datuei erreparatuta, 2018an 2017an baino lapurreta gutxiago gertatu ziren. 2017an zehar, 68 salaketa jaso zituen Ertzaintzak eta 2018an, aldiz, 44; %35,3 gutxiago. Bi urteetan, hori bai, lapurreta gehienak –%70etik gora– tabernetan eta komertzioetan egin dira. Baina 2018ko kasuan, gorakada nabarmena urteko azken lau hilabeteetan



Ertzaintza eta udaltzainak, Ferrerías kalean egindako lapurreta bat ikertzen. X.G.

## IRAILETIK ABENDURA, URTE OSOKO KASUEN %43 GERTATU DIRA, ETA MERKATARIK ARDURATUTA DAUDE

izan da. Irailetik abendura, bitartean urte osoko lapurreta salaketen %43 gertatu dira; hau da, 44 kasuetatik, 19.

**Inpunitate sententzia**

Lapurretak jasan dituztenen artean, lapurreta segituan aske geratzen diren sententzia dago

eta horrek segurtasun falta sententzia eragiten die. 2018an, adibidez, zortzi atxiloteta edo egozte izan ziren lapurretetatik; beraz, lapurreten atxiloteta ratioa %20 azpitik dago. Zera dio lapurreta aske geratzeari buruz Elena Laka abokatuak: "Era horretako delituengatik jasotzen diren kartzela-zigorak bi urtetik beherakoak izaten dira; beraz, aske geratzen dira delitugileak –berrerorleak ez badira–. Gainera, zigorra jaso arte, zortzi edo bederatzi hilabete pasa daitezke. Beraz, tarte horretan berriz lapurtuz gero, legearen aurrean ez dira delitu berrerorle".



XABI GOROSTIDI

## Etorkizuna, frantziskotarren esku

Azken hiru urteetan, Arrasateko parrokiako kideak arduratu dira bertan mezak esateaz, baina euren konpromisoa 2018ko abenduaren 31n agortzen zen. Egun hartan esan zen azkena, eta eraikinaren etorkizuna jabe frantziskotarren esku dago orain. Arantzazuko frantziskotarren buru Juan Inazio Larreak adierazi du une honetan ez dagola ezer berririk esateko.

## Hilaren 15ean, M8-rako plataforma sortuko dugu; animatu!

**Goiena komunitatea**  
Emakumeen Mundu Martxa  
ARRASATE

Zuri zuzentzen gara, bai, zuri, pasa den urteko martxoaren 8an gu beste hunkitu eta emozionatu zinen horri, zuk ere bazenekiela arrakasta horretarako zure aletxo jarri zenuela; agian, ez zenuela asanbladetara etortzeko aukerarik izan, baina bai zure ingurua xaxatzen, astintzen, eztabaida sortzen...

Urtarrilaren 15ean batuko gara, martxoaren 8ra begirako plataforma sortzeko; bi aukera izango dituzu: 11:00etan edo 18:30ean, Kulturategi Jokin Zaitegi gelan. Deialdi egunean, orduan gerturatzeko aukerarik ez baduzu baina birtualki sareta egon nahi baduzu edo hurrengo deialdien berri jaso nahi baduzu edo beste ordutegi batzuk proposatu nahi badituzu, mesedez, idatzi helbide honetara: [martxoak8arrasaten@gmail.com](mailto:martxoak8arrasaten@gmail.com) (gutun osoa irakurtzeko, jo 7. orrira).

## Juan Karlos Izagirre eta Maider Morras, eguaztenean

EH Bilduk ekitaldia egingo du Arrasaten, alkategaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaia jendaurrean aurkezteko. Solasaldi formatua izango du eta Kulturategi klastroan egingo dute, 19:00etan hasita. Gipuzkoarako eta Arrasaterako neurri konkretuak jorratuko dituzte bertan, 2019ko maiatzeko hauteskundeei begira.

## 'Familian jolasean' ekimena, domekero, martxoaren 31ra arte

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanez era ludikoan gozatzeko helburua duen ekimenaren beste edizio bat presatu du Udaleko Gazteria Sailak. Urtarrilaren 13an hasi eta martxoaren 31ra bitartean, domeka arratsaldero egingo dituzte saioak, Okendoko ludotekan; horren harira, alde aurretik izena ematea komeni da.

### Lapurretak

Lapurretak	2017			2018		
	Lapurretak		Atxiloteta-egozteak	Lapurretak		Atxiloteta-egozteak
	Iraila-Ab.	Urte osoa		Iraila-Ab.	Urte osoa	
Etxeetan	3	16	1	2	7	0
Lantegietan	1	3	0	0	4	2
Dendak, tabernak	8	49	8	17	33	6
<b>Guztira</b>	<b>12</b>	<b>68</b>	<b>9</b>	<b>19</b>	<b>44</b>	<b>8</b>

OHARRA: DATUAK ERTZAINZAK JASOTAKO SALAKETETAN OINARRITUTA DAUDE





Arrasateko bi gaitero noria barruan instrumentua jotzen. ARRASATEKO GAITEROAK

# Gaiteroen bideo batek hautsak harrotu ditu

Donostiako norian Athleticen ereserkia jotzen ageri dira bertan. Hirugarrenek igo dute bideoa Twitterrera, eta biral bilakatu da. 17.000 aldiz ikusia izan da, polemika eta errespetu faltak eragin ditu eta gaiteroek azaldu dute "asmo txarrik gabe" egin zutela

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Abenduaren 29an, Arrasateko bi gaitero eta euren kuadrilla Donostiara joan ziren, egun-pasa, eta, beti bezala, musika instrumentuak aldean eraman zituzten. Beste askok bezala, hain modan dagoen Alderdi Ederko norian bueltatzea egitera joan ziren, eta han grabatu zuten gerora biral bilakatuko zen bideoa.

"Donostiako noria baten abesti batzuk jo, grabatu eta lagun artean konpartitu genituen. Realeko ereserkia ere jo genuen, eta grabatuta dago, baina bestek -Athleticekoak-, itxura denez, grazia gehiago eragiten du, eta hori izan da biral egin dena. Gero, arratsaldean, Donostiako

plazako arkupeetan euskal Gabon-kantak eta Donostiako daborradako hainbat abesti ere jo genituen; bertako jendeak ere parte hartu zuen gurekin abesten, baina horiek ere grazia gutxiago sortzen dute inguru batzuetan, eta ez dira erabilgarriak. Morbo gutxi!", azaldu dute gaiteroek.

Bideoa lagunartean zabaltzeko asmoz grabatu zuten arren, hura pixkanaka hedatzen joan zen, eurekin zerikusirik ez zuten pertsonengana iritsi zen arte. Hala, handik sei egunera, bere burua realzalezat definitzen duen pertsona batek Athleticeko ereserkia jotzen ageri diren bideoa igo zuen Twitterrera,

ondorengo mezuarekin: *Batzuek Gipuzkoa alboko probintzian bizitza inteligenterik dagoen galdetzen jarraitzen dute. Nik, behintzat, argi daukat.*

Txioak 60 erantzun baino gehiago pilatu zituen, batez ere, realzaleenak eta athleticzaleenak, futboleko klabeen. Badaude ereserkiaren bideoa umorez hartzen duten erantzunak, baina, beste batzuetan, gaiteroen eta haien lagunen aurkako irain pertsonalak ageri dira. Batzuk aipatzearren: *Noriatik hegan botako nituzke; Kabina desinfektatu egin beharko da; Honen aurpegiarekin ehunka 'meme' egin ditzakegu; Inozoak dira, eta harro daude, gainera...*

## Harridura erreazioekin

Protagonistek larrituta bizi izan dute bideoak sare sozialetan izan duen ibilbidea. "Bideo honen zabalkuntzak bagenekiena azaleratu du; zoritxarrez, kulturaren eta futbol forofismoaren artean dagoen desoreka, eta horrela doakigu mundu honetan. Musikaren inguruan aipatutakoak aparte, gai honek eduki duen erabilera okerrak kuadrillako pertsoneri ere eragiten die, eta zentzugabekeriak betetako hainbat hitz eta interpretazio jaurti dira, intentzio txarrez, min egiteko eta testuingurua batere ezagutu gabe. Bagenekien Interneteko mundu horretan sartzen diren gaiek horrelako erabilera izaten zutela; baina inondik ere ez genuen pentsatzen batzuek duten frustrazio pertsonala eta futbol estremismoa euskal zaleen artean ere egongo zenik".

## Aurrera egiteko gogoz

Egun gogorrek izan dira gaiteroentzako, eta haien lagunentzako, baina arrasatearrei benetan gertatukoa kontatzeko erantzun diote GOIENAREN deiari. "40 urte daramatzagu gaita jotzen askotariko ekitaldietan, tokietan -mendi gailurretan, itsasontzietan, kobetan, edo katedraletan- eta probintzia eta herrialde desberdinetan. Gure bideo asko daude Interneten zehar bueltaka eta guztien artean ez dute zenbatzen bideo honek izan duen bisita kopurua. Zer den morboa! Edozein koloretako futbolzaleen foroetan idatzitako kaka guztiak ez ditu gure musikazaletasuna eta pentsaerak aldatuko, eta umorez eta alaitasunez jarraitzeko asmoa dugu, jakina: *Guuu... euskaldunak garaaa... Euskal Gaiteroak*".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

## Eskumarako txangoan

*El Mundo*-k ateratako azken inkestaren arabera, VOX alderdiak 45 jarleku aterako lituzke Espainiako Parlamentuan hauteskundeak orain egingo balira. Jakina, Rivera eta Casadoren eskuinekin batuta, eskuinak samur lortuko luke gehiengoa Madrilen.

Dena dela, jendeak hemen ez du hori kezka handiz ikusten, nik uste. Gauza horiek Pancorbotik beherako fenomeno desatsegin moduan hartzen ditugu sarritan, eta "hemen ez dute ezer aterako" esanda lasai jarraitzen dugu poteoan.

Baina fatxa berri hauen gorakada ez da Espainiako haize bolada barregarri bat, baizik eta mundu mailan handitzen doan joera politikoa, eta, beraz, oraindik asko haziko da. Gure autonomiatxoarekin zer gertatzen den ere Madrilen erabakitzen da, eta igarri orduko kili-kolo gera daitezke gauza asko -euskarazko hezkuntza, adibidez-. Izan ere, eskuin muturra iman bat da, mapa politiko osoa eskuinerantz daramana, kate luze bat balitz bezala: VOXek PP; PPK, PSOE; PSOEak PNV eta Podemos; PNVk EH Bildu...

Izan ere, ezkeraren imana falta da. Kapitalismoaren alternatiba posible dela gogoratzea falta da.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa	Arreta golzilarra
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak	Logopedia
Laguntza eskolarrak	Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18

arbolapeta

arrasate

beinke



Besaideko espedizio bateko lagunak Arango haranean, 2006an. BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

# Aurpegi berrien premian, herrian mendizaletasuna zabaltzen jarraitzeko

Besaide Mendizale Elkarteak sei hamarkada pasatxo daramatza Arrasaten mendizaletasuna hedatzen, horren zentzu zabalenean. Oraingo zuzendaritzak ibilbide oparoa egin du, eta, hura berritzeko, herritar guztiei ireki nahi dizkie elkarteak atea

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Miguel Unamuno pentsalariak zioen: *Nork bere burua berritzeko gaitasunak eragiten du aurrerapena*. Eta Besaide Mendizale Elkarteak zuzendaritzako kideek bat egiten dute ideia horrekin; izan ere, egindako ibilbide eman-korraren ostean, aurpegi eta ideia berriz hornitu nahi dute elkartearen zuzendaritza.

## Elkarte erreferentea

Mendizaletasunarekin lotutako askotariko irteerak egin izan ditu Besaidek bere sorreratik –1957an sortu zen–, eta horietako asko erabat errotuta daude gaur egun, elkartearen klasikoak izateraino. Honela definitu ditu egungo presidente Aitor Zubiagak zeintzuk izan diren Besaide Elkartearen ekintzen artean ikur izatera heldu direnak: "Historikoki, pisu handia izan dute

elkatean eski alpinoaren baitan antolatu izan diren irteerak. Negu partean, astebururo bi autobus eraman izan ditugu Pirinio aldera, eta gaur egun mantentzen den zerbait da. Beste ikur bat, nire ustez, Mondran-bike lasterketa da. Arrakastatsua da, herrian zehar egiten den ibilbide paregabea du, eta Arrasateren izena Euskal Herriko mendiko bizikleta-zaleen artean zabaltzeko balio izan du. Eta beste ikurretako bat, zalantzarik gabe, Aiba mendi martxa da. Elortondo anaiek hasi zuten, eta gure ingurutik urrundu gabe

**ESKI IRTEERAK, 'AIBA' MENDI MARTXA ETA 'MONDRANBIKE' DIRA ELKARTEAREN IKUR NAGUSIETAKO BATZUK**

mendi buelta ikusgarriak egin daitezkeela erakusteko balio izan du". Aipatu behar da Aiba bi urtetik behin antolatzen dela orain, eta aurtengo ekainean beste edizio bat egingo dutela.

## Modernizatzea eta ahalduntzea

Elkarteak zuzendaritzak betidanik izan dituen helburuak dira, eta horren erakusle garbia da duela bi urtetik Sergio Serranok gidatu dituen GPS ikastaroak. "Hasieran, Federazioko kide batek gidatu zuen ikastaroa, baina teknikoegia zen. Sergiok sekulako lana egin du, bakoitzaren jakintza mailara eta bakoitzaren baliabide teknologikoetara egokitzen. Teknologia berriekiko mesfidatia zen jende asko ahalduntzea lortu du, eta mendizaleen segurtasunerako eta autonomiarako aurrerapausoa izan da".

## "Dei egiten diegu herritar guztiei elkartera lasaitasunez hurbiltzeko"

AITOR ZUBIAGA BESAIDE MENDIZALEEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Euskal Herri mailan erreferentziatzeko elkarte da Besaide; bazkide kopuruagatik, eta baita aktibitate mailagatik.

### Zein da elkartearen argazkia momentu honetan?

1.600 bazkide inguru ditugu gaur egun, eta horietako erdia baino gehiago –950– federatuak dira. Federatu kopuru esanguratsua da, hiriburuetakotako mendi elkartearen pare dago eta.

### Momentu honetan, zuzendaritza berritzeko prozesuan murgilduta zaudete. Nondik dator berritzeko beharra? Eta zein profilen bila ari zarete?

Zuzendaritzako kideok uste dugu ibilbide bat osatu dugula eta hasieran jarritako helburuak bete ditugula. Uste dugu berritzea ona izango dela elkartearen osasunarentzat: jende berria, ideia berriak, erronka berriak... Beraz, dei egiten diegu herritar guztiei, bazkide izan edo ez, elkartera gerturatzeko eta lasaitasun osoz galdetzeko. Gure atea gure pare zabalik daude. Ez



AITOR ZUBIAGA

bakarrik zuzendaritzarako kide berriak erakartzeko, herriarentzako interesgarri izan daitekeen edozein ekimenentzako ere bai; puntualak edo jarraikortasun bat izan dezaketen ideiak jasotzeko egarri gaude. Natura eta mendia uztartzen dituen edozein egitasmorentzako euskarri izan nahi dugu. Horren harira, gustatuko litzaiguke emakumeek aurrerapausoa ematea, eta elkarteak estrukturan presentzia izatea. Baita gazteek ere. **Zure ustez, zein izan da gaur egungo zuzendaritzak egin duen ekarpen nabarmenena?**

Azken urte hauetan, ahalegin berezia egin dugu elkarte Arrasatera gerturatzeko. Herri-bideen inbentario publikoa onartzea mugari bat izan da, adibidez. Horrekin lotuta, hainbat eremu berreskuratu ditugu herriarentzako –San Balerio, Iturritxipi gaina eta Kurtzetxiki–, autoa hartu gabe mendizaletasunaz gozatzeko.

## Etxezarreta proiektua

83 hektareako lursail hau publiko bihurtu da agintaldi honetan, eta horretan zeresan handia izan du mendi elkarteak. "Energia eta indar asko xurgatu digun proiektua izan da. Honen genesitik, Besaide atzean egon da. Pinuak botatzen ari zirela ohartu ginen eta Udalarari abisatu genion. Gero, joko politikoaren erdian sartu ginen, eta ez zen erraza izan akordioa lortzea, nahiz eta herriarentzako onura oso agerikoa izan, gure ustez. Baina adostasuna lortu genuen, eta sentsazioa daukat urte batzuk pasatu ostean jabetuko garela proiektu honek duen garrantziaz: Debagoieneko erdigune geografikoan dago, sekulako lorategi botanikoa du, Vasco-Navarro trenbidearen ibilbidea...". Lursaila ordainduta dago, eta laster lan txiki batzuk egingo dituzte. "Ostean, auzolan batzuk antolatuko ditugu; ingurua ezagutarazteko eta norberarena dela sentitzeko".



Proiektua aurkeztu zeneko. GOIENA



## Besaide balioan jartzeko beharra

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko mugen erdian dagoen eremua duindu nahian ere aritu dira; duen edertasunagatik eta sinbolismoagatik, eta baita bertan ikusi dituzten jokabide desegokiengatik. "Mendian hildako lagunero orimenezko monumentua dago bertan, eta, hori dela eta, errespetua merezi beharko luke. Baina alderantzizkoa ari da gertatzen. Monumentu batetik bestera dauden eskaileretan trabes batzuk jarri genituen, eta desagertu egin dira. Horrez gain, auto bat erreta agertu zen bertan, eta, ostean, hori goiko monumentura atoian eramaten ere ahalegindu dira. Horrelako jokabideak ikusita, eremua hesitzearen aldekoak gara, nahiz eta gu ez garen oso hesizaleak. Horretarako, txosten bat prestatu dugu Naturtzaindia elkartearekin batera, eta panel informatibo batzuk ere jarriko genituzke".



Autoa erreta Besaiden. I. ZENITAGOIA

## Elkarlanerako borondatea

Azken urte hauetan, sinergiak bilatzeko ahaleginak egin ditu zuzendaritzak. Besaide egunari dagokionez, hura hauspotzeko kontaktu ugari izan dituzte Elorrioko, Aramaioko edo Atxondoko mendi elkarteekin.

Herri mailan, adibidez, Ingurumen Mahaiaren bultzatzaileetako bat izan zen, non, besteak beste, SUDC, Arrasate Zientzia Elkartea, Naturtzaindia eta ordezkari politikoak dauden. Mahai horren fruitua izan da, adibidez, Antoñako hezegunea.

## Herriarentzat bideak irabazten


Aspektu hau izan da gaur egungo zuzendaritzaren helburu nagusietakoa, eta, horren harira, mugarriztat jo du Zubiagak herri-bideen inbentario publikoaren onarpenera.

"Oso pauso garrantzitsua da, arrazoi askorengatik. Lehenik eta behin, estatus jakin bat ematen die bide horiei, eta herriaren ondare izatera pasatzen dira. Hori onartu aurretik zeuden hainbat arazo saihesteko balioko du: lehen, bide batzuen jabetzarekin zalantzak egoten ziren, arazoak zeuden ere bideen mantentze-lanekin lotuta –narra gehiegi edukitzea edo lur-jausien eraginak, kasu–. Baina, behin herri ondare izatera edukita, Udalak izango du mantentzearen ardura, eta jabetzekin lotutako eztabaidak saihestuko dira".

Zubiagak dio "dokumentu bizi bat" izango dela, aldaketak izan ditzakeena, eta seinaleetika arloan hobekuntzak egin daitezkeela uste du. Bide sare horrekin lotuta, ordea, hainbat lan eta hainbat erosketa hauspotu ditu Besaidek.

### Kurtzetxiki

"Hau da, nire ustez, herriarentzat berreskuratu dugun eremuen adibiderik emankorra. Lehen, pinudi bat



Udal ordezkariekin, teknikariekin, Iturritxipi gaineko tontorrean. XABI GOROSTIDI

zegoen tontorrean, eta, hori soildu ostean, sekulako bistak eskaintzen dituen tontor bat lortu dugu, Anbotoren, Udalatxan, Atxorrotxan eta Aloñaren ikuspegi ederrak dituen. Kanpoko bisitarien eskutitzak jaso ditugu bertako postontzian, egindako lanagatik eskerrak emanez. Betidanik bertan eduki dugun leku hori azken urte hauetan ezagutu dute arrasatear askok. Guk ez dugu asmatu, bertan egon da beti, baina, gerizpetik atera eta duindu ostean, asko irabazi du".

Esan behar da, besteak beste, Kurtzetxikin egindako lanagatik jaso zuela Besaidek 2018ko Maritxu Komisiñuaren inbutua.

### San Baleixo

Meatzerreka inguruko eremu horretan egindako lanak

herriaren historia hobeto ezagutzeko balio izan duela uste du Zubiagak. "Elizarenak ziren lurak erosi zituen Udalak, eta, auzolan batzuk egin ostean, Arrasateren aberastasun iturri izan den meatzaritza-barrutia balioan jartzeko balio izan du. Bertako zazpi kobazuloak Arrasateren historiaren parte dira. Horrez gain, errege-bidea ere berreskuratu dugu".

### Iturritxipi gaina

Udalak lursail hori erostearen alde egin zuen Besaidek, eta akordioa 2016ko uztailean heldu zen. "Gure hasierako asmoa zen San Baleixoko bide beretik bertara joateko bide bat egitea, Monterrondik abiatuko zena. Baina ez gara lursail bateko jabeekin akordiora heldu, eta Mojatxetik joango da".



BENJA RAMOS

## Klaustroa, udazkenaren ispilu

Argazki elkartearen Udazkeneko Lehiaketako 45 argazki onenak Kulturategiaren klaustroan ikusi ahalgo dira hilaren 12tik 16ra bitartean. 40x50 formatuko koadroak dira, eta, gutxi gorabehera, 25 euroren bueltan erosi ahalgo dira. Ostean, batutako diru guztia Aspanogi elkarteari emango diote. Iaz, adibidez, 1.020 euro batzea lortu zuten.

## 'Ausortu' ekimenari bi laborategi-saio geratzen zaizkio

Horietako lehena urtarrilaren 19an egingo dute, zapatua, eta honela azaldu dute Txatxilipurdiko lagunek zein gairi buruzkoa izango den: ikus-entzunezkoen esparruan murgilduko gara, Itziar Bastarrika eta Ekaitz Filarrendi artistekin. Argazkilaritza estenopeikoa ezagutuko dugu; hau da, egunero erabiltzen ditugun kamera digitalen fun-

tzionamendurako giltza. Bakoi-tzaren kamera propioa sortuko dugu, eta, horrekin, modu analogikoan argazkiak egiten ikasi. Emaizta errebelatzen eta digitalizatzen ere trebatuko gara, laborategian egindakoa gordetzeko aukera izan dezagun".

Bigarren laborategian –otsailaren 2an egingo da–, arte eszenikoak jorratuko dituzte luxuko gonbidatu batekin, Kepa Errasti aktore aretxabaletarrarekin. Horietan parte hartzeko, AEDra edo Txatxilipurdira jo.



IMANOL BELOKI

## Mila esker bidelagun izateagatik!

Goiena komunitatea / Txatxilipurdi / ARRASATE

2019ko Txikilandia urteroko esentziarekin baina nobedadez josita joan zaigu. Zuei esker Gabonetako oporralditxoan ederto pasa dugu, eta, beti bezala, euskaraz. Ezin ahaztu jolasa eta euskara direla gure ardatz. Datorren urtean bidelagun izaten jarraituko dugulakoan, mila esker!



# "Zorte faltak zalantzak izatera eramaten zaitu"

**IGOR ISASI** KANPAZAR ART RUGBY TALDEKO ENTRENATZAILEA

lazko taldetik hainbat baja izan eta gero, denboraldia gogorra izango zela jakitun zen Kanpazar ART, baina partidu batzuetan zortea ere ez du aldeko izan taldeak

**Jokin Etxebarría** ARRASATE

Denboraldi zaila izaten ari da Kanpazar ARTkoentzat. Aste-buru honetan, lehen itzuliko azken partidua jokatu du eta Igor Isasi entrenatzaileak argi du bigarren itzulian aurrera begira jarri nahi dutela eta lau aurkari zuzenen aurkako partiduek erabakiko dutela guztia. **Lehen itzulia amaitzeko partidu bakarra falta da, eta aurkaria ez da makala: Gaztedi.**

Berez, gure ligako bost talde indartsuenetako bat da. Azken urteetan, ligako talderik onenetakoa izan da eta aurten ere hor dabil. Erasoan ez dabil aurreko urteetan bezain fin, agian, baina bigarren dago sailkapenean, lehenarekin berdinduta. Talde oso sendoa daukate, baina etxean jokatzeko beraien aurka eta topera irtengo gara.

**Gabon egun hauek ondo etorriko zitzaizkizuen, agian, jendea berreskuratzeko, azken partiduetan zailtasun handiak izan baitituzue.**



Igor Isasi Kanpazar ART taldeko entrenatzailea. ARTXIBOA

Azken partiduetan jende kopuru aldetik nahiko ondo ibili gara, baina emaitzek ez dute askorik lagundu. Bonus puntuak eskuratu ditugu, eta gaitz erdi, lan horretan txukun gabiltza eta horri esker aurrera begira jarri

gaitezke; horrek erakusten du galdu arren, 7 puntu baino gutxiagotatik egin dugula, edo 4 entsegu lortuta. Azken-aurrekoak gara sailkapenean, baina tarte gutxi dago gure gainetik dauden hurrengo bietara.

**Uste al zenuten kurtsoa horren gogor joango zenik?**

Iaz, maila mantendu genuen, baina iazko taldetik baja batzuk izango genituela bagenekien, batzuen lan arazoak tarteko edo kanpora joan direlako ikastera beste batzuk. Denboraldi hasieran, estrategia moduan, denok zein partidutan egon behar genuen gorriz markatu genuen, ahal zela partidu horiek irabazteko. Lehen bosten aurkako partiduetan, lehen zatian, behintzat, lehiatzeko asmoz joaten gara, eta inork minik ez hartzeko esperantzarekin.

**Taldea fisikoki sufritzen dabil, baina psikologikoki ere baietz esan daiteke?**

Taldeak hasieratik zekien egoera zein izango zen, eta egunero entrenatzen ari diren 11-12 mutilak topera daude. Aurreko urteetatik, justu samar ibiltzera ohituta gaude. Iaz, hala ere, emaitza aldetik zorte handia izan genuen, irabazten hasi ginen denboraldia; aurten, berriz, hori falta izan zaigu. Zorte falta horrek psikologikoki zalantzak edukitzera eramaten zaitu eta bigarren itzulian derrigortuta gaude partidu horiek aurrera ateratzera. Egia da, hala ere, okerrago ezin dugula egin, eta, behintzat, badakigu zer den egin behar duguna partidu horiek irabazteko. **Bi partidu egon dira, bereziki, justu-justu galdutakoak aurkari zuzenen aurka. Horrek taldeari min handia egingo zion, ezta?**

Bai; batez ere, Bera-Beraren aurkako azken partiduak. Irabazten joan ginen denbora askoan, eta, azken jokaldian, 22-21 galdu genuen. Horrek sekulako amorrua eman zigun. Bueltan gentozela, animatu nahian edo, esan genuen, behintzat, etxetik kanpo bonus puntu bat irabazi genuela, eta, seguruenik, etxean partidu hau irabazteko moduan izango ginela. Getxo, Gernika, Baztan eta Bera-Bera, hori izango da gure liga.

**Bigarren itzuliari begira, beraz, horiek ahalik eta ondoen prestatzea da helburua?**

Uste dut horiek irabaziz gero salbazioa ez dugula urrun izango, baina komeni da etxean jokatuko ditugun beste partiduetan ere bonus punturen bat eskuratzea. Talde indartsuenak etxean hartuko ditugu, eta urte barioa izango lukete puntu horiek. Bigarren itzulira begira, gainera, badaukagu nobedade bat, bi pertsona gehitu ditugulako taldera. Jokalari ohiak dira eta badakite jokatzeko. Olentzero ondo portatu da eta errefortzu indartsuak ekarri dizkigu. Hala ere, hori zelaian erakutsi beharra daukagu.

**"OLENTZERO ONDO PORTATU DA ETA ERREFORTZU INDARTSUAK EKARRI DIZKIGU"**



## Ointxe!-ko zazpi, Euskadirekin

Pasa den asteburuan, selekzioen arteko Espainiako Txapelketa jokatu zen Huelvan eta bertan izan ziren Ointxe!-ko zazpi jokalarik. Mutilen kadete mailan, berezi mailan mantentzea lortu zuten Julen Lorentzok eta Aitzol Lagunillak. Lorpen bera eskuratu zuten kadete

nesketan Maider Castellanok eta Sonia Peredak. Infantil neskek ere maila berean jokatu dute hurrengo urtean, Garazi Agirrek eta Areskoko June Guenetxeak lortutakoari esker. Infantil mutiletan, parte hartu dute Markel Errastik eta Lander Agirrek.

## Ford Mugarrik bigarren itzulia hasiko du igandean

Gabonetako opor egunak atzean utzita, Arrasateko eskubaloi taldekoek bigarren itzuliko lehen neurketa izango dute igandean, 11:30ean, Iturripen. Aurkaria Gasteizko Corazonistas taldea izango da. Lehen itzulian hiru goletako diferentziaz galdu zuten arrasatearrek eta, gaur egun, taula erdian aurkari zuzena dela kontuan hartuta, garrantzi berezia izan dezake partiduak, bai garaipenarengatik eta baita gol diferentziarengatik ere.

Azken partiduan Aloña Mendiren aurkako derbian galtzaile irteten baziren ere, behetik gora dator Patxi Garciaren taldea. Azken zortzi partiduetatik sei irabazteko kapaz izan dira.

## Zikloturistek bazkide izateko epea zabaldu dute

40 urtetik gora daramatza Arrasateko Debagoiena Zikloturista Klubak bizikleta maite dutenak elkartzen, eta helburu horrekin jarraitzeko asmoz dago kluba. Horregatik, bertako bazkide izateko epea zabaldu berri du. Epe hori urtarrilaren 14tik 18ra izango da, eta, horretarako, klubak Ignazio Zuloaga kalean daukan lokaletik pasa beharko da, arratsaldeko zazpietatik zortietara.

Bazkide ez direnek ere bertatik pasatzeko aukera izango dute zikloturista lizentzia egin ahal izateko, klubekoak ez diren zikloturisten lizentziak ere bideratuko dituzte-eta Debagoiena Zikloturista Klubetik.





Pikete Lerroa taldeak kontzertu gogoangarria eman zuen. IMANOL SORIANO

## Elkartasunak 'ishot!u'-ta, oztopoak gainditu dira

Iñaki Bengoak eta Shot! estudioko kideek nekez ahaztuko dute pasa den asteburuan bizi izandako elkartasun saioa. Izan diren arazo guztiei aurre eginez, kontzertu gogoangarriak eskaini zituzten 'Ishot!u' jaialdian parte hartu zuten musika taldeek

### Jokin Etxebarria ARRASATE

Gorabeheraz beterik egon da *Ishot!u* jaialdia; Fermin Mugaruzak adierazi zuen bezala, mardikazioak jota zegoela zirudien. Lehenik eta behin, leku aldaketari aurre egin behar izan zioten, kiroldegiko aukera erorita, horrek dakartzan buruhauste guztiekin. Gaztetxean bi egunetan egin zen jaialdia, baina han ere

izan ziren arazoak: osasun arazoak. hain zuzen ere. Besteak beste, Des-kontrolako Hodei Beitiak eta Esne Beltzako Xabi Solanok ezin izan zuten kontzertuan egon.

Baina Iñaki Bengoari eta Shot! estudioari laguntzeko nahiak oztopo guztiak gainditu ditu, beste behin. Arazo guztiei aurre egin eta elkartasunak duen in-

darra aldarrikatuta, kontzertu paregabeak egin ziren bai ostiralean, baita larunbatean ere.

Koltoor Ekintzako lagunek egindako lanari esker, lehen jaialdiak berekin zekartzan gastuei aurre egin zaie, behintzat. Bengoak zioen moduan, herriko musikazaleek, beste behin, erakutsi dute elkartasuna guztiaren gainetik dagoela.

### Shot! berriz hasi da lanean

Pasa den urteko maiatzaren 21ean erre zenetik, berririk pozgarrienetako bat da dagoeneko taldeak hasi direla grabatzen Shot! estudioan. Horren adibide da Zubietta-Antiguoko Txorroskilo taldearen saioa. Konpromiso batzuei aurre egin eta gero, gauza guztiak ondo jartzeko geldialdia egingo dute, lanean hasita bai, baina "errenka" baitabilta.



Txorroskilo taldea lanean Shot! estudioan JOKIN ETXEBARRIA

## Sumision City Blues eta Señor No taldeak gaur gaztetxean

Urtarrilaren 31ra bitartean, Nerabe, Dead Furies eta Gigante taldeek ere joko dute

### J.E. ARRASATE

Sumision City Blues talde gasteizarrak eta Señor No donostiarrak erdi bana kaleratu duten singlea aitzakia ederra hartuta, kontzertu izerditsua egingo dute beraiantzat plaza kuttuna den Arrasateko gaztetxean. Pare bat urte pasa dira Señor No-k Arrasaten azken aldiz jo zuela, eta taldea berriz ikusteko gogotsu daude zaleak. Sumision City Blues talde gasteizarrak, bestalde, bere blues berezi eta rock-and-rollarekin guztiak dantzan jarriko ditu. Gainera, agur biran

dago sartuta taldea eta Arrasatekoa izango da joko duen azken kontzertuetako bat. Emanaldi berezia izango da, beraz, gaurkoa, eta, berezia den heinean, ostiralean egingo da ostegunear beharrean, Kooltur Ostegunen barruan ohikoa den tankeran.

Hilabete bukaera arte egongo da musikarekin gozatzen jarraitzeko aukera gaztetxean. Izan ere, sona hartzen ari den Nerabe taldea izango da urtarrilaren 17an, Dead Furies estoniarrak izango dira astebete geroago eta Gigante urtarrilaren 31n.

### Pucciniren 'Madame Butterfly' Amaia antzokian otsailean

Giacomo Pucciniren *Madame Butterfly* obra ezaguna eskainiko dute Amaia antzokian otsailaren 18an, arratsaldeko zortzietan hasita. Sarrerak pasa den domekan jarri ziren salgai, eta martxa oso onean ari dira, dagoeneko erdia salduta baitago. Beraz, opera ezagun horrekin gozatu nahi duenak azkar ibili beharko du sarrerak erosteko.

30 euroko kostua dute eta *Arrasate.eus* eta *Kutxabank.es* atarrietan eskuratu daitezke. Baita antzokiko leihatilan ere, edo [ozenkielkarte@hotmail.es](mailto:ozenkielkarte@hotmail.es) helbidera idatzita.

2014an ere eskaini zuten obra bera, orduan Luis Mariano Elkarte Lirikoaren eskutik, baina, oraingoan, Opera 2001 konpainiak eskainiko du eta ekoizpen handiagoa izango da. Izen handiak egongo dira taula gainean: Meeta Ravel eta Eduardo Sandoval, besteak beste.

### OHARRAK

#### Legez Kanpo taldeak bideoklip berria du

Arrasatearrek, Asier Elgezuaren eskutik, bideoklipa estreinatu dute *Actitud y ruido* abestiarekin. Bestalde, ekainean *Beach, Beer and Chaos* jaialdian parte hartuko dutela iragarri dute.

#### Doke, Iruñean, larunbatean

*Hamaika amaren seme (alaba)* obra taularatuko dute Iturramako antzokian, 19:30ean. Iruñekoaren ostean, Bilbon, Donostian eta Gasteizen izango dira taularatzeak.

#### Perlata, gaur, Hernanin

Hernaniko gaztetxean joko du gaur, 21:30ean, Orreaga 778 eta Kaleko Urdanga taldeekin batera. Sarrera: 5 euro.

#### Arrasateko tailaginen elkartearen ate irekiak

Tailagintza zer den eta nola egiten dugun ezagutzeko aukera egongo da urtarrilaren 16an eta 17an, 16:30etik 19:30era, tailaginek Nafarroa etorbidean duten egoitzan.

#### Latinoamerikako literatura berbagai

Literatura solasaldien barruan, Junot Diazen *Así es como la pierde* liburua izango da aztergai urtarrilaren 16an.

# Ezustean, baina ilusioz eta pozez jasotako saria

Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria saria jaso du Eider Ballina aramaioarrak Imanol Eppherre eta Anne Baskaran ikaskideekin batera egindako 'Mai da bai (eta ezetzik ez dago)' dokumentalak; ez zuten espero, lana lehiaketan aurkeztu ere ez zutelako egin

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Bideo dokumental saria eman diote maputxeen mapudungun hizkuntzaren biziberritzea ardatz duen dokumentalari. "Estreinaldia Biarritzen egin genuen eta horren harira sortu da sari hau. Baionako lehiaketan aurkeztu ere ez genuen egin dokumentala, baina, Biarritzeko emanaldiaren ostean, erabaki zuten sari hau irabazi behar zuela gure lanak. Beraz, ezuste galanta izan da guretzat, baina oso pozik gaude, eta ilusioz beteta", azaldu du Ballinak. Pozik, batez ere, dokumentala oihartzun handia izaten ari delako. "Euskal Herrian sentsibilitatea sortzen duen gai bat da mapudungun hizkuntzarena, beste hizkuntza askok sortzen duten moduan, eta hedabideetan oihartzun handia eduki du. Guk ez genuen espero hori", dio.

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio gradua ikasi dute hiru egileek,



Eider Ballina, dokumentalaren kartela eskuetan duela. E.A.

eta gradu amaierako proiektu gisa egin dute lan hau, Garabiderek elkarlanean. "Garabide kasu erreal bat aurkeztu zigan, eta hasieratik iruditu zitzaigun gai interesgarria, euskararekin ere lotura daukalako".

Hala, mailetan egin eta Wallmapura joan ziren iaz martxoan. Maputxeen eremua da Wallmapu, Argentina eta Txile artean dagoena. Hizkuntzari dagokionez, mapudungun hizkuntzak 100.000 hiztun inguru ditu gaur egun,

gehienak pertsona helduak, baina bada gazte ekintzaileek sortutako elkarte bat, hizkuntza biziberritzea helburu daukana, Mapuzuguletuañ izenekoa. Garabidek elkarte horrekin kooperatzen du, "kooperazio linguistikoa" egiten du, Ballinaren esanetan.

Dokumentalaren helburua bikoitza da: "Batetik, islatzea gaur egun ze egoera bizi duen mapudungun hizkuntzak, eta, bestetik, erakustea badagoela gazte talde bat hizkuntza honen alde borrokan ari dena eta ilusioz lan egiten duena hizkuntza aurrera ateratzeko. Gainera, ekimen mordo egiten dute horretarako. Bukieran ikusten da baita Garabide nola laguntzen ari zaien bide horretan".

Ballinak dioenez, euskara nolabaiteko erreferentzia da maputxeentzat. "Euskararekin oso islatuta sentitzen dira. Izan ere, gaur egun han bizi izaten ari dira euskarak duela 50 urte bizi izan zuena, errepresioa, zapalkuntza, eta abar".

**Hilabeteko esperientzia**

Martxoan joan, eta apirilera arte, hilabetez egon ziren Wallmapun dokumentala grabatzen. "Gehienbat, lehenengo hogeit egunetan egon ginen haiekin; ez 24 orduz, baina ia egun osoa igarotzen genuen elkarrizketak egiten edota egunerokotasuna partekatzen. Hizkuntza biziberritzeko saioak ere egiten dituz-

te, eta saio horietan ere egon ginen, dinamika nolakoa den ikusteko eta irudi batzuk hartzeko. Hamabost pertsona inguru elkarrizketatu ditugu, nahiz eta dokumentalean ez diren guztiak agertzen, filtro batetik pasatu behar izan ditugulako". Esperientzia "zoragarria" izan da aramaioarrarentzat. "Ederra izan da ikustea gazte talde horrek nolako ilusioa daukan haien hizkuntza biziberritzeko. Euskarari, guri, eginda eman digute eta konturatu gara askotan ez dugula baloratzen baloratu behar gogokien moduan. Hango errealitatea zein den ikusita, ohartu gara hizkuntza batek nolako garrantzia daukan benetan", adierazi du.

**Zabaltzen jarraitu gura dute**

Aramaion dagoeneko aurkeztu du dokumentala Ballinak, eta orain, egileen asmoa da emanaldi gehiago egitea, Debagoieneko beste zenbait aretotan, besteak beste. Oraindik, baina, ez daukate ezer lotuta. Bestalde, hainbat lehiaketatan ere aurkeztuko dute lan hau, ahalik eta zabalkunde handiena izatea baita helburua.

**HILABETEZ EGON ZIREN WALLMAPU ESQUALDEAN, DOKUMENTALA GRABATZEN**



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

## Ordu bat eta hogeit minutu

Maleta uzterakoan jasotako kolpea sorbaldan eta ezezagun baten amak eman dizkidan betaurrekoak eskuan igo naiz domeka gaueko autobusera, "Bilbo" jartzen zuela egiaztatu ostean. Konturatu izan ez banintz, Donostiarako bidean egongo nintzateke dagoeneko. Hiru probintzietako txartel bilduma atera, aukeratu eta azkar pasatu dut makinatik. Euskal Herriari buelta eman nahiko banio, erraz egingo

nuke bada, poltsikoan horrelako txartel-sortarekin.

Zerbitzu publikoa ezagutu dudala esatea ez legoke hotz, epel baizik. Hiria ezagutzearekin batera ezagutu dut astean bitan denbora eta dirua gastatzeko modu erosoena ere: garraio publikoa. Handik hona eta hemendik hara ibiltzeak lapurtu dizkit hainbat eta hainbat ordu, bestelako ardurarik gabe erabiltzeko, "desentxufatzeko", begiratzeko, idatzeko, irakurtzeko, zorabiatzeko

edota, nahi izanez gero, aspertzeko.

Errepideko erraldoia den arren, interes gutxi pizten du autobusak honen zuzenbidea ezagutzen ez duenarentzat, behin barruan, edozertaz arduratzea delitu baita.

Txamarra kendu eta argiak itzali dituzte, ordu eta erdi atzeraka, giro epelean igarotzeko. Heltzean, ezezagun bat bilatu edo berak ni aurkitu beharko nau, betaurrekoak eman diezazkiodan, astean zehar irakurtzea nahi badu behintzat.

## 58 herritarrek eman dute izena patinaje ikastaroan

Urtero moduan, guraso elkarteak patinaje ikastaroa antolatuta du aurten ere, eta 58 pertsonak eman dute izena.

Lau saio egingo dituzte. Lehenengo hirurak Aramaioko kiroldegian eta azkena, berriz, Gasteizen, izotz pistan. Ordutegiari dagokionez, kiroldegiko saioak 11:00etatik 13:00etara izango dira eta Gasteizkoa, aldiz, 10:30etik 12:30era.

San Martin eskolako ikasle guztiei zuzendutako ikastaroa izango da -2 urtekoak izan ezik-, eta gurasoek ere hartuko dute parte.

Burdinolako jokalariek eta Agustin Oyanguren entrenatzaileak emango dituzte saioak.

## OHARRAK

### Autobusa Bilbora

Bihar, zapatua, Bilboko manifestazioa joateko autobusa egongo da Aramaiotik. 15:00etan irtengo da, autobus geltokitik.

### 28 odol-emaile

28 herritarrek eman dute odola aste honetan. Horietatik bik, lehen aldiz.

### Apirilaren 14an

Korrikaren 21. edizioa Aramaiotik pasatuko da, Ibarrik, 03:03an.

### Alaiak elkarte

Herritarren ideiak eta proposamenak jaso gura dituzte 2019ko programa osatzeko.



# Aldaketak egingo ditu Udalak Plan Orokorrean

HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean zenbait aldaketa egitea aurreikusten du Udalak, eta horien berri eman du asteon; hasierako onarpena eman ostean, ikusgai jarriko dituzte hilabetez, eta epe berean alegazioak aurkezteko aukera egongo da

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Martin Ferran eta Raimundo Mendiburu arkitektoek eman dute 2013a ezker indarrean dagoen plan orokorrean egin beharreko aldaketen berri, martitzenean osoko bilkuren aretoan egindako informazio bileran.

Aldaketei dagokienez, lehena IB 04 eremuko da, Matxain kaleko 6.ean dagoen garajeari solairu bat gehitzea eta etxebizitza bat egokitzea, hain zuzen.

Bigarrena IB 07 eremuari dagokiona da. Osteta kaleko eremu hori bitan banatzea izango litzateke asmoa, orain dauden etxebizitzak egonkortuz eta aparkalekua dagoen lekuan bloke txiki bat eginez, etxebizitza batentzako. Bi aukera daude: beheko solairuan etxebizitza jartzea edota beheko plantan lokal komertzialak. Horren arabera moldatuko litzateke eraikinaren estruktura.

IB 08 eremuan, bi azpiegitura ezarri dira, eta, horrenbestez, kalifikazio aldaketa bat egin behar da. Batetik, ekipo elektrogeno bat jarri da; beraz, espazio berde eta librean sistema lokal bezala kalifikatutako espazio bat zerbitzuzko kalifikazioa izatera pasako da. Bestetik, kiroldegia atzean jarritako konpostatzerako azpiegitura dela eta, kirol ekipamendu publiko moduan kalifikatutako partzela zerbitzu publikoen eremua izatera pasatuko da.

## Baso landaketak

Zoru ez urbanizagarriaren atalean, Aramaioko landa eremu gehiena batzen duten J.1.4 eta J.2.5 eremuetan aldaketa batzuk egingo dituzte. Hala, eremu horietan ezingo da kanpoko espezierik landatu, baldin eta aurrez landatuta ez badago. Bestalde, baso landaketek hiri nukleoarekiko eta landa nukleoarekiko bete beharreko distantziak 100 metrokoa izaten jarraitzen du



Informazio bilera egin zuten martitzenean osoko bilkuren aretoan. E.A.

## ZERESANA EMAN DU HERRIAN BASO LANDAKETAK EGITEKO 100 METROKO DISTANTZIAK

eta baso landaketa zer den zehaztu gura izan du Udalak: 15 metro baino altuagoko zuhaitzak eta 200 hektarea baino gehiagoko landaketa eremua dutenak izango dira baso landaketak. Pinudiak, beraz, ezin izango dira aipatutako distantziaren barruan landatu, baina frutuarbolak, adibidez, bai.

Arabako Basogintza Elkarteko ordezkariak 100 metro asko dela adierazi dute. "Terreno partikularrengatik zerga batzuk ordaintzen ditugu, eta inposizio bat iruditzen zaigu debeku hau. Pinuak Aramaioko baserritarrentzat irtenbide bat izan dira, gaur egun ere badira, eta izaten jarraituko dute. Aldaketa honek metro asko kentzen ditu, eta zergak ordaintzen jarraitu behar dugu", azaldu dute.

Jon Ugarte Ingurumen zinegotziak, berriz, herritar guztien

beharrak kontuan hartu behar dituztela erantzun die. "Ikusten badugu herritarren gehiengo batek gura duela distantzia hori gutxitzea, ez daukagu arazorik gutxitzeko. Baina ez dugu hori ikusten. Zuentzat gehiegi da 100 metro, baina etorri zaigu jendea eskatzen distantzia hori errespetatzeko ere. Gainera, gu sartu ginenean, finkatuta zegoen 100 metroko distantzia; urtebete pasa genuen zuekin honi irtenbide bat bilatu guran, eta ez genuen lortu. Beraz, herritarren gehiengoak ez badigu eskatzen, ez dugu aldatuko", dio.

Azkenik, eukalipto landatzea ere debekatuta egongo da Aramaio osoan, aldaketa onartzean.

## Onarpena

Orain, aldaketa hauei hasierako onarpena eman beharko die Udalak, eta hilabetez ikusgai jarri, herritarren eskura. Alegazioak aurkezteko aukera ere izango da epe horretan, eta horren ostean, Udalak behin-behinean onartuko ditu aldaketak. Azkenik, Arabako Foru Aldundiari bidaliko dio txostena, eta hark sei hilabete izango ditu behin betiko onartzeko.



Emakumezko artzainaren aurpegia, totemean. AMAIA TXINTXURRETA

## Botatako izeian totem bat egiten ari dira herriko hainbat artista

Arrano bat, emakumezko artzain bat, txakur bat eta ardi bat egingo dituzte eta otsailerako bukatzea espero dute

**E.A.** ARAMAIO

Santakurtz abadearen plazan totem bat egiten ari dira, bota zuten zuhaitz baten enborrean. Gregorio Gallego da egileetako bat: "Izei bat zegoen hor, arazoren bat zeukan eta hondatzen ari zen. Gainera, zenbait arazo sortzen zituen. Beraz, moztea erabaki zuten. Adarrak kendu zizkioten, baina enborra zutik utzi zuten. Egun batean, lagun bat eta biok kalean gindoazela, Kultura zinegotziarekin topo egin genuen, eta totem bat egitea bururatu zitzaigun. Berari, hasiera batean, indioen inguruko zerbait egitea bururatu zitzaion, baina, hobeto pentsatuta, hemengo gauzei buruzko totema egitea erabaki genuen", dio.

Gallegok berak bozeto batzuk egin zituen, eta, neurriak hartu ostean, bizpahiru metroko enborraren gainean lan egitea erabaki zuten.

Arrano bat, emakumezko artzain bat, txakur bat eta ardi bat izango ditu totemak. "Bozetoan gizona agertzen zen, baina emakumezkoa izatea erabaki genuen, hemen beti egon direlako emakumezko artzainak", adierazi du Cristina Etxenausiak, Kultura zinegotziak.

## Ez da betiko izango

Motozerrarekin, egurra mozteko disko berezi bat duen errotaflexarekin eta gubiarekin ari dira lanean. "Gero, espraizko soplete batekin bukatuko dugu, eta, azkenik, babesteko material bat emango diogu, denboran iraun dezan. Espero dugu otsailerako bukatzea, baina eguraldiak baldintzatuko du hori. Hasierako urteetan ondo zaindu behar dugu, eta gero, ea zortzi bat urte irauten duen. Izan ere, badakigu ez dela betiko izango, egurra usteldu egingo delako".

## Energiaren Euskal Erakundeak Udala saritu du asteon

*Energia trantsizioarekin bat aitor*tza jaso du Aramaioko Udala Energiaren Euskal Erakundearen eskutik, "energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko konpromisoagatik". Zehatzago esateko, argiteria publikoa, eraikineta-ko barne-argiztapena eta energia berriztagarrien sustapena aitortu dute.

## Irakurle klub feministaren saioa, astelehenean

Datorren astelehenean, urtarri-laren 14an, egingo dute Gorbeialdeko irakurle klub feministaren laugarren saioa, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxeko hirugarren solairuan. Izen-emateari dagokionez, hiru bide daude: 945 43 01 67 telefonora deituta, [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus) helbidera idatzita edota [www.laiaeskola.eus](http://www.laiaeskola.eus) webgunean.

Mirari Altube ARETXABALETAK

Lau urteko ibilbidearen errepa-soa egin eta aurtengo asmoen berri eman du Unai Elkoro alkateak Goiena telebistako *Harrera* saioan.

**Zure lehenengo esperientzia izan da politikan; zelan moldatu zara?**

Hasiera oso ona izan zen, nobedadea eta ilusioa tarteko, baina gero, arazoak sortzen joan dira, eta azken urtea nahiko gogorra izan da. Benetan frustragarria da proiektuak izan eta ezin aurrera atera. Ildo horretatik, martxan egon beharko liratekeen lan batzuk astean abiaraztea espero dugu.

**Jeltzaleek eta sozialistek osatu duzue Gobernuak; oposizioarekin zelan moldatu zarete?**

Zehaztu gurako nuke bere garaian Gipuzkoan egindako pak-tua izan zela hori, botoak emateko elkarki, baina hiru urte eta erdi honetan lanean egon dena jeltzaleen Gobernuak izan da. Miren Lorea Lanarekin [zinegotzi sozialista] oso ondo konpontzen gara, eta oposizioarekin ere harreman naturala dugu; desadostasunak egon badaude gai batzuetan, baina harremanak osasuntsuak dira.

**Gobernu Batzordean alderdi guztiak egon dira ordezkaturik, nahiz eta azken erabakia Gobernuak izan...**

Bai, baina udal bat presidentzialista da eta alkateak du botere handiena. EH Bilduk bost zinegotzi ditu Aretxabaletan, baina Irabazik eta sozialistek bakarrik, eta horiendako oso zaila da batzorde guztietara joan ahal izatea. Gobernu Batzordean egonda, osterak, erabaki garrantzitsu guztiak ezagutzen dituzte -ados egon edo ez- eta ez da ezer egiten ezkutuan.

**EH Bilduko bozeramaile Ion Albizuk aipatu zuen haien borondate ona ez duzula aprobetxatzen jakin...**

Hori aipatu zuen bere liberazioaren harira. Udal Legea abian jarritakoan, liberazioa eskatu zuen, eta hori justifikatu behar-raren susmoa hartzen diot. Egia da Udaletik soldata izanez gero egokiena litzatekeela ardu-ra bat izatea, baina hori ez da hain erraza.

**Eta herritarrekin zelako harremana duzu?**

Hori da ni neu gehien betetzen nauena, oso gustuko dut. Udaletxean aurkeztuko ez litzuketen proposamenak, sarritan, kalean egiten dizkidate, eta horiek ere aintzat hartzen ditut; izan ere,

# "Jaurlaritzarekin hartu-emanean gabilta osasun etxe berrirako"

UNAI ELKORO ALKATEA

Otsail inguruan onartuko duten udal aurrekontuaren, aurten egingo diren lanen eta beste hainbat konturen berri eman du alkateak, agintaldia bukatzeaz dela



Unai Elkoro, Goiena telebistako platoon. MIRARI ALTUBE

herritar bakoitzak bere ikuspuntua du. Burokraziarekin borrokan egitea, osterak, ez dut hain gustuko.

**Agintaldiko azken udal aurrekontua otsailean onartuko duzue; orain arteko handiena izango da?**

Baietz esango nuke, ia hamar milioi euroren bueltakoa izango da eta. Foru Fondoa da gure sarreraren erdia inguru; 2015ean, lau milioi euro inguru izan zen, eta aurten, lau milioi eta bederatzehun mila euro pasatxo da. Hazkunde nabarmena dago hor, egoera ekonomikoak hobera egin duen seinale.

**Lehentasunak zeintzuk izango dira?**

Kurtzebarri eskola alboko bidegorria egin barik geratu da, eta urtarrilean aztertuko dugu EH Bilduren ekarpen batzuk begirata. Komentuko aretoaren proiektua erdibidean geratu zen, eta bukatzea gura dugu. Hirugarren adinekoendako etxebizitzak ere baditugu buruan komenturako, eta paperera eraman behar da hori; badugu asmoa abiarazteko. Bestetik, arrapala jarriko da Herriko Plazatik Kurtzebarri eskolara igotzeko, irisgarritasuna bermatze aldera.

**"ARRAPALA EGINGO DUGU HERRIKO PLAZATIK KURTZEBARRI ESKOLARA IGOTZEKO"**

Era berean, Arlutz osteko kantxa inguru guztia berritze gura da; hurrengo agintaldiko Gobernuaren eskuetan geratuko da hori. **Eta futbol zelai berria?**

Aurreko urteko aurrekontutik dator hori eta lan horien lizitazioa eginda dago. Egubakoitz honetan, hain zuzen, zabalduko ditugu eskaintzak. Lau hilabete iraungo dute lanek, eta, maizterako ez badituzte bukatzen ere hurrengo denboraldirako, irailerako, gertu egongo da.

**EH Bilduk plangintza falta egotzi dizue hainbatetan...**

Plan orokorra ez dugu abian jarri, egia da, beste lehentasun batzuk ikusi ditugulako. Hurrengo agintaldirako? Interesgarria izan daiteke... Baina proiektu bat da, diru mordoak kostako da eta ez dakit zenbaterainoko probetxua aterako diogun. Dena den, jarriko da abian, legez bete beharra dagoelako. Beste proiektu asko ere badauzkagu, baina lotu aurretik saltzen hastekoak ez gara.

**Droga kontsumoarekin kezkatuta agertu zarete eta hainbat urrats egin dira Aretxabaletan.**

Proiektua UDAn jarri du abian eta guk babestu egin dugu. Gureta, lehentasuna duen kontua da, baina bidelagun izango gara, protagonismoa gurasoek hartu behar dutelako.

**Horren kontura ertzainek egindako sarekadek zeresana eman dute; beharrezkoak zirela uste duzu?**

Ekintzak egitea beharrezkoa ikusten dut; halakoak? Guk ez dugu erabakitzen zer edo nola, Ertzaintzaren lana da hori. Zeintzuek banatzen duten guztiak dakitenean herrian, sarekadak egitea baino zuzenean joatea horiengana hobe zen, behar bada... **Osasun etxe berriaren eskaera aspaldikoa da herrian; Jaurlaritzaren aurrekontuarekin lotuta dago?**

Bai; 200.000 euro zeuden aurreikusita proiektua egiten hasteko, gero etorri da Jaurlaritzaren aurrekontuaren luzapena... Dena den, espero dugu aurrera egitea horrek. Jaurlaritzarekin hartu-emanean gabilta, eta ea lortzen dugun... Ni baikorra naiz.

**Jeltzaleen hautagaia zara udal hauteskundeetan; zein izango da zure aurkezpen gutuna?**

Lau urte ibili gara lanean eta bide beretik jarraitzeko asmoa dugu. Egungo lantaldeko batzuek jarraitu egingo dute eta beste batzuek, ez; inork interesa baleuka... Esperientzia polita da!



# "Laneko nire lehen isuna emazteari jarri nion"

1982az geroztik Aretxabaletako kaleetan arauak errespetatzeaz arduratu dira Martin Garai eta Alberto Zillaurren udaltzainak, baina, inor ez da betiko, eta haiei ere iritsi zaie erretiroa hartzeko ordua, 36 urte igaro ondoren

**Amaia Zabala** ARETXABAETA

Martin Garai urtarrilaren 2an hartu zuen erretiroa eta oraindik ere bizitzako etapa berri honetara ohitzen dabil. Izan ere, 1982ko uztailearen 2az geroztik udaltzain lanetan ibili da Aretxabaletan.

Betidanik udaltzain izan nahial zuen galdetuta, "txiripaz" bukatu zuela lanbide honetan argitu du: "Langabezian gelditu nintzen eta udaltzain lanetan hasi nintzen denboraldi baterako izango zela pentsatuz eta beste zerbait topatu orduko uztekotan; gerora, ordea, gustatu egin zitzaidan eta bertan geratzea erabaki nuen, eta aitortu behar dut azkenean gustura ibili naitela".

Lanbidetik gehien zer gustatu zaion galdetuta, hauek aipatu ditu: "Udaleko langile guztiak, baina, batez ere, udaltzainak, primeran moldatu gara. Bestalde, herritarrekin izan dudana hartu-eman ere oso aberasgarria izan da. Gainera, nahiz eta hauekin une onak eta txarrak izan, gu beti gauza onekin soilik geratzen gara". Garaik gaineratu du herritarrei lagundu ahal izatea eta haiek nola eskertzen duten ikustea ere oso atsegina izan dela.

Lanbidearen alde onak berehala esan ditu, eta txarrak galdetuta, aldiz, gehixeago pentsatu behar izan du Garaik; azkenean, salaketak ipintzea eta errieta bota beharra aipatu ditu.

Urte hauetako guztietako ibilbidean hainbat anekdota izan ditu, noski, Martin Garaik; xelebreena, honako hau: "Nire lehen isuna emazteari jarri nion; autoa gaizki aparkatuta utzi zuen eta isuna jarri behar izan nion. Ederki hasi nintzen. Ni, beti, hasiera-hasieratik ere erdugarri izaten; kar, kar, kar".

Orain, erretiroa hartuta, mendira joatearekin, baratzean aritzearekin eta familiarekin ego-



Alberto Zillaurren eta Martin Garai Aretxabaletako udaltzainak. AMAIA ZABALA

## GARAI URTARRILEAN ERRETIRATU DA ETA ZILLAURRENEK MARTXOAN UTZIKO DU UDALTZAIN LANA

tearekin zoriontsu dela argitu du udaltzain ohiak.

**Martxoan erretiroa Zillaurrek**

1982ko ekainaren 1ean hasi zen Alberto Zillaurren, eta, ia 36 urteren ondoren, 59 urterekin hartuko du erretiroa, martxoan. Izatez, Aramaioko Untzilla auzokoa da, baina Aretxabaletarako joera handia izan du beti, eta, azkenean, bertara joan zen bizi izatera: "Nahiz eta gure lanean errazagoa den bizi ez zaren beste herri batean lan egitea; izan ere, herrian jende guztiak ezagutzen zaitu eta etengabe datoz gauzak galdetzerako edo haserre daudenean errieta egitera. Dena den, herri berean bizi eta lan egiteko, ez zait hain gaizki joan".

Udaltzain izateko apustua zergatik egin zuen galdetuta, berriz, Garai bezalaxe hura ere "txiripaz" sartu zela kontatu du: "Industria

Maisutza ikasi nuen, kooperatiba batean sartzeko asmoz, baina garai hartan krisia izan zen eta nik ikasketak bukatu nituenetik hamar urtera ez zen inor sartu; beraz, udaltzain sartu nintzen. Eta, hamar urtera, aukerak sortzen hasi zirenerako, informatika oso sartua zegoen eta nik ez nuen honen inguruko ezagutzarik; hala, enpresetan nik nahiko nukeen postuan egiteko, prestatu gabe ikusi nuen neure burua".

Garaik bezalaxe, Zillaurrenek ere bere lana ondo eta gustura egiten ikasi du, baina aitortu du ez dela erraza, eta sarritan kezka izaten duela: "Hirietan ez bezala, herrietan udaltzainak, askotan, bakarrik eta babes gabe gaude egoera ezberdinei aurre egiteko". Amaitzeko, uniforme martxoan lagako duen arren, Aretxabaletatik gertu jarraituko duela azaldu du, mendi bueltak eta paseoak eginez.

**Ordezko udaltzainak**

Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak Goiena telebistako *Harrira* saioan jakinarazi du ordezko bi udaltzainak uztaileko izango dituela Udalak.

## Dantza afrikar eta garaikideak ikasi, sustraiak sentitzeko

Arantza Iglesias koreografo eta dantzariak gidatuko ditu saioak eta hilabete behin izango dira, larunbatetan

**Amaia Zabala** ARETXABAETA

Jaiki Elkarrekin antolaturik, urtarriletik ekainera bitartean, hilean larunbat batez izango dira saioak Aretxabaletan bertan.

Saioak hiru ordukoak izango dira: urtarrilaren 26ean, otsailaren 9an, martxoaren 9an apirilaren 27an, maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean.

Arantza Iglesias koreografo eta dantzariak gidatuko ditu saioak eta helburua emakumeen arteko konfiantzazko espazio bat sortzea izango da, dantza afrikarren eta dantza garaiki-

dearen bitartez: "Gure sustraiak sentitu eta hazteko". Iglesiasek izen handiko irakasleekin egin du bere formakuntza, eta, horretarako, Europan eta Afrikan ibilia da.

Izena emateko, 670 04 00 86 telefonora deitu edo [arantzai-iglesiasdanza@gmail.com](mailto:arantzai-iglesiasdanza@gmail.com) helbidera idatzi behar da. Hori bai, parte hartzeko ezinbestekoa da konpromisoa hartzea eta saio guztietara joatea. Prezioa 120 euro da -langabeek, 100 euro-, eta bi zatitan ordaintzeko aukera ere badago.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Petardoaren arriskua eta zikinkeria



Abenduaren 31n petardoak bota zituztenekin haserre dago herritar bat: "Errepide alboan botatzen ibili, horrek dakarren arriskuarekin, eta, gainera, hondar guztiak bertan utzi!"

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

**Mobiliario ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAETA



Beñat Abasolo eta Nerea Elorza ikasle aretxabaletarrak kuartelaren aurrealdean. MIRARI ALTUBE

# Kuartelaren ibilbidea, ikus-entzunezkoan jasota

'Otalora 27' izeneko lana egin dute Mondragon Unibertsitateko ikasle batzuek, eta kuartelaren nondik norakoen berri jaso testigantza askotan oinarrituta. Era berean, eraikin horren etorkizunak kezka sortu du gaur egungo erabiltzaileen artean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Hamabost minutuan kuartelaren historia –eta, era berean, Aretxabaletako historiaren zatitxo bat– jaso dute MUko bost ikasle *Otalora 27* ikus-entzunezkoan. Beñat Abasolo eta Nerea Elorza aretxabaletarrek, Markel Bazanbide eta Lorea Otaduy arrasatearrek eta Magali Plazaola hernaniarrak egindako lana Youtuben dago ikusgai.

**Testigantzetan oinarrituta**

"Kuartela bota egingo zuten kezka agertu berri zen, eta bertan entseguak egiten dituen Beñat Abasolo taldekideak proposatu zuen gai hori lantzea", jakinarazi du Nerea Elorza ikasleak, eta gaineratu: "Jende asko pasatu da, gainera, eraikin horretatik guardia zibilak joan zirenetik, eta horien testigantzak jaso ditugu". 1989an alde egin zuten handik guardia zibilek, eta ordutik hona hainbat erabilerak izan ditu: gaztetxea, haur eskola, musika eskola eta dan-

tza taldearen egoitza, besteak beste. Horien ordezkari diren hamabi lagunak bizipenekin osatu dute ikus-entzunezkoa, baita eraikinean bertan bizi izandako guardia zibil baten alabarenekin ere.

Eskolarako lan bat izan behar zena herritarrei zabaltzea pentsatu zuten gero, interesa izango zuelakoan. "Arkupun eman genuen, urtarril hasieran, eta uste baino askoz jende gehiago gerturatu zen; oso pozik gaude".

**Etorkizunaren kezka**

Gaur egun, hainbat musika talde, dantza talde eta DJ elkartzak dira kuartelean entsegetarako; horietako bat da Delirium taldeko Abasolo, ikus-entzunezkoa

**LEHENTASUNEN ARTEAN EZ DAGOELA OTALORAKO ERAIKINA ADIERAZI DU UNAI ELKORO ALKATEAK**

egin duen ikasleetako bat: "50 eta 60 lagun artean elkartzeko gara kuartelean, eta horren gaineko erabakiarekin arduratuta gaude: botatzeko asmoa dagoen, noiz arte egongo garen... Azaroan bilera bat egin genuen udal ordezkariekin, eta Gabonen bueltan erakina bisitatzeko izan ziren, baina ez dakigu garbi zein den euren asmoa". Kezka hori hainbat lagunek azaldu dute ikus-entzunezkoan ere.

Unai Elkoro alkateak jakinarazi du kuartela ez dutela lehentasunen artean: "Ez dugu eraikin horren gaineko inolako proiekturik. Dena den, ez genituzke handik bidaliko beste aukerarik eskaini barik. Egindako bilera hartan esan genien bigarren asmorik ez genuela".

Bertako erabiltzaileen eskara batzuk kontuan hartuko dituztela ere adierazi du: "Sarriala elektronikoak gura dituzte eta baietza eman diegu. Horrek laguntzen badie kontrol handiago izaten, ados gaude".

## Espetxe politika konpontzeko dei egin dute udal ordezkariak

Bozeramaileen batzordeak adierazpen bateratua egin du zapatuko 'Orain presoak' manifestazioaren harira

**M.A. ARETXABALETA**

Bihar, urtarrilak 12, Bilbon egingo duten Orain presoak manifestazioaren bueltan adierazpena adostu dute Udaleko bozeramaileen batzordean, eta horren berri eman gura izan diete herritarrei. "Konponbiderako, elkarbizitzarako eta bakerako unea da, etorkizunari begira jartzeko unea", diote adierazpen horretan. Eta iraganetik datozen oinazeak eta minak sendatzearen alde agertu dira: "Guztiek mezezi dute egia, memoria eta erreparazioa". Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarra izan dute gogoan; izan ere, Valentzian dago hura, herritik 630 kilometrora.

**"Lehentasunez" konpontzekoak**

Minak sendatzeko, baina, espetxe politika konpondu beharreko gaia dela adierazi dute. "Pre-

soa ez ezik, senideak ere bai, eta era mingarrienean haur eta adin nagusiko pertsonak zigortzen dituen espetxe politika delako", adierazi dute. Eta horri irtenbidea topatze aldera, "lehentasunez konpondu beharrekoak" aipatu dituzte; hona hemen: urrunketa –ehunka kilometro egin beharra–; gaixo larriak –beharrezko arreta jasotzea–; bi estatutako zigorren batura; eta lehen graduaren aldaketa. "Espetxe politika hori iraganean kateatuta dago eta ezohiko lege batean oinarritzen da".

**Elkarbizitzari atek zabaldu**

Etorkizunera begira jartzeko garaia dela berretsi dute guztiek: "Elkarbizitzari eta bakeari atek zabaldu nahi dizkiogu. Eta horrela, korapiloak askatzeko, elkarbizitzarako, batu ezin izan garenok batzeko unea da".

**Bertso saio musikatua eskainiko du Lekaixokak gaur**

Lekaixoka bertso eskolako kideek bertso saio musikatua eskainiko dute gaur, Orly tabernan (20:30). Zazpi lagun elkartzeko dira *Txinbo* bergararrak jarrিতako gaiekin jarduteko, eta Oier Sarasuak eta Aitor Ziardegik lagun egingo diete musikarekin. Doinu ezagunak erabiliko dituzte eta herritarrek ere kantuan egin ahal izango dute.

**Korrika batzordearen lehenengo bilera eguaztenean da**

Apirilaren 4an Garesen hasi eta 14an Gasteizen bukatuko den 21. Korrikaren gaineko kontuak antolatzeke, batzordea sortuko dute. Urtarrilaren 16an, eguaztenean, izango da lehenengo bilera, udaletxe zaharrean (18:30). Herritarrek parte hartzea gonbidatu dituzte: "Han entzundakoaren arabera, erabaki zeure ekarpena zein izan daitekeen".

**Bazkide berriak egiteko epea zabaldu dute Muru-Alden**

Mitarte kalean egoitza duen Muru-Alde elkarteak bazkide berriak hartzeko epea zabaldu du. Bertako bazkide izateko interesa dutenendako edo argibideak gura dituztenendako, hona hemen bideak: [murualdelkatea@gmail.com](mailto:murualdelkatea@gmail.com) helbidera idatzi edo 605 77 59 18 telefono zenbakira deitu. Horretarako epea urtarrilaren 20an bukatuko da.

**OHARRAK**

**'Gorputzaren erritmoa'**

Jolasekin musika ulertzeko saioa gidatuko du Beñat Arizabaletak bihar, zapatua, udaletxe zaharrean (10:00); 6 eta 10 urte arteko umeendako.

**'Lur' antzezlan**

Xake Produzioen *Lur* antzezlan berririo dator Arkupera, domekan, hilaren 13an; bi emanaldi egongo dira: 17:00etan eta 19:00etan.



# Amaitu da bailarako artzainen amesgaiztoa

Debagoieneko artaldeei eraso egiten aritu diren bi txakurrak hilda daude. Erasokorrena zena azaroaren 16an agertu zen hilda eta bestea, berriz, urte amaieran. Kalteak handiak izan dira, eta, horrenbestez, artzainek lasaitu ederra hartu dute

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Urriaren 13az geroztik izan dira solte eta kontrolrik gabe *Kira* eta *Kaxka* txakurrak Debagoieneko artaldeei eraso egiten. Leintz Gatzagako baserri batek ihes egindako txakurrek 100 bat ardi akabatu dituzte, hainbat zauritu, eta, animaliek jasaten duten zauri psikologikoen eraginez, arkumeak galdu dituzte hainbatek. Txakurretako bat, erasokorrena zena, azaroaren 16an hilda agertu zen. Bigarrena, berriz, urte amaieran, abenduaren 25eko erasoan ostean agertu zen hilda, mendian. Hala, orain, baserritarrak ardiek jasan dituzten zauriak sendatzen ari dira.



Javier Villar ardiei jaten ematen. IMANOL BELOKI

## Azken eraso, Agarrekoari

Degurixa, Kurtzebarri eta Alabita inguruetakoa artzainen ardiek jasan dituzte erasoak eta azken horiek jasan dituen Eskoriatzako Mazmela auzoko Agarre baserriko artaldea da. 120 ardi-

ko artaldea dauka Agarreko Javier Villarrek, eta, kalte handiak izan dituen arren, bigarren txakurra hilik agertu izanak bailarako artzainei lasaitasuna emango diela adierazi du. Dagoeneko ardiak etxera jaitsi, eta

zauriak sendatzen ari dela gaineratu du: "Ustez, abenduaren 25ean egin zion txakurrak eraso nire artaldeari; izan ere, orduan esan zidan Arabako Larrea aldeko baserritar batek solte zebilen txakurra gure artalde

inguruan ikusi zuela... Abenduaren 26an, bertara igo ginen, eta artaldea sakabanatuta ikusi genuen. Batzuk zaurituta zeuden eta beste batzuk desagertuta; hori horrela, etxera ekarri genituen. Txakurraren ugazabak, bestalde, abenduaren 27an abiatu zidan ardi bat zaurituta ikusi zuela erreka zulo batean, eta hura ere etxera ekarri genuen. Harrezkero, ardiak osatu guran ari gara".

## Ardiei zauriak sendatzen

Hainbat ardik hozkadak dituzte aurpegian, beste batzuek belarriak faltan; baina Villarrek adierazi du gogorrena dela ardiak sendatu arren, hauek arkumeak galtzea. Izan ere, orain da sasoi, eta hori ez dagoela berreskuratzetik gaineratu du.

"Mendian hildako nire ardiak sei direla uste dut. Izan ere, desagertuta daude, eta guk hiltzat ematen ditugu. Artaldea etxera ekarri ostean, baserrian, hiru hil zaizkigu zaurien eraginez, eta bakar bat geratzen zaigu bildotsa egiteko, baina oso larri dago, zauri handiekin, eta ez dut uste bizirik iraungo duenik. Zauritutako ardi batek, esate baterako, izan du bildotsa, eta onik dago. Horrez gainera, artaldeko zenbait ardi zaurituta daude, eta albaiariarekin nabil zauritutako horiek oneratzeko ahaleginetan, ea errekuperatzen diren...", adierazi du Villarrek.

## Sarri gertatu arren, entzutetsua

Halako kasuak gogorrek direla eta sarri gertatzen direla adierazi du Villarrek. Gaineratu du oraingoan txakurrak ez direla etxera bueltatu, eta horregatik direla kalteak handiak. "Txakurrak mendian geratu dira eta ia egunero egin dituzte kalteak. Beste kasu batzuetan, normalean, txakurra, halakoak egiten dituenean, etxera bueltatzen da, baina txakurraren jabeak ez dakienean bere txakurrak direla erasotzaileak, halakoetan ere ez da samurra izaten konponbidea bilatzea".

## Kaltetuak, harremanetan

Bigarren txakurra hilda agertu da, eta bukatu da bailarako artzainen amesgaiztoa. Kaltetuak izan diren artzainak txakurren jabearekin harremanetan daudela eta kalteen gainean erabakiko dutela zer egin adierazi du Villarrek. Gaineratu du laguntza falta sumatu dutela: "Administrazioak, basozainak... zerbait egingo zutelakoan geunden, baina hasieratik ez dute askorik lagundu. Gero, agerraldi bat egin zuten, eta azaldu zituzten hainbat gauza ez dira egiak".

## AZKEN ERASOAREN OSTEAN, HILDA AGERTU DA ARDIAK ERASOTZEN ZEBILEN TXAKURRA

## GORA ETA BEHERA



## Mendiolik Letera, bidea hondoratuta

Eskoriatzatik Letera, Erañatik bueltan igo behar dute auzotarrek, lur-jausia gertatu osteko obregatik. Hala ere, badago beste bide bat, Mendiolik bueltan, baina egoera txarrean dago zati batzuetan, eta aste honetan bide zati bat hondoratuta agertu da.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus  
edo 688 69 00 07.



GOIENA



XABI URTZELAI

## Merezitako omenaldia

Martin Perezek ahaztuko ez duen omenaldia jaso zuen Manuel Muñozen. Zuzenak talde gasteiztarreko kapitaina, taldekideekin batera izan zen gurpil aulkiko saskibaloia erakustaldia eskaintzen, eta Eskoriatza Kirol Elkartearen, Udalaren eta bere lagun hainbat orogarri, merezitako aitortpena eta txalo zaparrada jaso zituen.





Eskoriatzak merezi du kanpainaren aurkezpena egin zuteneko. IMANOL BELOKI

# Herri hobea eraikitzeko ahaleaginean dabilta

Bi herri bileratan eta zazpi elizateetan egindako batzarretan, 'Eskoriatzak merezi du' kanpaina aurkeztu du Udal Gobernuak. Bertatik ateratako emaitza "oso positiboa" izan dela adierazi dute; ekarpenez gain, foroetarako eztabaida gaiak sortu dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

*Eskoriatzak merezi du* kanpainaren balorazioa egin du Udal Gobernuak, eta egindako herri bilerak "oso positiboak" izan direla adierazi dute. Agintaldiko lehenengo urtetik egin moduan, herri bileretan, urtean zehar egindakoen inguruko kontu-ematea egin zuen Joserra Zubizarreta alkateak, eta herritarrek ekarpenak egiteko eta eztabaidatzeko aukera ere izan zuten. Aurten, gainera, *Eskoriatzak merezi du* ekimena aurkeztu eta egindako ekarpenez gain, ekimen horren baitan proposatzen diren foroetarako eztabaida gaiak ere sortu ziren.

Udal Gobernuak hainbat herri bilera egin ditu, lehena azaroaren 12an Huhezin eta bigarrena azaroaren 14an Ibarraundi museoan. Hurrengo egunetan, elizateetara joan ziren, bertako biztanleen iritzia jasotzeko asmoarekin. Guztira, 110 pertsona inguru bildu ziren, eta zenbait gairen inguruan argibideak es-

katzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

**'Hiri berritze plana' baztertu gabe** Agintaldi hasieran, Udal Gobernuak herritarren partaidetza oinarritutako *Hiri berritze plana* abiarazi zuen. Egitasmo horretan, ekarpen konkretuak jaso dituzte, hiri altzarien inguruko ekarpenak, argiteriaren ingurukoak... *Eskoriatzak merezi du*, ekimenak, ordea, herritar guztien artean adostu beharreko gaiak landu nahi ditu foroetan, baita herritarrak inplikatu eta kontzientziatu ere. Txakurren ordenantza dela, gaizki aparkatutako ibilgailuen arazoari irtenbidea ematea dela... Hala, *Hiri berritze plana* baztertu gabe,

**FOROETAN EZTABAIDATZEKO MODUKO GAIK JASO DITUZTE EGINDAKO HERRI BILERETAN**

*Eskoriatzak merezi du* ekimenarekin pauso bat harago joan nahi izan dute. Hori horrela, herritarrek zenbait gai jarri zituzten mahai gainean, foroetan eztabaidatzeko modukoak, eta zenbait gairen inguruan kontzientziazioaren beharra ere azpimarratu zuten. Patinekin espaloietan ibiltzearen inguruko gaia, autobus zerbitzuarena edota oinezkoentzako guneen arteko oreka bilatzea, besteak beste.

**Eskerrak herritarrei**

Herri bileren balorazio positiboa eginda, Joserra Zubizarreta alkateak "izugarri" eskertzen die herritarrei bileretara bertaratu izana, eta, bereziki, bileretan egindako ekarpenak. Hala, parte-hartze dinamika horiekin eta herritarrenganako entzute aktiboarekin jarraitzeko asmoa berretsi dute, herritar guztien artean egindako Eskoriatza, Eskoriatza hobea izango dela gaineratuta.



Enaitz Testa, motorrarekin jauzia egiten. RUBEN TESTA

## Enaitz Testa bigarrena izan da Euskadiko txapelketan

65 MX mailan lehenengo aldiz parte hartu du, eta denboraldi honetan Espainiakoan arituko da

**I.B** ESKORIATZA

Enaitz Testa eskoriatzarra bigarren postuan geratu da Euskal Motoziklismo Federakuntzak antolatzen duen Euskadiko motokros txapelketan. 65 MX mailan aritu da denboraldi honetan lehenengoz, eta, emaitza bikaina lortuta, denboraldi berria prestatzen ari da.

11 urteko motorzalea txikitatik entrenatzen da baserrian, bere aitak egindako zirkuituan. Aurten, gainera, jauzi handiagoak egiteko atondu dute ibilbidea eta zailtasun gehiago jarri dizkiote, gogorrago entrenatzeko. Hori

horrela, orain arte KTMk babestu ditu Enaitz eta anaia txikia Aratz motorzaleak. Aurten, berriz, Yamahak babestuko ditu, eta Espainiako txapelketa eta Euskadikoa egingo dituzte biek.

**Txikia, baina gogorra**

Aratzek, anaia gazteak, gaur bete ditu 9 urte, eta, Enaitzen moduan, denboraldi bikaina egin du; sailkapen orokorrean seigarren geratu da. Hala ere, duela gutxi izandako istripu batean ukondoa hautsita, errekuperatu da dagoneko, eta ari da lasterketetan parte hartzen.



ESKORIATZA KE

## Hiru eskoriatzar, selekzioarekin

Pasa den asteburuan, Murtzian izan ziren Nerea Pavo, Goizane Zubizarreta eta Ane Gay eskoriatzarrak, 20 urtetik azpiko Euskal Selekzioarekin jokatzen. Eskoriatzako senior mailako areto futbol taldean ari diren hiru emakumezkoak honako hauek dira: goian, ezkerretik hasita, Pavo, laugarrena Gay eta bosgarrena Zubizarreta.



# "Etorkizunari begirako hausnarketa da bidea"

**RAFA BERNAL** IRABAZI ESKORIATZAKO BOZERAMAILEA

Gaur egungo eredu kapitalista ongizate estatua desegiten ari dela adierazi du Irabazi Eskoriatzako bozeramaileak, eta Udal Gobernuak ez duela ezer egin horren aurrean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Irabazi Eskoriatza alderdia zinegotzi bakarrarekin izan da lanean agintaldi honetan. Ekarpen ezberdinak egin dituzten arren, Udal Gobernuaren konpromiso falta adierazi du, bestek beste.

**Agintaldia amaitzen ari da. Zein balorazio egiten duzu?**

Nire ustez, beste lau urte galdu ditugu. Agintaldia krisi ekonomiko, sozial eta ingurumen arazo handi batetik zetorren. Gaur egun, egoera berean gaudu, edo txarragoan. Aldaketa klimatikoa denok nabaritzen dugun errealitate bat da, krisi soziala ere agerikoa da, eta partidu xenofoboaren aurrerakada geroz gero da. Gaur egungo eredu kapitalista ongizate estatua desegiten ari da. Horren aurrean, zer egin du Udal Gobernuak? Nire ustez, ezer ez. Mahai gainean dauden ideia gutxiak oposizioaren aldetik sortuak izan dira. **Zein ekarpen egin du Irabazi Eskoriatzako agintaldi honetan?**

Gehiengo osoa duen Gobernu baten aurrean, zinegotzi bakarrarekin, ekarpen eta proposamen ezberdinak egin ditugu. Batzuek aurrera egin dute; beste batzuk, ez. Arazoa ekarpen batek aurrera egin eta Udal Gobernuaren partetik konpro-



Rafa Bernal. I.B

misorik ez dagoenean gertatzen da. Hainbat ekarpen ez dira, sikiera, botatuak izan; mugikortasun jasangarriaren inguruko mahai bat sortzearena, esaterako, edo zarataren babes ordenantza. Horrekin batera, zaila da bizitza profesionala eta pertsonala politikarekin uztartzea. **Datorren agintaldiari begira, zein hobekuntza egin nahi dituzue?**

Gure eragiteko gaitasunaren araberakoa izango da hori. Usted denok hautematen dugula gauza batzuk ez doazela joan behar diren moduan, eta, horren

bueltan, aldaketa eta eboluzioa bilatu behar dugu. Egoera horren aurrean, herritarrek ardatz diren proiektu batean lan eginaz lortzen da, gaur egungo eredu ez den bezala, errentagarritasun ekonomikoa protagonista izanda; hau da, dirua. Horregatik, bizitzako arlo guztietan egingo dugu lan, elkartasun eta tolerantzia kulturaletik abiatuz, garapen jasangarri bidean, pertsonen ongizateetik pasata.

**Aurrekontuen gaineko zein iritziduzu?**

Proiektu bat epe motzerakoa denean, aurrekontuek bide bera jarraitzen dute. Ohiko gastuak betetzean oinarritzen dira, eta, beste aldetik, agertokia apaintzean, hau da, obra eta erreformetan. Behin eta berriz esan digu Udal Gobernuak erabilgarri dugun dirua urria dela, baina aurrekontu guztietan dago nahikoa diru Elizateek eskatutakoa betetzeko eta EAJren kanpora begirako obrak gauzatzeko. Zer aldatuko genuke guk aurrekontuei begira? Proiektu sozialetan eta garapen iraunkorrean gehiago inbertitu behar da. Guztiok nahi dugun etorkizunaren gaineko hausnarketa egin beharra dago eta datozen belaunaldiei begiratu, zer eta nola egin pentsatuz.

## Craic 'n' Roll talde irlandarrak rock-and-rollera eskainiko du

Urtarrilaren 18an, datorren egubakoitzean, izango da kontzertua, Inkernu tabernan, 22:30ean

**I.B** ESKORIATZA

Donna Dunne abeslariak eta Philip Doyle gitarra-joleak emandako akustikoa eskainiko dute datorren egubakoitzean, Inkernun. Irlandatik datorren taldeak rock-and-roll, country eta gipsy-

jazz estiloak uztartzen ditu eta ikuskizun dibertigarria eskainiko du.

Urriaren Arrasaten izan ziren, eta, bertan izandako arrakastaren ostean, Eskoriatzara datoz. Bi musikariak bi urtez izan dira

lanean *Voodoo* izeneko lanarekin, 2017an Erresuma Batuko rock-and-roll *charts*-ean lehen postuan izan zena *The Mystery Men* taldearekin. Ondoren, *The King of Rock n Roll* lana atera zuten, eta orain, bikote moduan, Craic 'n' Roll talde berriarekin datoz.

Diablo Records diskoetxeiko burua da Philippe Doyle, eta Aretxabaletako *Screamers And Sinners* taldearen disko berria produzitzera geratuko da. *Hypnosia* izeneko diskoaren grabaketak astebete iraungo du.

# LEINTZ GATZAGA | 23



Pasa den zapatuan, Gatz Bidean hesolak jartzen. IMANOL SORIANO

## Leintz Lotzen herri ekimenak pausoak ematen jarraitzen du

Auzolanean, oinezkoentzat bide seguruagoa egin dute gatzagarrek, koloretako 80 hesola jarrita

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Urte amaieran, hainbat herritar batu ziren Leintz Gatzagako frontoian, Eskoriatzatik Gatzagara dagoen Gatz Bideko zati batean jarri berri dituzten hesolak margotzeko. Hori eginda, pasa den zapatuan, koloretako laurogei hesola jarri zituzten Gatz Bidean, Gaztañaduiko zubia pasatu eta berehala. Lan hori egiteko, hogeitaz inguru batu ziren.

Oinezkoek errepidetik pasa behar izaten zuten zati horretan, baina bertako belardiaren jabeak zelai zati bat utzi die ekimeneko kideei, oinezkoak seguruago pasa daitezkeen. Kuadrillek, enpresek eta norbanakoek hesolak pertsonalizatu ditzakete bost euroren truke, eta batutako dirua auzolan berriak egiteko erabiliko dute. Honela adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Lotzen ekimeneko kideak:

"Bidean ere Leintz Lotzen espiritua hori erreprezentatzea polita iruditzen zitzaiogen eta gure koloreak erabiliaz bide zati honi nortasuna eman diogu".

**Lanaren ostean, merezitakoa**

"80 hesola horiek sartu eta sarea eta txarrantza jarri dugu Gatz Bideko zati batean. Lan gogor hau saritzeko, Toki Eder elkartean baba-jana antolatu dugu parte hartutako boluntario guztientzat. Laster, urteko bigarren deialdia egingo dugu; margotuta dauden hesola hauek gehiago pertsonalizatu eta txukunduko ditugu, ondoren saldu ahal izateko. Bost eurotan salduko ditugu; talde, kuadrilla, familia, komertzio... edonork bere marka edo leloa bidean utzi dezake, erosleak hitz bat aukeratu eta gogokoen duenean jarriko baitugu. Aurrerago emango ditugu argibideak".

## Ekintza mordoa izan dituzte gatzagarrek Negulekuetan

Negulekuak izan dituzte Gatzagako ludotekako erabiltzaileek urtea amaitzeko, eta, horien baitan, ekintza ugari egin dituzte.

Abenduaren 28an, esaterako, Gasteizera irteera egin zuten, egun osorako: Florida parkeko jaiotza ikusi zuten, Andre Maria Zuriaren plazako izotz pistan irristatzen aritu ziren...

Urtarrila, berriz, ludotekan hasi dute. 3tik 4ra bitarteko gaua ludotekan pasa zuten, eta bertan ere ez ziren geldirik egon Gatzagako haurrak. Denek batera bazkaldu ostean, ginkana izan zuten: truke jolasa, altxorraren bila... askotariko jolasak egin zituzten. Ondoren, bertan afaldu, eta gauean, mahai jolasak, musika eta dantza izan zituzten. Hurrengo egunean, berriz, ondo gosalduta ostean, eskulanak egin zituzten Negulekuei amaiera emateko.



Ndank Ndank-eko presidente Mamadou Sarr, Senegalen, Bergaran jasotako kamisetz jantzitako umez inguratuta. NDANK NDANK

# Dionewartarrekin loturak estutzera

2012an sortutako herriko Ndank Ndank elkartearen eskutik, Senegalgo Dionewar herriko eskola hobetzeko lanak aurrera doaz pixkanaka, Bergarako eta ingurueta hainbat enpresak eta elkartek emandako askotariko materialei eta laguntzari esker

## Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Ndank Ndank elkarteko ordezkariak Senegalen, Dionewar herrian, izan dira bi astez. Bidaian zehar, elkarteko kide senegaldarren seme-alabek euren sustraiak ezagutzeko aukera izan dute, familia ezagutzeko, umeekin jolasteko eta bertako ohiturak ezagutzeko, besteak beste.

2012ko maiatzean sortu zen elkarte, Senegalen lankidetzaren proiektuak gauzatzeko helburuarekin, eta ordutik Dionewar herriarekin lotura berezia duen herria da Bergara. Hain zuzen, sortu zen unetik hango eskola konpontzeko eta hobetzeko lanean aritu dira, pixkanaka.

## 2018an, elkartasun keinu ugari

Ndank Ndank elkartekoek Gabonak aprobetxatu dituzte jaioterrian egoteko. Ez ziren esku

hutsik joan, azken hilabeteotan askotariko materiala batu ahal izan dutelako bailarako hainbat erakundetatik. Fagor Industrialek, esate baterako, eskoletan erabiltzeko bulego materiala eman du, Erreka Kooperatibak egindako ekarpenari esker edukiontzi bat bidali da, Bergarako Kirol Elkarteko saskibaloitaldeak kirol materiala eskaini du –kanpaina berezia egin zuten 2018ko udaberrian denetarik kirol arropa batzeko–, eta San Martin Agirre eskolatik ere eskolarako materiala bidali dute, besteak beste.

## Lan asko geratzen da oraindik

Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguez bergararra ere Senegalen egon da eta 2019rako asmo nagusiak kontatu dizkio GOIENARI: "Eraikinak gaur egun ez dauka urik. Eskolarako insta-

lazio guztia eginda dago, baina herriko depositu nagusitik eskolarako instalazioa jartzea falta da. Baimenak eskatzen hasita gaude ura eskolara lehenbailehen hel dadin, behar nagusia hori delako".

Bestetik, Haur Hezkuntzako eraikin horretan bertan gela berri bat ireki gura dute: "Umeak adinaren arabera dibertsifikatzeko beharra ere badago, ahalik eta arretarik individualizatuena eskaini ahal izateko". Izan ere, gaur-gaurkoz, gela berean 2-6 urte bitarteko 70 ume izateraino heldu dira. Hirugarren proiektu bat ere badute esku artean, iazko udatik egiteke geratu zena: "Egoera eskasean dauden teilatuak aldatuko ditugu, Fagorri esker", esan du Dominguezek. Amaitzeko, jolastoki orduetarako estalpe bat eraikitzea aurtengo asmoen barruan kokatu dute.

## "Emankorra izan da bisita, eskolako beharrak gertutik ezagutu ditugu"

ELI DOMINGUEZ NDANK NDANK ELKARTEKO KIDEA

Pozik bueltatu da Dominguez Senegalgo Dionewar herritik. **Aberasgarria izan da bidaia?** Bai, oso aberasgarria izan da. Pertsonalki ederra izan da, familiarekin eta herritarrekin harremana estutu dugulako. Elkartearentzat ere emankorra izan da, eskolaren beharrak gertutik ezagutzeko aukera izan dugulako.

### Ze behar ditu eskolak?

Baliabide zein espazio aldetik eskas dabilta. Gela bakoitzean 70 ikasle egon daitezke eta arduradunek esan izan digute, gela berean adin ezberdinetako ikasleak daudela aintzat hartuta, arreta individualizatua oso zaila dela.

### Han jaiotakoan seme-alabekin joan zarete lehen aldiz. Zelan itzuli dira?

Umeen begietatik gauza asko era naturalean sartzan dira,



A.T.

baina baten bat harritu egin du argindarrik gabeko gelak edota urik gabeko komunak ikustean. Ez daude horretara ohituta. **Elkartasunik ez da falta Bergara eta inguruetan.** Bergarako eta inguru herriek beti erantzuten dute ondo, eta eskertzekoa da. Bikotekidea [Mamadou Sarr, elkarteko presidentea] oso eskertuta dago; jaioterrian laguntzen ari da eta Bergarako herriari beti egongo da eskertuta.



Umeak eskolan, Bergaratik bidalitako materialarekin. NDANK NDANK

## Eskola hobetzeko lanak aurtan ere

Eskolaren egoera hobetzeko askotariko lanak aurreikusitako dituzte Ndank Ndank elkartekoek 2019rako. Batetik, Haur Hezkuntzako eraikinerako ura heltzeko instalazioa bukatu egin behar dute; izan ere, eskolarako instalazioa eginda dago, baina herriko depositu nagusiarekin lotzea falta da. Bestetik, gela berri bat sortu gura dute umeak adinaren arabera dibertsifikatzeko; gaur egun, gela berean, 2 eta 6 urte arteko 70 ikasle egon daitezke. Hirugarren proiektu baten barruan dago kokatuta egoera eskasean dauden teilatuak aldatzearena, eta, horretarako, Fagor Industrial kooperatibak emandako teilatu txapak baliatuko dituzte. Azkenik, eguzki handiko egunetarako eta egun hezeetarako aterpe bat eraiki gura dute, Ndank Ndank elkartekoek beharrezko ikusten dute eta umeek eraikinetik kanpo ere babesleku bat izatea.



# "Diagnostikotan erori ohi gara enpatiaren izenean"

**NEREA MENDIZABAL** PSIKOPEDAGOGOA

Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioaz luze jardun zuen Zabalotegin; hainbat entzule izan zituen: "Aldaketarako mugimendu hau aprobetxatu beharra dago", uste du

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Errespetuzko komunikazioa familia* izenburupean, saio interesgarria eskaini zuen Nerea Mendizabal psikopedagogo eza-gunak martitzenean, Udalaren eskutik; ikusmina piztu zuen.

**Nola egin diezaiekegu uko familia barruko botere harremani?**

Boterea definitzen hasiko nintzateke. Boterea ulertzen dugu, askotan, autoritate moduan, boterea norbaiten gainetik egotearen egoera. Hori egiten denok dakigu, estilo ezberdinetan; gurasoak pentsatzen duenean berak dakiela zer dagoen ondo eta zer gaizki edo haurrari zer egin behar duen eta zer ez erakusten dionean, botere mota bat ari da elikatzen. Baina beste botere eredu bat aldarrikatzen dut nik; inoren gainetik jartzen ez dena, alegia. Gurasook dugun boterea eta haurrek ere berez dutena batera erabiltzean datza.

**Zeintzuk dira familia barruan izan beharreko komunikazio egoki baterako zutabe nagusiak?**

Komunikazioa beti dago. Komunikatzen ez dugunean ere komunikatzen ari gara. Gainerako gurasoekin partekatuta nahiko nukeen eredu Marshall Rosenberg-en komunikazio ez bortitzarena da. Eredu horren irizpideak oso baliagarriak izan



Nerea Mendizabal, Zabalotegin. J.B.

zaizkit niri, ama moduan. Gauza asko esango nituzke familia barruko komunikazioari dagokionez, baina nabarmenduko nuke hitz egiten eta entzuten ikasi behar dugula.

**Zer esan gura duzu, zehazki?**

Nola adierazten dugun eta nola entzuten dugun oso garrantzitsua dela. Hau da, adierazpenak zintzoak izan daitezen, nitaz -edo gutaz, gurasooz- hitz egitea falta zaigu. Izan ere, gauzak guri gustatuko litzaigukeen moduan ez doazenean, besteaz hitz egiten dugu: *ez duzu kasu*

*egiten, beti berdin ari zara, ez duzu sekula ezer egiten, hau edo bestea egin behar duzu...* Hori egiten ari garenean, ez gara gutaz hitz egiten ari; asko hitz egiten dugu, baina umea epaituz. Beraz, erreminta egoki bat izango da gutaz hitz egiten hastea. **Entzutea oso garrantzitsua da, baina ez da beti ariketa erraza izaten...**

Umeari enpatiaz entzuten jakitea ezinbestekoa da. Baina *enpatia* maiz entzun dugun terminoa da azkenaldian, eta ondo definitu behar dugu. Esan nahi dudana da enpatia ez dela *uler-tzen dizut, baina hau edo bestea egin behar duzu* esatea, baizik eta bestearen beharrak eta bizi-zenak ulertzea. Eta hori guztia galdera formatuan eskaintzea; bestela, diagnostikotan erori ohi gara, enpatia ematen ari gare-lakoan. Ondo adieraztearekin eta entzutearekin *bakarrik*, egoera asko alda daiteke.

**Alde batetik bestera zabilta gurasoekin lanean. Nola baloratzen duzu zure hitzaldiek izan ohi duten harrera ona?**

Uste dut interes handia dagoela gaiaren gainean; gurasoengan, irakasleengan eta gizartean, oro har. Hori albiste oso pozgarria da; aldaketarako mugimendu baten gaude eta olatu hau aprobetxatu beharra dago.



Matxiategi kaleko ezkiak, artxiboko argazki batean. GOIENA

## Matxiategiko ezkien erdiak bota egingo dituzte, segurtasunagatik

Bizilagunak fatxadetatik gertuegi daudela kexatu direlako eta batzuk ez daudenez osasuntsu, 16 bat botako dituzte

**J.B. BERGARA**

Bota egingo dituzte Matxiategi kaleko pasealekuan dauden 32 ezkien erdiak, "gutxi gorabehera". Arrazoietako bat da, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregiren arabera, bizilagunen eskaera bat dela: "Zuhaitz horietako batzuk altu daude, eta fatxadatik oso gertu. Hilerrian, hor bertan, duela ez asko erori zen bat, eta beldurra zabaldu da. Horrez gain, segurtasunagatik ere, batzuk ez daude osasuntsu; espaloi askotan gertatzen denez, lurra altxatuta ere, askotan, ez da jakiten azpian zer dagoen. Egoera ez da oso larria, baina batzuk kendu egingo ditugu. Poliki joango gara, botatzen goazen heinean enborrak ondo begiratzen". Hala ere, pasealeku-izaera mantendu gura diote guneari; asmoa da egunotan pare bat botatzea eta pixkanaka joatea gainerakoak ere botatzen.

**Kontrolik gabeko fauna, "arazo"**

Esku-hartze honetarako hirugarren irizpide bat ere zehaztu du Arregik: "Altuera aldetik desorekatuta daude zuhaitz batzuk, ia 20 urteko aldearekin landatu zirelako. Txiki batzuk handien itzalpean bizi dira, ezin hazi, eta lekualdatu egingo ditugu".

Bestalde, paraleloki lanean ari dira Matxiategi barrualdeko belar altuetan: "Bizilagunak kexatu izan dira katuak sartzen direlako, eta Gabonen aurretik konturatu ginen arkakusoz beteta zegoela eremua. Katuak, saguak, arkakusoak... fauna bat sortu da hor, kontrolatzeko oso zaila dena". Belar altu horietako batzuk kentzen edota murrizten hasiak dira dagoeneko: "Belar horiek ez dute mantenu lan handirik eskatzen baina denboraren poderioz beste arazo batzuk sortu dituzte; arazo larria da, kontrolatu beharrekoa".

## Oxirondon, Osintxun eta Angiozarren urtarrila lepo dator

**Goiena komunitatea**

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Urtea gogotsu hasiko dugu herriko hiru ludoteketan. Hurrengo ekintzak honako hauek dira: Oxirondon, gominolen gaineko saioa hilaren 15ean eta 16an; Osintxun, bingo jolasa urtarri-laren 14an; eta Angiozarren, munduko jolasak hilaren 11n. Gerturatu eta gozatu!

### ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

### Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

### BERGARA

MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

### Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

# Negua eta udaberria, planez lepo areto berrian

Urtarriletik maiatzera bitartean, "askotariko" 27 ekitaldi antolatu dituzte Seminarixoan, eta, nobedade gisa, errezitaldien generoa txertatu dute; Kultura Zerbitzuaren arabera, urtebetean antolatu diren 74 ekitaldiak programatzeko 74.000 euro inbertitu dira

## Jokin Bereziartua BERGARA


Urtebetean 74 ekitaldi izan dira Seminarixoan. Hamasei antzezlan, 29 kontzertu, bost dantza emanaldi, hiru bertso saio eta hemeretzi hitzaldi –ikuskitun horietatik 14 ume eta gazte-txoentzat, 53 helduentzat eta zazpi gazteentzat–. Eta 5.395 ikusleren topaleku izan da epe horretan. "Bergarako kultura eragileek eta taldeek ere gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira. Dagoeneko honako talde hauek izan dira bertan: Orfeo Gaztea, Orfeoia, Goiko Rock, Aritzeta, San Jozepe, musika eskola eta txistulari banda", adierazi dute.

Gastuen berri ere eman zuten Izaskun Labaien zinegotziak eta Edurne Korta Kultura teknikariak asteleheneko agerraldian; programazio gastuak izan dira 74.000 eurokoak –SGAEk eragindako gastuak barne–. Bestalde, Gipuzkoako Diputaziotik 11.900 euroko diru-laguntza jaso du Udalak eta 2019an ere jasoko duela iragarri zuten.

## Errezitaldiak nobedade gisa

Datu horiek guztiak eskuetan zituztela, oso pozik agertu ziren Seminarixoaren orain arteko ibilbidearekin: "Emanaldiak erantzun oso ona dute, gero eta ikusle gehiago datoz. Bergarako kultura taldeen eta sortzaileen parte-hartzea ere gero eta handiagoa da; eta, era berean, programazioa askotarikoa, diziplinari dagokionez zein estiloari".

Balorazioaz gain, urtarriletik maiatzera arteko programazioaren berri ere eman zuten. "Askotariko" 27 emanaldi antolatu dituzte: hamar musika kontzertu –Eñaut Elorrieta (maiatzaren 11n, 19:00etan), Olatz Zugasti (otsailaren 9an, 19:00etan), Xabi Bandini (otsailaren 22an, 22:00etan) eta herriko Nomadak (urtarrilaren 18an, 22:00etan), besteak beste–; ume eta gazte-



Izaskun Labaien eta Edurne Korta, Seminarixoko harmailetan. TXOMIN MADINA

txoendako zazpi emanaldi –domekan, hilak 13, estreinatuko den *Musikarium* ikuskizuna (ikus 41. orria), eta otsailaren 2an eta 3an egingo diren *Go!azen*-en lau emanaldiak, esaterako–; helduendako lau antzez-

lan –*Ghero* (otsailaren 23an, 19:00etan), *Erlauntza* (maiatzaren 4an, 19:00etan) eta *Txarriboda* (martxoaren 9an, 19:00etan), adibidez–; eta bertso jaialdi bi –Erramu Zapatukoa (apirilaren 12an, 22:00etan) eta Gipuzkoako Bertso Txapelketako aurrekanporaketa (maiatzaren 25ean, 17:00etan–. Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en azken ikuskizunaz ere gozatu ahalko da, baina frontoian izango da; maiatzaren 2an, 17:30ean hasita.

Nobedade moduan, errezitaldiak ere sartu dituzte egitarauan. Hala, Mixel Ducau parte den *Adi-adi, izan hadi!* (urtarrilaren 12an, 19:00etan); Bernardo Atxagaren eta Jose Kruz Gurrutxagaren eskutik *Martuteneko kartzelan* (martxoaren 15ean, 20:00etan); eta Andoni Egañak gidatutako *Eta zer gehiago?* (martxoaren 23an, 19:00etan).

**Zinema, martxoa baino lehen ez** Bestalde, Seminarixoan zinemaz noiz gozatu ahalko den galdetuta, areto berrian azken estreinaldiez gozatzeko gutxienez martxora arte itxaron beharko dela adierazi zuen Izaskun Labaien zinegotziak.

## 'Go!azen 5.0': lau emanaldi

*Go!azen 5.0* ikuskizuna otsailaren 2an eta 3an helduko da Seminarixora. Edukiera muga ikusita, lau emanaldi egingo dira: otsailaren 2an –17:00etan eta 19:00etan– eta otsailaren 3an –12:00etan eta 17:00etan– izango dira. *Photocall*-a jarriko dute lehen saioan izan ezik beste guztietan; lehen saiora doazenak bigarrenaren osteko *photocall*-ean egon ahalko dira, sarerra erakutsita. Atzo iluntzean jarri ziren salgai; agortu ez badira, <https://tickets.kutxabank.es> plataforman eros daitezke.

## Led berriak hurrengo astean jarriko dituzte alde zaharrea

Duela bizpahiru urte jarritakoek ez dute argirik ematen: "Hornitzaileari lehentasun moduan hartzeko eskatu diogu"

## J.B. BERGARA

Duela bizpahiru urte jarritako led argiek gero eta argi fluxu txikiagoa ematen dutenez, Udalak kontratazio urgente bidez led berriak erostea eta horiek "berrehala" instalatzea erabaki du, alde zaharrea. Tecuni enpresa kontratatatu dute eta interbenzioaren aurrekontua 48.296 eurokoa da (BEZa barne). Obra eta zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik gogorazari duenez, lehenago "material eskasa" jarri zuen enpresa desagertu egin zen: "Beste hornitzaile batekin saiatu

ginen konponketaren bat egiten, baina oso iraupen eskasa izan du, arazoa lehengai dagoelako".

## Gabonetakoak mantentzea

Urrian konturatu ziren bereziki Barrenkalea, Artekalea, San Pedro, Bidekurutzeta eta inguruko gunek batzuk oso ilun zudela. "Hornitzaileak dio hurrengo astean hasiko direla; lehentasun moduan hartzea eskatu diogu. Gabonetako argiak osagarri izan ditugu eta enpresari eskatu diogu aste honetan, behintzat, ez kentzeko", dio Arregik.

## GORA ETA BEHERA



O.E.

## Plastikoa paperaren tokian, Labegaraietan



Labegaraietako bizilagun batek salatu du paperaren edukiontzi urdinean plastikoak ikusi dituela, ondoan plastikoarendako edukiontzi horia egonda. Argazkia martitzenekoa da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## OHARRAK

### 1956an jaiotako urteroko bazkaria

Urtarrilaren 26an, Zumelagan bazkalduko dute. 14:15ean aterako dute argazkia, jatetxe aurrean; izena emateko, deitu edo *whatsapp* mezua bidali 630 62 61 30 zenbakira, hilaren 22rako.

### Martxanteren saski erotikoak badu irabazlea

Mireia Olabarriak (0360) irabazi du aurtengoa: "Zuen denon aletxoaren benetan beharrezkoa da Martxantereontzat", diote.

### 'Oparitu zuhaitz bat' ekimenaren saioa

Urtarrilaren 17an izango da, Udal Liburutegian (19:30). *Zuhaitz gutxiago, arazo gehiago*; Fiare banku etikoaren jarduerak; kooperatiba energetikoak; eta *Oparitu zuhaitz bat* ekimena.



# Bikote izango dira txapelketan ama-alabak

Emakume Master Cup txapelketa hasiko da urtarrila amaieran: eta, beste pilotari batzuen artean, Reyes Azkoitia eta Jasone Larrañaga ama-abalek bikotea osatuko dute. Goiena telebistako 'Harmailatik' saioan izan dira pilotariak horretaz berbetan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
Reyes Azkoitia eta Jasone Larrañaga ama-alabek Emakume Master Cup txapelketa jokatu dute, bikote moduan. Galdakaon hasiko dute ibilbidea bergararek, hil bukaeran.

"Ilusio egiten dit amarekin jokatzek", azaldu du Jasone Larrañaga alabak.

## Batera, lehenengo aldiz

"Beste alaba beti brometan ibili izan da, 'gu be apuntatuko gara?' eta horrelakoak esaten. Hala, Jasoneri esan nion ea biok apuntatuko ginen. Lau t'erdiko txapelketara joan ginen, pentsatuz binakakoa zela, eta izena ematerakoan konturatu ginen banakakoa zela. Elkarri begiratu, eta aurrera egitea erabaki genuen", azaldu du Azkoitiak.

Lau t'erdiko txapelketan kantsa barruan bizitako sentsazioak denetarikoak izan direla azaldu dute: "Ilusioa, beldurra, lotsa ere bai... sentimendu arraroak izan nituen. Lesioren bat izateko beldurra, ezer ez egiteko lotsa...", azaldu du Azkoitiak. Lehenengo beldur hori kenduta fisikoki "astindu ederra" hartu zuela dio: "Gasteizen ez nuen ezer disfrutatu, pilotan ez nuen disfrutatu: adineko emakume baten kontra tokatu zitzaidan



Jasone Larrañaga eta Reyes Azkoitia. R.A.



eta ezin izan nuen irabazi; gero, gazte bati irabazi nion, baina nik nahiago nuen besteari irabazi", dio Azkoitiak. Abadiñora, aldiz, ilusio barik joan zela dio, eta sekula baino hobeto jokatu zuela. "Eskuetatik ez nuen sufritu eta fisikoki ere ez. Aurrez nire buruari esaten diot ez naitzela lurrera botako, baina behin kantxara irtenda...", dio. Lehenengo partidua jokatu zuenetik gaur egunera arte alde igarri duela dio Azkoitiak.

Larrañagak bi partiduko jokatu zituen lau t'erdikoan, eta biak

galdu, baina sentsazio "oso onarekin" geratu dela dio: "Elosuan, auzoan, jokatzeko dugu pilotan, baina inoiz ez dut txapelketarik jokatu", dio, eta gaineratu du: "Egia esan, sentsazioa asko gustatu zitzaidan". Larrañagari Ogeta pilotalekuan jokatzeko tokatu zitzaion. "Ilusioa egin zidan Ogetan jokatzek. Bi partiduko jokatu eta biak galdu nituen, pena hartu nuen ez nuelako aurrera ez egin".

Behin banaka jokatu ostean, binakako ibilbidea hasiko dute hil bukaeran ama-alabek.

## IX. Soraluze lau t'erdiko txapelketa

Urtarrilaren 29an hasiko dute Soraluze lau t'erdiko txapelketa. Martitzenean izango dira lehiak, udal pilotalekuan, 19:30ean hasita. Promesa mailan Sergio Gutierrez eta Julen Alberdi lehiatuko dira; eta, nagusietan Julen Egiguren eta Eneko Labaka. Se jardunaldi jokatu dituzte; zazpigarrena finala izango da, martxoaren 12an.

Bestalde, gaur, barikua, Euskal Herriko klub arteko txapelketako bi partiduko jokatu dituzte munizipalean. 22urte azpiko mailakoak izango dira lehiak. 19:30ean hasiko dute jaialdia. Bergarak Orozko B-ren aurka jokatu du. Bergarako pilotariak izango dira: Aitor Bergara eta Harri Otermin. Beste lehia Oiarpe eta Amurrio B-ren artekoa izango da.

## Nola moldatuko dira?

Galdakaon hasiko dute Master Cup txapelketako lehenengo fasea. Bizkai aldean jokatu ostean, finalerdiak Oreretan izango dira eta finala Zumarragan. "Lehenengo kanporaketa jokatu, etxera etorriko gara!", dio Azkoitiak. Uste dute zaila izango dela txapelketan aurrera egitea.

Txapelketarako nola prestatu diren galdetuta, Larrañagak dio ez dutela ezer berezirik egin: "Gabon opor hauetan ez gara bereziki zaindu, eta entrenatzeko ere ez dugu tarterik hartu. Hala ere, hasieratik ilusioa egiten ziguna orain dator: elkarrekin jokatzek". Bikote moduan kantsa barruan nola moldatuko diren ez dakitela diote. Azkoitia nortasun handiko kirolaria da, baina uste du ez dela gogorregia izango alabarekin: "Nik badakit honek zenbat egin ahal duen, baina baita nik zenbat egin nezakeen ere. Nik nire burua estutuko dut, baina ez dut uste honi ezer esango diodanik". Larrañagak gehitu du amak beti kritika konstruktiboak egin izan dizkiola: "Futboleko jokatzeko nuenean ere beti hitz onak izan ditu", azaldu du. Azkoitiak, adi-

nagatik, beste batzuk baino abiadura motelagoa izan dezake kantxan; hala ere, 30 urte eman ditu Bergarako pilota eskolan monitorea moduan, eta pilota ikusteko eta aurkariari tantoa nondik egin ikusteko abilezia handiagoa eman diezaiolke horrek. Hori da ama-alabek aprobetxatu beharko dutena.

## Ikusmina piztu du

66 urterekin Azkoitia pilotalekura itzultzeak ikusmina piztu du; hala ere, Azkoitiak ez du nahi izan telebista bere partiduetara joaterik, aurkariari errespetuagatik. Hala ere, bada-kite historikoa izango dela ama-alabak kantxan ikustea, eta, nolabait, eredu ere badela emakume pilotariendako. Azkoitiak dio txapelketatik kanpo geratu arren ikusle moduan jarraituko dutela, "pilotaz gozatzen".

## BERE BURUA ESTUTUKO DUELA DIO AZKOITIAK, BAINA EZ DUELA ALABA ESTUTUKO

## Realak irabazi du torneo

Gabonetako gazte mailako torneo jokatu zuten Bergarak, Realak eta Debagoieneko selekzioak aste bukaeran. Hiruren artean onenak txuri-urdinak izan ziren; hala ere, etxekoek maila ona erakutsi zuten. Aurtengo berrikuntza izan da bailarako taldeetako jokalariekin osatuta selekzioa. Entrenamendu saio bakarra eginda irten ziren selekzioko jokalariek zelaira.



X.U.

## Aste bukaeran ez da egongo lehenengo mailako lehiarik

Lehenengo mailako taldeek etxetik kanpo jokatu dute. Futboleko, gizonezkoek Elgoibarren jokatu dute, zapatuan, 16:30ean; emakumezkoek atsedean izango dute. Saskibaloian, Añorgaren aurka jokatu dute, Benta Berrin, zapatuan, 18:00etan. Eskubaloian, Pulporen aurka jokatu dute, zapatuan, 19:00etan, Zumaiako kiroldegian.



Enrike Txurruka, goian, ezkerretik hasita lehenengoa. GOIENA

# Enrike Txurruka izango da bandako zuzendaria

Musika Bandak martitzenean egin zuen entseguan aurkeztu zuen Txurrukak bere proiektua, eta bandako kideen oniritzia jaso zuen; orain, izendapena ofizialki aurkeztea besterik ez da geratzen. Gonzalez Chirlaque ekainean erretiratuko da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA Enrike Txurruka soralezetarra izango da Bergarako Musika Bandako zuzendaria ekainetik aurrera. Modu horretan, Alfredo Gonzalez Chirlaque ordezkatuko du, hark erretiroa hartzen duenean.

Txurruka Bergaran bizi da aspalditik eta bandako eta orkestrako kide da gazte-gaztetatik -45 urte ditu-. Bandako zuzendariorde izendatu dute; Gonzalez Chirlaquerekin batera ibiliko da ondorengo sei hilabeteetan, erreleboa hartu bitartean.

## Entseguan, aurkezpena

Musika Bandak martitzenean egin zuen entseguan aurkeztu zuen Txurrukak bere proiektua bandako kideen aurrean. Musikariaren oniritzia jaso zuen Txurrukak; hori horrela, zuzendariorde izango da hemendik eta ekainera bitartean, eta ekainean automatikoki zuzendari izatera pasako da. Erreleboa nork hartu erabakitzeak, aukeraketa

prozesua egin dute. Prozesu horretan egindako azterketetan Txurruka gailendu da; orain, gainera, bandaren onarpenera ere badu.

Txurruka bandako eta orkestrako kide da, eta pianoko goi mailako ikasketak eginak ditu; horrez gain, Enpresa ikasketak ere baditu. Orain arte bandako perkusio taldean ibili da: danborra, atabalak, bateria, tekla-tuak... jotzen ditu.

## Bandako kideei aukera eman

Alfredo Gonzalez Chirlaque aspaldi jakinarazi zuen 2019ko ekainean erretiroa hartzeko asmoa zuela -63 urte izango ditu erretiroa hartu orduko-. Hori horrela, erreleboa prestatzen

**AUKERAKETA EGITERAKOAN, MUSIKA BANDAKO KIDEEI AUKERA EMAN NAHI IZAN DIETE**

hasi ziren. Orain gutxira arte, Musika Banda Udal Banda izan da. Baina iaz azaroan, udalbatzak aho batez onartu zuen udal izazera utzi eta Bergarako Musika Banda elkarte bihurtzea.

Azken asteotan, zuzendari berria aukeratzeko prozesuan ibili dira. "Lehenbizi, aukera eman nahi izan diegu musika bandako kideei. Egungo bandako kide batzuek aurkeztu dute beren burua eta horien artean egin dugu aukeraketa", dio Gonzalez Chirlaquek. Horretarako, batzorde bat eratu zuten bandako eta Udaleko kideekin. Aukeraketa prozesuan, Joseba Torre Musikeneko irakaslea eta Udaleko pertsonen aukeraketakoak aritu dira.

**Orkestrako erreleboa, egiteko** Bandako zuzendaria aukeratuta, orain, orkestrakoa aukeratu dute. Orkestrako kideen artean erabakiko dute prozesua nola egin. Urtariletik aurrera erabakiko dute hori.



Gari Lopez de Munain, irabazle zapiarekin. KOPLA BARIK BERTSO ESKOLA

## Lopez de Munainek jantzi du bertsolari onenaren zapia

Iaz lortutako garaipena berretsi zuen Lopez de Munainek abenduaren 28an jokaturako final nagusian

### A.E. BERGARA


Ekintzaz beteriko egunak izan dira azken asteak kartzela zahar-rean. Egin dituzten ekitaldi guztien artean nabarmentzekoa da abenduaren 28an egin zuten bertsolari txapelketako finala. Kanporaketa saioak arrakastatsuak izaten badira, zer esanik ez finala. Kartzela zaharra bete egin zen Gari Lopez de Munain, Unai Arantzabal, Enaitz Alustiza eta Iñigo Arcelus bertsolarien arteko saioa entzuteko; eta Lopez de Munainek iaz lortutako txapela berretsi zuen. Oraingoan, baina, txapela beharrean,

zapia eman dio Kopla Barik bertsolari eskolak irabazleari.

Ariane Alberdi, Irati Alberdi, Aitor Arantzabal eta Oxan Altuna izan ziren finaleko epaimahai-kideak. Gai jartzaile lanetan Ibon Leibar *Txinbo* ibili zen.

### Bigarrenez irabazi du

Lopez de Munainek dagoeneko bi txapelketa irabazi ditu: 2018koa eta 2017koa. Aurrez jokatu diren beste txapelketetako irabazleak izan dira: 2016an Enaitz Alustiza eta 2015ean Iñigo Arcelus. Jende asko batzen duen ekitaldia izaten da txapelketa.



MIREIA BIKUNA

## Buztinarekin egindako lanak

Bergarako Buztinazale elkarteak Aroztegin duen erakusketa domekara arte, etzi, egongo da ikusgai. Guztira, 65 pieza ipini dituzte ikusgai. Teknika ezberdinak erabilia egindako lanak dira. "Artista bakoitzak estiloa dauka, oso agerian geratzen da", dio taldeko kide Iñaki Olabarriak. Erakusketara doazen artean, taldekide batek egindako pieza bat zozkatuko dute.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

# "Herriarregandik gertu egotea ezinbestekoa da"

**AINHOA CALONGE AGUAZILA**

Urtarrilaz geroztik Antzuolak aguazil berria dauka: Ainhoa Calonge oreretarra. Herriarren gertutasuna estimatzen duela aitortu dio GOIENari Calongek

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Anoetan bizi den oreretarra da Aingoa Calonge Pascual. Urtarrilaz geroztik, Antzuolako kaleetan barrena dabil aguazil lanak egiten. Herri txiki batean aguazilak zein eginkizun eta betebeharrak dituen kontatu dio GOIENari Calongek.

**Antzuolan oso bereizgarria da aguazila zein den.**

Bai; txapel gorriarekin berehala identifikatu naute herriarrek. Dagoeneko agurtzera gerturatu dira. Nabarmendu egiten nau txapel gorriak eta herriarrek niregana etortzeko ere bidea egiten du. Dagoeneko esan didate etorriko direla zerbait behar badute; kar, kar.

**Aguazilak txapel gorria betidanik eraman du Antzuolan. Bazenekien hori? Harritu egin zaitu?**

Harritu ez nau egin. Lehen egunean, erreparo pixka bat sentitu nuen, baina bost minutuko kontua izan zen, berehala ohitu naiz eta. Badakizu begirada denak zuzen jarriko dituztela, baina, esan moduan, ohitu naiz; nahiko sinpatikoa naiz, eta herriarrek poltsikoratuko ditut. **Zein izango da zure eginkizuna? Zein lan egingo duzu?**

Kaleak eta autoen zirkulazioa kontrolatu, eskola orduetan haurrek sartu-irtenak modu ziurrean egingo dituztela bermatu, obrak kontrolatu... Herriarrei laguntzeko beti prest egongo naiz. Niretzako, gertutasuna ezinbestekoa da. Jendea normaltasunean eta bakean bizi dadila gura dut, besteak beste. **Herri txiki batean edo handi batean lan egiteak baditu ezberdintasunak. Zeintzuk?**

Ni Anoetan bizi naiz, baina orain arte Oreretan lan egin dut. Biztanleriari dagokionez, hirukoitzatza da Antzuolako alderatuta. Horregatik, Antzuolan daukadan gertutasuna nabarmenduko nuke. Adibidez, Oreretan alkatea agurtu egiten nuen soilik; Antzuolan,



Ainhoa Calonge aguazila Antzuolako Herriko Plazan. MAIDER ARREGI

## "ISUNA JARTZEA AZKEN NEURRIA IZANGO DA; ASMOA DA HERRITARRAK INFORMATZEA"

ordea, harremana gertukoagoa, hurbilagoa da. Denbora gutxian, gainera, estuagoa izango dela uste dut.

**Zein da aguazilaren eta udaltzainaren arteko ezberdintasuna?**

Aguazilak baditu funtzio batzuk gaur egun egiten ez dituenak. Lehen, aguazilak, adibidez, elizako erlojua konpontzen zuen eta uraren kontagailuak arduratzen zen. Lan horiek bestelako enpresek egiten dituzte orain. Esan genezake herriarrekiko figurarik hurbilena dela aguazila eta, norbait laguntza eske etorri gero, aguazilarengana joko lukeela.

**Herri txiki batean lan egiteak zein abantaila eta desabantaila ditu?**

Jendea azkar ezagutuko dudala abantaila da. Niregana lehena joko dute. Eta desabantaila? Bada, ez dakit; batzuek diote, *herri txiki infernu handi*; ni esa-

molde horrekin ez nator bat eta ez dut uste arazorik izango dudarik.

**Eta aguazilak badu isuna jartzeko eskumenik?**

Udalaren araberrako erabakia da hori. Udal bakoitzak emango dio isuna jartzeko boterea aguazilari. Kasu horretan, neuk badaukat botere hori. Baina nire asmoa ez da isunak jartzea, hasiera batean. Baizik eta herriarrei informazioa emango diot eta aholkatu ere egingo dut. Asmoa da laguntzea, eta, ez badute kasurik egiten, orduan jarriko ditut isunak. Normaltasunez bizitzea bermatu gura dut. **Oinezkoen herria izateko lan egin du Udalak. Zein iritzi duzu? Oinezkoen babeserako lan egingo duzu?** Dudarik gabe; 2014tik hona, badago lege bat hori bermatzeko. Irigarritasun planak ere egin dira herrietan. Antzuolako erdigunea oso irigarri dago ezinduekiko. Ikusten da plan bat egin dela -komunak, udaletzeko igogailua, zirkulazio ordenantza...-. Gehiago egiteko ere badago, baina nabarmendu gura dut bereziki erdigunea oso irigarri dagoela Antzuolako herriarrendako.

## Urtarrilaren 20an, herriko kirolari onena aukeratuko dute

Debagoieneko Mankomunitateak bailarako Kirol Sariak antolatuta ditu eta Debagoieneko kirolari onena sarituko dute. Aurretik, baina, Antzuolako ordezkaria aukeratuko dute.

Hautagaiak dira Manex Balerdi, Galeano ahizpak eta Aitor Mendizabal pilotariak, Jon Baleztena eta Aimar eta Ekain Larrea korrikalariak, Manu

Castro eta Jon Larrea bizikleta jaitsierako kirolariak, Uxue Iparragirre, Peru Rodriguez eta Ibai Zabalo futbolariak, Aritz Kortabarria txirrindularia eta Alaitz Urkiola rally gidaria.

Botoa emateko, udaletzeko arkupeetan dauden orriak bete behar dira. Orri bakoitzean hiru kirolariren izena adierazi behar da eta bakoitzak orri bakar batez bete dezake. Azken eguna urtarrilaren 20a da. Botatzen dutenen artean, bi lagunendako egonaldi-paketea zozketatuko dute.



LIERNI LEGORBURU

## Literaturaz gozatzen

Patxiko Txerren literatura jaialdia ospatu dute. 40 neska-mutiko inguruk parte hartu dute. Umorea eta irribarrea izan ziren Olaranen nagusi. Gaztetxoek Apika taldearen ipuinekin gozatu zuten. "Afrikako animalia barazkijaleak, Daliren bibotea eta ametsak... bertaratutakoek parte hartu dute eta gozatu dute", dio liburutegiko arduradun Lierni Legorburuk.



AITZOL ITURBE

## Presoen egoeraz jardun dute

Herriar ugari batu zen Rufi Etxeberriak eta Antxon Lopez Ruiz *Kubati*-k eskaini zuten solasaldian parte hartzeko. Euskal Preso Politikoaren Kolektiboaren erabakiak, eragile ezberdinen posizionamenduak eta Europako sententzien eraginak izan zituzten aztergai. Bihar Bilboko manifestaziora joateko dei egin zuten. 15:30ean irtegan da autobusa.





Torresoroa eraikina, uholdeak gertatu aurreko argazki batean. MAIDER ARREGI

## Udalaren jabetza izatera pasatuko da Torresoroa

Hiru eraikin Antzuolako Udalaren esku izatera igaroko dira: Torresoroa, gimnasioa eta gazte txokoa. Hala, orain, Torresoroa konpontzeko lanen deialdia lehenbailehen egin gura du Udalak; maiatzerako lanak eginda eta eraikina zabalik izatea da asmoa

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udal Etxegintza SA enpresa (AUE) desegitea onartu dute abenduaren 27ko ezohiko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko sei botorekin. EAJko bi zinegotzi eta PSEko zinegotzia, aldiz, abstenitu egin dira.

Erabakiak, beraz, Torresoroa, gimnasioa eta gazte txokoa Antzuolako Udalaren jabetzara pasatzea ahalbideratzen du.

"AUEk bere ondasun guztiak saltzen dizkio Udalari, eta, salmenta-transmisio hori egiteagatik, Udalak Gipuzkoako Aldundiari ondasunen balioaren BEZa ordaindu behar dio. Kasu honetan, Udalak bereganatu egiten ditu AUEren izenean zeuden hiru eraikinak: gimnasioa, gazte txokoa eta Torresoroa", argitu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkatea.

Eta, hiru erakinen BEZa, %21, borobilduta, 264.000 euro ingurukoa da. "Gazte txokoaren eta gimnasioaren balioa 312.000 euro ingurukoa da; Torresoroakoa,

berriz, 948.000 eurokoa. Bien batura, beraz, 1.260.000 euro da, borobilduta. Kopuru horren %21, BEZa, da ordaindu behar diona Udalak Aldundiari: 264.000 euro, hain zuzen ere", azaldu du Beñardo Kortabarriak.

Eraikinen balorazioa tasatzailer independenteek egin dutela gaineratu du alkatea. Horrek, baina, bere denbora behar izan duela esan du, ondoren tasazioa Aldundira bidali dute-eta adostasuna edukitzeko.

"Gauzak nola egin erabakitze-ko, une oro Gipuzkoako Aldundiko Ogasun Sailaren laguntza eta aholkularitza izan dugu; eta euren adostasunarekin egin da ondasunen transmisioa. Horrek prozesua luzatu du, baina se-

**TORRESOROAKO LANEN LIZITAZIOA EGIN OSTEAN, MAIATZERAKO ZABALTZEA DA ASMOA**

gurtasuna ere eman digu, dena legez eta txukun egotearen bermea eman digu eta".

### Torresoroako lanak

Torresoroaren balioa jaitsi egin da, uholdeen ondorioz. "Egun, eraikina dagoen egoeran egonda eta balio txikiagoa edukita, erabaki dugu operazio hau egitea", aitortu du Kortabarriak. "Horregatik, EH Bilduk oso egoki ikusten du operazio hau orain egitea; baina baita ere gauzak garbi uzteagatik, bakoitza bere jabetzekin. Gainera, urtero AUeri Eraikinen Alokairua izeneko kontzeptuan ordaintzen zitzaion kopurua ordaintzearekin ere utziko diogu. Diru hori aurrekontuetako gauza arruntetan erabili ahal izango da modu horretan".

Egoera horretan, Udala Torresoroako lanen lizitazioa berme legal guztiarekin egiteko moduan dagoela gaineratu du alkatea eta maiatzerako irekita egoteko helburua ere badutela dio.



### NIRE USTEZ

JON KORTABARRIA BIOLOGOA ETA IRAKASLEA

## Esan eta kontraesan

Urte berriari ez diot ezer eskatzen. Hausnartu baino ez dut egin, gaizki egin ditudan inguruan, haiek aldatzea helburu. Pentsatu dut 2018an gehienok ikusi dugula energia-kontsumoa murriztu beharra; kontrara, hainbati entzun diot argi gutxi izan ditugula Gabonetan. Joan den 2018an, guztiok mindu gintuen Algorriko itsaslabarren hondoa plastikoak pilatuta ikusteak; hala ere, antzera jarraituko dugu plastikoak erabiltzen. Inoren etxe ondoan errauskailurik nahi ez dugula ere zenbaitetan aldarrikatu dugu 2018an; alabaina, geroz eta utzikeria handiagoa ikus daiteke atekoaren inguruan.

Urteroko neguko buruhaustea ere hemen da; ez dago elurrik pistetan, eta guztiok kezkatzen gaitu klima-aldaketak; edozelan ere, kilometro mordo egingo ditugu, eskiatzera joan eta etortzeko. Ditudan kontraesan horien arteko bat aldatzeko saiakeran hasiko dut 2019a. Urte berriak badakit ezetz, baina guztiok egindako keinu txiki bakarrak nabarmen hobetu baititzake gure bazterrak.



BEÑARDO KORTABARRIA

## Mus txapelketa, martxa onean

Abian da Antzuolako mus txapelketa. Asteburuan, bi kanporaketa jokatu dira. Hala, gaur, egubakoitza, Gailur tabernan, 22:30ean jokatu da bigarren kanporaketa. Eta domekan, Gorosti tabernan, 16:30ean, jokatu da laugarren eta azken kanporaketa. Izena egunean bertan eman daiteke. Finala hilaren 19an jokatu da, Arin jatetxean, 16:30ean.

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Lanean hasita dago Elgetako M8 plataforma

Elgetako emakume taldeak deituta, eguaztenean egin zuten M8 plataforma sortzeko batzar irekia. Hamar lagun elkartu ziren eta hainbat ideia irten ziren Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko. Hilaren 20rako egin dute hurrengo hitzordua

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Martxan da Elgetako M8 plataforma. 2018ko martxoaren 8an mugarriz garrantzitsua izan zen, eta argi izanda ere genero berdinketaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako borroka egunerokoa izan behar dela, helburua da 2019ko Martxoaren 8a beste mugarriz garrantzitsua bat izatea.

Eguaztenean egindako batzar irekiaren helburua izan zen Euskal Herriko mugimendu feministak iazko mobilizazioen inguruan egindako balorazioaren berri ematea eta aurtengo deialdirako egiten diren planteamenduak elkarbanatzea. Horrekin batera, lan dinamika bat martxan jartzea. "Akaso, egongo da jendea emakume taldean ez dagoena, baina Martxoaren 8ko lanketan parte hartu nahi duena, eta aldarrikapen konkretu horretan jardun nahi duena. Horretarako sortu da Elgetako Martxoaren 8 plataforma", adierazi dute bultzatzaileek.

**Martxoaren 8a, aurten**

Iazko greba feministak lau ardatz nagusi izan zituen. Alde batetik, lan greba izan zen, bina orduko bi lanuzte deialdi egin baitziren, eta, horrekin batera, zaintza greba, kontsumo greba eta ikas-



Elgeta M8 plataforma sortzeko eguaztenean egindako batzarra. IRATXE BRAVO

## ZAINZA LANEN INGURUAN DAGOEN PROBLEMATIKA IKUSARAZTEA DA HELBURU NAGUSIA

le/hezkuntza greba aldarrikatu ziren. Aurten, 24 orduko lan greba deitzea da asmoa eta, aurreko urteko lau ardatzak mantentzea, pentsionistak ere mobilizazioetara deituta. Zaintza lanekin dagoen problematikari,

bestalde, ikusgarritasun nabarmenagoa eman gura zaio. "Zaintza lanei prestigioa eman behar zaie, eta helburuetako bat izango da dauden egoerak erakustea. Emakume asko egoera oso prekarioan ari dira zaintza lanak egiten, eta bakarrik", azaldu zuten batzarrean.

**Hurrengo batzarra, lotuta**

Elgetako M8 plataformak urtarilaren 20rako, domeka, deitu du hurrengo lan batzarra. Kultura etxeko bigarren solairuan elkartuko dira, 11:00etan.

## Gu Geu: "Aurrekontuak ez du etorkizuneko bidea erakusten"

EH Bilduk auzo-lotsa aipatu du eta nabarmendu ditu oposizioaren pasotismoa eta balorazio automatikoak

**L.Z. ELGETA**

Elgetako Udalak 1.587.521,06 euroko aurrekontua onartu du 2019rako. Horren inguruko balorazioa eskatuta, oposizioak hau adierazi du: "Onartzen dugu egoera ekonomikoak ez duela askorako ematen, eta, horregatik, aurkeztutako aurrekontuak oso teknikoak dira. Pertsonalaren gastuak eta mantentze-gastuak ordaindu beharrekoak dira, eta kopuruak matematikoki irteten direnak dira. Inbertsioetako gastu gehienak —6. kapitulukoak— ez dira inbertsioak, mantentze-gastuak baizik. Aurrekontu honek ez du erakusten etorkizuneko bidea. Ez daukagu argi nora bideratzen duten Elgetaren etorkizuna. Ez da elkarlanean landutako aurrekontua".

Elgetako EH Bilduk ohar bidez eman du erantzuna, eta auzo-lotsa sentitu dutela esan dute.

"Bi Ogasun batzordetan azalpenak eman ditugu, eta proposamenak eskatu dizkiogu oposizioari. Noski 2019rako aurrekontua ez dela elkarlanean egin. Oposizioak ez duelako nahi izan. Erantzuna pasotismoa izan da. (...) Egoera eta karga pertsonalak ulertuta ere aurrekontuak onartu behar diren plenoan oposizioari zinegotzi bat ere ez agertzea harrigarria dela uste dugu". Aurrekontu proiektua ikusten oso erraza dela gaineratu dute. "Udal honetan diru falta badago, ez da sarrera nahikoa ez dugulako, aurreko agintaldietan egindako kudeaketa txarraren ondorioak ordaintzen ari garelako baizik. (...) Milioi bat euro gastatu beharko dugu EH Bildu agintean egon den agintaldi honetan aurreko gobernuak eragindako kalteak ordaintzen".

## 'Orain presoak' manifestaziorako autobusa, 15:30ean

Bihar, zapatua, Bilbon egiteko den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Elgetatik. 17:00etan abiatuko da Sare Herriarrak deitutako manifestazioa, Casillatik. Autobusa 15:30ean abiatuko da Elgetatik eta 20:30ean izango da itzulera. Interesatuak Haizea tabernan eman behar dute izena. Eserleku kopurua bete arte egongo da zabalik.

## Gudarien omenezko Intxortako igoera, domekan

Urteroko igoera urtarilaren 13arekin egingo dute aurten. Elorrioko plazatik abiatuko da talde bat, 09:00etan, eta 11:00etarako egin dute hitzordua tontorrean. Salda eta sagardoa banatu ostean, hitzaldia eta talde argazkia egingo dituzte. Gero, trikitiarekin girotutako txikiteoa egingo dute, 13:00etatik aurrera, Elgetan.

## OHARRAK

### Kantsatzeke

Martitzenean, bazkide zein federatu txartelak, 19:00etan, kultura etxean.

### Haurreskola

Izen-emate kanpaina berria martxan da.

### Podologoa

Kontsulta hilaren 17an izango da. Txanda hartzeko, deitu: 943 76 80 77 (Nati).

## Martxoaren 8ko ekintzak diseinatzen

laz, bi elkarretaratze, erakusketa bat eta Elgetako emakume taldearen aurkezpena egin ziren Martxoaren 8an. Aurtengo egitaraurako ideia batzuk irten ziren eguazteneko batzarrean, baina diseinatzeke daude oraindik. Horretarako deituko dira hurrengo batzarrek. Elgetako plataforma, bestalde, Deba bailarako koordinazio taldearekin harremanetan da.



Martxoaren 8an eguerdian egindako elkarretaratzea, iaz. ELGETAKO UDALA





Ekainean, Murube Larraonatik Kristinoen kobara egindako irteera. KANTSATZEKE MENDI TALDEA

# Mendi taldeak prest du 2019ko irteeren egutegia

Bederatzi mendi irteera izango dira, eta lehenengoa martxoaren 23rako iragarri dute. Adarrara egingo dute mendi buelta eta sagardotegian emango diote amaiera irteerari. Baba-jana eta familiendako bi irteera ere antolatuko dituzte 2019rako

L.Z. ELGETA

Kantsatzeke mendi taldeak hilaen 3an egin zuen urteko batzar orokorra. Astebetara eman dute aditzera urte berrirako gertatu duten irteeren egutegia. Bederatzi irteera iragarri dituzte. Horiei gehitu behar zaizkie familia giroan egiteko antolatuko dituzten beste bi. "Aurten ere

baba-jana egiteko asmoa dauka, eta, Adarrara irteera bat prestatu dugunez, sagardotegi batera joateko aprobeztatzea ere pentsatu dugu", azaldu dute. Hala, irteera guztiak domekarekin izango dira, sagardotegian amaituko dena kenduta, martxoaren 23an". Urteko lehenengo irteera izango da. "Irteera

horretarako aurrez eman behar da izena sagardotegian lekua hartzeko eta autobusa alokatzeko. Sagardotegira joan nahi ez dutenentzat ere ahaleginduko gara joan-etorria prestatzen", azaldu dute.

Gainerakoan, etxetik gertuko hiru tontor daude egutegian: Gorla ekainean, Urko azaroan

eta Intxorta abenduan. Donostialdean, Toloño inguruan, Balmasedan, Bidasoaldean, Durangaldean eta Urbasa inguruan ere ibiliko dira. Irteera horietarako beti bezala funtzionatuko dutela esan dute ohartaraziz aldaketak egon daitezkeela oraindik ere egutegian zein ibilbideetan.

**Bazkide eta federatu txartelak** Urtarrileko martitzenetan mendi taldeko kideak kultura etxeko bigarren solairuan izango dira, 19:00etatik 20:00etara.



Maiatzean Xoxote ingurura familia giroan egindako irteera. KANTSATZEKE M.T.

## Familiendako bi irteera aurten ere

Herriko neska-mutikoen artean mendizaletasuna bultzatzen jarraitzeko 2019an ere familia giroan egiteko bi irteera antolatzeko asmoa dutela jakinarazi du mendi taldeak. Udaberriko eta udazkenerako iragarri dituzte, maiatz eta urri ingururako.

## Irteerak

- **Martxoak 23:** Adarra + sagardotegia
- **Apirilak 28:** San Tirso-Peña del Leon.
- **Maiatzak 26:** Koliitza.
- **Ekainak 16:** Gorla.
- **Uztailak 14:** Manttale.
- **Irailak 22:** Larrano eta Artolako lepoa.
- **Urriak 20:** Maiza.
- **Azaroak 17:** Urko+ baba-jana.
- **Abenduak 25:** Intxorta.

## Hiru adin tartetarako ipuin kontalari saioak, liburutegian

Boluntario taldeak bederatzi saio egingo ditu ikasturte honetan, eta jendea eskatu dute dinamika aberasteko

L.Z. ELGETA

Herriko ipuin kontalari boluntarioak martitzenean elkartu ziren liburutegian egiten dituzten saioek emandakoa baloratzeke eta aurrera begirakoak adosteko. Dinamika aldaketarekin hasi zuten ikasturtea; izan ere, bi adin tartetarako saioak egitetik hiru egitera pasa ziren. Aldaketari jarraipena ematea erabaki dute, nagusiagoak direndako saio berezia egiteak harrera ona izan duela baloratuta. Hala, *Ipuinen ordua* dagoeanean, 17:00etan izango da LH-3tik



Egindako azken ipuin saioa. LIBURUTEGIA

gorako neska-mutikoendako saioa; 17:30ean, 5 urteko gelatik aurrerakoendakoa; eta 18:00etan, berriz, 2-3 urtetik aurrerako umeendakoa.

Boluntario taldeak bederatzi saio egingo ditu ikasturte honetan, eta jakinarazi dute boluntario gehiago behar direla. Umeek egindako *Gu ere kontalari* ekimenak hiru saio izango ditu aurten, eta liburuzainak bi saio berezi egingo ditu Haur Liburuaren eta Liburutegiaren Egunaren bueltan. Ipuin kontalari profesionalak egindako saioak eta tailerrak ere izango dira.

**'Liburu bat opari' zozketa**

Haitz Erostarbe Beristain, Lorea Gallastegi Elorriaga eta Eguzkiñe Gallastegi Olabarria izan dira sarituak. Liburutegiak, guztira, hogeitau liburu gomendio jaso ditu.

## Imanol Albizu 'Goikoetxe'-k erronka bota dio Izeta IV.ari

Erronka da hamar minutuko hiru txanda egitea 125 kiloko kubikoarekin. "Iaz berak aipatu zidan zerbait, baina ni lesionatuta nengoen. Orain, nik bota diot erronka", esan du Imanol Albizuk. Adierazi du pare bat txapelketatan aritu direla batera, eta pare antzean dabilzala. "Kubikoarekin bota diot erronka; bestela, ez luke onartuko; eta niretzat erronka berria izango da". Hodei Iruretagoiena zarautzarrak, berriz, esan du lan gogorra irudituta arren, gogotsu hartu duela. Bihar elkartuko dira bi harri-jasotzaileak erronka formalizatzeke. Asmoa da apirilean jokatzeko, Azpeitiko zezen-plazan.

## Otsailaren 9an izango da III. Mendi Mendia Racing jaia

Auto lasterketetan ibiltzen den elgetar taldeak gertu du urteroko festa eguna. Auto erakusketak, txikiteoa, talde argazkia, bazkaria eta goizaldera arteko kontzertuak iragarri dituzte.

Bazkaria Espaloia kafe antzokian izango da eta txartelak salgai daude Elgetako El Rincon de Lola eta Bergarako Arrano tabernetan. Prezioa 16 euro da eta horren barruan sartzen da kontzertuetarako sarrera ere. Txartelak otsailaren 5era arte egongo dira salgai.

Kontzertuei dagokienez, 21:30ean hasiko dira, antzokian, eta taula gainean izango dira Barne Guda, Demencials eta Brigada Loco. Sarrera 5 euro da.



Udaltzainak eta suhiltzaileak, sua piztu zen atariaren aurrean, urtarrilaren 5eko goizean. MIREIA BIKUÑA

## Sua zerk eta nola piztu zen ez da argitu oraindik

Udalak bere jabetzakoak diren hiru etxebizitza eskaini die Maiatzaren Bata plazako atari horretan bizi ziren familiei, eta batek onartu du dagoeneko. Hilabete pare bat pasa beharko dute etxetik kanpo, gutxienez, egurrezko egiturak kalteak ditu eta

### Oihana Elortza OÑATI

Bere jabetzakoak diren hiru etxebizitza eskaini die Oñatiko Udalak urtarrilaren 5ean suagatik euren etxebizitza utzi behar izan zuten herriko hiru familiei.

### Elkarlanean aritu dira

Hilaren 5ean goizaldean piztu zen sua Maiatzaren Bata plaza-

ko etxebizitza batean, taberna gainekoan. Sugar handirik ez zen sortu, baina bai kea, eta han bizi ziren hamabi bizilagun artatu behar izan zituzten suhiltzaileek, zazpi ume eta bost heldu. Sua zerk piztu zuen ez jakin arren, momentuan konturatu ziren suhiltzaileak etxebizitzaren egurrezko egitura nahiko kaltetuta gelditu zela. Ordu-

tik hona, etxetik kanpo egon dira hango hiru familiak, ostuetan eta senide eta lagunak etxeetan. Udalak gertutik jarraitu du gaia eta kaltetuak izan diren familiei egonlekua eskaintzeko gestioak egiten ibili da; izan ere, hilabete pare batez, behintzat, etxera sartu ezinda egongo dira atarian bizi ziren hiru familia horiek. Gizarte

Zerbitzuetako teknikari Itxaro Leibarren esanetan, Jaurlaritzarekin batera aritu dira familiendako irtenbidea bilatzen.

Mikel Biain alkateak adierazi duen moduan, martitzen arratsaldean bilera bat egin zen Alokabiden eta horren zain egon ziren, familiei informazio zuzena emateko. "Sutea gertatu eta hurrengo orduetan egindako pausoetako bat izan zen Alokabidarekin harremanetan jartzea eta proposatzea Udalarenak diren hiru etxebizitza, egun lagapen sistemaren bidez Alokabiden daudenak, larrialdi egoera honetan familia horiei eskaintzea. Bilera horretatik baiezkua etorri zen eta eguaztenean proposatu zitzaizen hiru familiei epe baterako etxe horietara joatea. Batek onartu du dagoeneko eskaintza; ostatu batean egon dira orain arte. Ongizate batzordean landu dugu gaia eta zehaztasunak eman dira eta orain helburua da beste biek egon eta hitz egiten jarraitzea. Baina oraindik, eguen eguerdian, ezin dugu konfirmatu eskaintza onartu dutenik", adierazi zuen Biainek atzo. Udalak familiei eskaintzako etxebizitzetako bi Zubillagan daude eta bat Olabarrietan.

### Hitzarmena egingo dute

Eskaintza onartzen duten familiekin, prestatzen ari diren hitzarmena sinatuko du Udalak. "Batez ere, kalteak izan dituen etxearen obrari egongo da baldintzatuta hitzarmen hori. Aurreikusten da hilabete pare baten bukatuko dituztela lanak. Ez dira kalte larriak izan eta behin-behinekoz erabiltzeko moduko lanak egingo dituzte lehenengo. Malgutasunez jakotuta, uste dugu hiru hilabetetan egingo dituztela egin beharreko

lanak. Epe horretan bukatuta egongo direla", dio Biainek.

### Sutearen arrazoia

Sutea zergatik edo nola piztu zen ez da oraindik argitu, baina horretan dihardute. "Suhiltzaileekin ez dugu apenas harremanik. Euren euren txostena egin zuten eta Ertzaintza ari da orain azterketa horrekin. Egia esan, ez dugu aparteko informaziorik horren inguruan. Dakiguna da, hasiera batean koadro elektrikoak sortuko zela zirudien arren, sua ez zela han piztu. Baina bai eraikinaren atzeko aldean. Nola edo zergatik piztu zen, baina, oraindik ez dakigu", gaineratu du alkateak.

### Atari barrua kaltetu du suak

Bizilagunek, gutxienez, bi hilabete pasa beharko dute etxetik kanpora. Hori da peritu teknikoak zehaztu duen denbora, Oñatiko suteak kaltetutako baloratu ostean. Egurrezko azpiegitura dago bereziki kaltetuta Maiatzaren Bata plazako eraikinean. Urtarrilaren 5ean izandako suteak bereziki kalte dituen etxearen ataria, lehenengo solairura arteko eskailera eta lehenengo solairuko eskailera-burua. Egurrezkoak guztiak. Horiek konpontzea izango da lanik astunena.

Pasa den zapatuan, hilak 5, goizaldean -03:25-, piztu zen sua. Suhiltzaileak, Ertzainak eta ambulantiak segituan bertaratu ziren.

### ATARIA ETA LEHENENGO SOLAIRU ARTEKO ESKAILERA KALTETU DITU, BEREZIKI, SUAK

## Txiki Txoko doan da 18.000 euro arteko errenta duten familientzat

Bertan seme-alaba bat dutenek ez dute ezer ordaindu beharko hurrengoak matrikulatzeko orduan

### O.E. OÑATI

Partzuergoko haur eskoletan irizpide berriak aplikatuko dira aurtendik aurrera, eta, ondorioz, baita Oñatiko Txiki Txokon ere. Hala, Txiki Txoko haur eskola doan izango da 18.000 eurora

arteko errenta duten familientzako. Gainera, bertan seme-alaba bat dutenek ez dute bigarrenaren edo hurrengoaren matrikula ordainduko. Berritasun horietatik dira urtarrilaren 1ean indarrean sartu zirenak.

Oñatiko Txiki Txoko haur eskolan urte guztian zehar onartuko dute 0-2 urte bitarteko hauren matrikula, lekua dagoen bitartean, horretarako baimen berezia eman baitzuen partzuergoak berak. Gurasoek bost ordura arte edo bost ordutik gorako egonaldia hautatu dezakete eta zerbitzua 07:30etik 18:00etara da.

Irizpideen, baldintzen eta zerbitzuaren gaineko argibideak, nolahi, eskolan emango dizkiete interesa duten gurasoei.

## Zabalik dago Oñatiko Udala Grant beka eskatzeko epea

Oñatiko Udalaren eta Lege Soziologia Institutuaren arteko lankidetzak hitzarmenaren ondorioz sortutako beka da eta Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizarte zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketa proiektuak sustatzea da helburua. Eskaerak hilaren 31 aurretik egin behar dira, Lege Soziologia Institutuko webgunean.

## Extremadurako doinuak entzungai gaur Lagun Lekun

Ez dira geldi egotekoak Lagun Leku erretiratuen elkarteak kideak, eta urte berrian ere ekintzak egiten jarraituko asmoa dute. Gaur, egubakoitza, esaterako, Sonas de Extremadura taldeak joko du. Elkarrekin bertan duen lokalean izango da, 18:00etan. Oraingo honetan ere, herritar guztiak daude emanaldiaren gonbidatuta.



# Turisten kopuru ona mantentzea da erronka

Turismoak %16ko igoera izan du Oñatin 2018an. Hori mantentzea eta hobetzea da orain Udalaren erronka, "masifikazioan erori gabe eta jasangarritasuna mantenduz". Herriko produktuen txokoa ere izan gura du aurrerantzean Turismo Bulegoak

## Oihana Elorta OÑATI

Turismoak %16ko igoera izan zuen Oñatin joan den urtean. Txokolateixiak izan du igoera handiena, %63 gehiago, eta Arrikruzen orain arteko datu onenak lortu dituzte -16.566 bisitari-. Gipuzkoako eta Euskadiko turismo bulegoek ez bezala, Arantzazukoan zein Oñatikoan jaso dituzten bisitarien kopuruak ere gora egin du. "Oñati urteetan bultzatzen ari den kalitatezko turismo eta turismo jasangarriaren emaitza" dela dio Sozioekonomia zinegotziak, Ana Martinek. Eta gaineratu du hemendik aurrera ere bide horretan jarraituko dutela.



Bisitari talde bat Arrikruzeko kobara sartzen 2017ko udan. GOIENA

## Hurrengo pausoak

Izan ere, datu "on" horiek mantentzea eta, ahal dela, hobetzea izango da hemendik aurrerako erronka nagusia Udalarendako, eta hori orain arteko ereduari eutsiz lortu gura dute. "Ez dugu turismoa masifikatzerik gura eta Donostian sortu den egoerara heldu, esaterako. Kalitate marka badugu eta jasangarritasuna izango da gero ere oinarri sendoetako bat", zehaztu du Ana Martinek.

Baita Oñati ezagutzera datozen bisitarien proposamen eta eskaerak lantzea ere. "Esaterako, eskaera horietako bat da herrian zerbitzu gehiago egotea zabalik edo erabilgarri. Udako opor egunetan etorri diren turistengandik jasotako proposamena da hori. Guk kontuan hartuko dugu eta horri nola erantzun aztertuko dugu", gaineratu du Sozioekonomia zinegotziak.

Bitartean, lanean jarraituko dute, orain arte bezala, eta Oñatiko Turismo Bulegoan herriko produktuen erakuslehi izaten ahaleginduko dira. Oñati gehiago ezagutarazteko *merchandising*-a indartu egingo dute eta Arrikruzeko lehoia izango da sasoi berri horretako irudi na-

## ARRIKRUTZEKO LEHOIA IKUSIKO DEN PRODUKTUAK ATERAKO DITUZTE AURTEN

gusienetako bat. 52 urte pasa dira Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok haitzuloan galduta zeudela lehoia aurkitu zutenetik. Gipuzkoako Aldundiaren gordailuan daude hezurak, eta orain, bi erakusketatan ikusgai egoteko atera dituzte: Burgosen dagoen Giza Ebulzioaren Museoan egon da 2018an eta otsailaren 10era arte Donostiako San Telmo museoan dago. Aranzadi Zientzia Elkartek liburua kaleratu du, lehoi horri buruzkoa. "Asko hitz egin da, azkenaldian, Arrikruzeko lehoiari buruz, eta aurten aterako ditugun produktuetan agertuko da animalia hori", aurreratu du Martinek.

## Hirugarrena, Txokolateixia

Iazko datuetan ikusten den moduan, herriko bisita gidatuak ere igo egin dira eta Txokola-

teixia ikustera joan diren bisitariak ere asko izan dira. Izan ere, Santic Spiritus unibertsitatearekin eta San Migel parrokiarekin batera, herri barruan bisitatu beharreko beste elementu bat izatera heldu da txokolatearen interpretazio zentroa. "Udalaren, Oinatur kooperatibaren eta Txokolateixiaren arteko elkarlana da eta aurrerantzean ere elkarrekin aritzea da asmoa", zehaztu du, astean, Sozioekonomia zinegotziak.

## Fiturrera doaz

Kanpotik datozen bisitariak hartzen dituzten bitartean, beste herri edo herrialde batzuetan turismoa nola lantzen duten ere aztertzen eta kontuan izaten dute Oñatiko turismo langileek. Eta horren adibideetako bat izaten da urtero Madrilen egiten den Fitur azoka. Urtarrilaren 23an hasiko da aurtengoa eta hara joango dira Oñatiko Udaleko eta Oinatur kooperatibako ordezkariak. Oñati beste herrialde batzuetako turismo ordezkariak erakustea, ezagutaraztea, eta hango esperientziak ezagutzea izango da bisita horren helburu nagusia.

## Astean birritan egingo dituzte Inauterietako dantzen entseguak

Martitzenetan eta zapatuetan izango dira, Eltzian, eta herritar guztiak daude parte hartzera gonbidatuta

## O.E. OÑATI

Martxoaren 2an ospatuko dira Aratusteak Oñatin, eta Oñatiko Inauteriak taldeak dagoeneko martxan du prestaketa lana. Aurten ere, herriko kaleak kolorez eta umorez betetzea izango du helburu egun horretan, eta hori lortzeko lanean hasita daude.

Aste honetan hasi dituzte entseguak. Martxoaren 2a bitartean, astean bi egunetan egingo dituzte, biak Eltzian: martitzenetan 20:00etan eta zapatuetan 12:00etan. Aurtengo Aratusteetan

ahalik eta herritar gehien elkartzea eta guztien artean dantzan ospatzea izango da helburua, eta, hori lortzeko, herritar guztiendako dago zabalik entseguetan parte hartzeko gonbidapena. Dantzariet gain, antzezleak ere egingo dira martxoaren 2ko ospakizun egunean, eta, inor antzetzten dantzan baino hobeto moldatzen bada, hor ere izango da aukera Inauterietako parte izateko. Oñatz dantza taldekoen laguntza izango dute animatzen diren herritarrek dantzak ikasteko.

## Korrika antolatzen hasteko bilera egingo dute eguaztenean

Apirilaren 4an abiatuko da Korrika 21, Garestik, eta 14an iritsiko Gasteizera. Oñatitik apirilaren 13an pasako da, 12:00 aldera, eta, ekitaldiari ongietorria egiteko eta nola ospatu edo zer egin erabakitzeko, bilera egingo dute datorren astean. Hilaren 16an izango da, 18:00etan, Euskaldun Berria gelan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

## Gaur egingo dute urteko lehen odol ateratzea

Oñatik odol emaileen elkarteak deituta, odol ateratzeak egingo dira aurten ere herrian. Ohitura den moduan, Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen Enpresagintza Fakultatean izango dira odol ateratzeak, 17:00etatik 19:00etara. Hilean behin egingo dituzte, abuztuan salbu, eta urteko lehendabizikoa gaur, egubakoitza, izango da.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Zaborra, edozein modutan botata

Motxon kalean ateratako argazkia da. Hondakinez betetako zabor poltsa hori errekarra botatzea ote zen asmoa galdetu du oñatiar batek. Edukiontzia erabiltzeko daudela gaineratu du.



Aimar Erostarbe, abenduaren 16an jokatu zen Oñatiko lasterketan. IMANOL SORIANO

# Altube eta Erostarbe, Espainiako txapelketara

Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean jokatu da, Pontevedran (Galizia), Espainiako ziklo-kros txapelketa eta han izango dira lehian, Euskadiko maillotarekin, Aitor Altube eta Aimar Erostarbe oñatiarrak. Zapatu arratsaldean dute lasterketa

## Oihana Elortza OÑATI

Asteburu honetan jokatu dute, Pontevedran (Galizia), ziklo-kroseko Espainiako txapelketa, eta bi oñatiar izango dira lehian kadete mailan Euskadi ordezkatu duen taldean: Aitor Altube eta Aimar Erostarbe.

## Zirkuitua laua da

Gaur, egubakoitza, hasiko da txapelketa, baina eurek bihar, zapatua, arratsaldean dute lasterketa. "Ez dugu zirkuitua ezagutzen, baina ez da oso teknikoa, laua da. Hala ere, zapatuko lasterketa egin aurretik joango gara ibilbidea nolakoa den ikustera", dio Aimar Erostarbek.

Bigarren aldiz lehiatuko da Erostarbe ziklo-kroseko Espainiako lasterketan. "Pozik" eta "gogotsu" doala aitortu du, nahiz eta "maila handia" egongo dela jakin. Aitor Altuberendako, berriz, lehen aldia izango da. Bere aitak, Mariano Altubek, Espainiako txapela irabazi zuen Ordizian izandako proban, 1975ean.

Hark ere badu asmoa asteburuan Pontevedrara joan eta txirrindulariak animatzeko.

## Disfrutatzea helburu

Arrikruz-Kobak Aloña Mendi ziklo-kros taldeko Ruper Arkauzen esanetan, Erostarbek eta Altubek aukerak dituzte txapela buruan dutela bueltatzeko. "Egia da Espainiako txapelketa dela eta gainerako txirrindulariak ere onak izango direla, baina bi hauek maila oso handia dute, txapeldunak izateko besteak".

Aurreko asteburuan bukatu zen ziklo-kros denboraldia, eta balorazioa "oso ona" dela adierazi du Arkauzek. "Ander Blazquezek eta Aritz Torresek gura

## HERRIKO ZIKLO-KROS TALDEAK EGIN DUEN DENBORALDIA "OSO ONA" IZAN DELA DIO RUPER ARKAUZEK

baino gutxiago disfrutatu dute, osasun arazoengatik ezin izan dute eta denboraldi osoa egin, baina, orokorrean, balorazioa oso ona da. Pozik gaude. Esango nuke behetik gora egin dutela taldeko txirrindulariek".

Emaitzak emaitza, "oso pasatzea eta, batez ere, disfrutatzea" izaten da herriko ziklo-kros taldearen helburua, eta hori lortu dutela uste du Arkauzek: "Gustura ikusi ditugu txirrindulariak. Euren garrantzitsua izaten da lasterketa ona egitea eta aurrean amaitzea, baina ikusi dugu disfrutatu dutela, eta gu horrek pozten gaitu".

## Otsailean, errepidera

Ziklo-kros denboraldia bukatuta, pistako lasterketak alde batera utzi eta errepidekoak prestatzen hasiko dira laster Aloña Mendiko txirrindulariak. Otsailaren amaieran hasiko da errepideko lasterketen denboraldia eta ordurako prest egotea da euren asmoa.



Erle eta Biain, Zubikoako frontoian, partidua jokatu ostean. ALOÑA MENDI

## Gipuzkoako txapela lortu dute Biainek eta Erlek pilotan

Zubikoan jokatu zen finaleko partidua abenduan, eta, finalera iritsita, mailaz igotzea ere lortu du bikoteak

## O.E. OÑATI

Finalera helduz gero mailaz igoko ziren Ander Biain eta Iñigo Perez Erle, eta, finaleko partidua irabaziz gero, txapeldun bihurtu. Eta biak lortu zituen bikote oñatiar horrek. Abenduaren 21ean jokatu zuten finaleko partidua Zumaiako beste bikote baten kontra; irabazi egin zuten (22-7), eta Gipuzkoako txapeldunen saria eskuratu.

## Bigarren mailara

Aloña Mendik berak eskatu zuen finala Oñatin jokatzeko, eta hala izan zen; Zubikoa kiroldegiko frontoian jokatu zuten, abenduaren 21ean. "Zumaiako bikoteko kideetako batek min hartu zuen bezperako egunetan eta ordezkoko batek jokatu zuen finala. Gu ere ondo aritu ginen, eta, azkenean, dezenteko aldearekin amaitu zen partidua. Oso pozik gaude", dio Ander Biainek.

Joan den urtean ere jokatu zuten txapelketa hori Biainek eta Erlek, baina ez zuten zorte bera izan. "Laurdenetara heldu bai, baina kanporatuak izan ginen", gogoratzen du Biainek. Aurten, aldiz, partidua irabazi eta Gipuzkoako txapeldunak izateaz gain, mailaz igo dira. "Senior mailan jokatu dugu azken bi urteetan, eta datorrenean, irailean hasiko den denboraldian, bigarren mailan lehiatuko gara", dio Ander Biainek.

## Lau t'erdikoa eta herri artekoa

Hemendik eta udara bitartean beste bi hitzordu ditu buruan Biainek. "Udaberrikoan ez dut parte hartuko, baina bai lau t'erdikoan eta herri artekoan", aitortu du. Bitartean, ohiko entrenamendu saioak egiten jarraituko duela aurreratu du: "Astean behin, behintzat, bai; eta, batzuetan, birritan".

## Aurkari zuzenaren kontra lehiatuko da Fagor Industrial bihar

Txikipolit taldearen aurka jokatu du Fagor Industrial Aloña Mendi eskubaloi taldeak bihar, zapatua, hilak 12, Zarauzko kiroldegian. Norgehiagoka lehiatua izango dela jakinekoea da, sailkapen orokorrean lehenengo eta bigarren postuetan daude eta. Hain zuzen ere, talde biek puntu kopuru bera dute, 22.

Asteburuko partidua horrek emango dio, gainera, bigarren itzuliari hasiera. Denboraldiaren lehen partidua irailaren 30ean Zubikoan jokatu zuten talde biek eta orduko hartan 22 gol sartu zituen talde bakoitzak; berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka. Orduetik hona, txukun ibili dira talde biak eta horren emaitza da sailkapeneko lehen bi postuetan daudela Zarauzko zein Oñatiko taldeak. Bistan denez, partidua gogorra izango da biharkoa.





Psikologia irakurle taldearen lehen saioa. MAIALEN REGUEIRO

# Nork bere zalantzak argitzeko saioak, abian

Asteon eman diete hasiera psikologia irakurle taldearen saioei, eta aurrerantzean zazpi saio egingo dituzte. Hilabetero, psikologia arloko liburu zein testu batean jorratzen diren gaiak landuko dituzte, Silvina Fondra psikologoak gidatuta

**Maialen Regueiro** OÑATI

Duela zortzi urte sortu ziren, Oñatiko Udal Liburutegian, gaur egun martxan jarraitzen duten hiru irakurle taldeak: Tertulixan –euskarazko eta gaztelaniazko saioak dira–, batetik, eta umene irakurketa kluba, bestetik. Horietan, hilabeteroko saioak egiten dituzte, eta, hain zuzen,

psikologia irakurle taldearen asmoa ere dinamika berarekin jarraitzea da.

**Esparru zabala**

Arantzazu Ibarrodok, Udal Liburutegiko arduradunak, adierazi du liburutegiko esparrua oso zabala dela; izan ere, liburuak egoteaz gainera, diskoak eta

pelikulak ere badaude, besteak beste, eta, hori dela eta, beste ekintza batzuk egiteko ahalmena dagoela.

**Silvina Fondra gidari**

Silvina Fondra argentinarra da eta uztaila ezkerre Oñatin bizi da. Psikologia ikasketak ditu eta Argentinan horrelako dina-

## Zabalik dago Argi festibalean parte hartzeko deialdia

'Paisaia eta identitatea' gaia duten proiektuak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 29a izango da

**M.R. OÑATI**

*Argi Arantzazu 2019* aurkeztu dute Argi festibalak eta Arantzazu Gaur Fundazioak. Festibal horren helburua da aurkezten diren lan guztietatik bi aukeratzera, apirilaren 12tik maiatzaren 12ra Arantzazuko Gandiaga Topagunean binakako erakusketan erakusteko. Aurtengo gaia *Paisaia eta identitatea* da eta 2018ko abenduaren 19az geroztik proiektuak aurkezteko aukera dago; horretarako azken eguna urtarrilaren 29a izango da. Parte hartzeko,

adinez nagusi izan behar da eta ezinbestekoa da proposamena egoki beteta bidaltzea, euskaraz edota gaztelaniaz.

**Epaimahaia**

Aurtengo edizioan lau kidek osatuko dute epaimahaia: Juan Biainek, Arantzazu Gaur Fundazioko Kudeaketa arduradunak; Itziar Bastarririkak, argazkilari eta ARGi festibalaren zuzendari artistikoak; eta Jon Cazenavek eta Lurdes R. Basoliek, argazkilari eta Argi Arantzazu 2019ren komisarioek.

**Sariak**

Erakusketari dagokionez, Argi festibala eta Arantzazu Gaur Fundazioa arduratuko dira aukeraturako lanen erakusketako bikoitza egiteaz. Aurrekontuari dagokionez, gehienez, 2.500 euro edukiko dituzte, eta, zifra hori gaindituko balitz, gainontzeko gastuak egilearen kontura izango lirarteke.

Egoitza artistikoari dagokionez, berriz, aukeraturako lanen erakusketak proposamena Arantzazun bi aste egonaldi artistikoaren esparruan kontzeptualizatuko da. Hala, sortze-prozesuaren jarraipena eta azken azalpen gainbegiratuak Jon Cazenavek eta Lurdes R. Basoliek egingo dute. Gainera, egileek bi lan-saio izango dituzte testuinguru artistikoan ospe handia duten profesionalekin.

## "Parte hartzaileek dituzten zalantzak argitzeko proposa da"

**SILVINA FONDRA** PSIKOLOGOA

Silvina Fondra argentinarra da, baina uztailaz geroztik Oñatin bizi da. Psikologia ikasketak egin ditu eta Argentinan hori izan da haren lanbidea; hain zuzen, hura izango da irakurle talde horrek egingo dituen saioen gidaria.

**Nolatan egin zenuen egitasmo honen proposamena Udal Liburutegian?**

Argentinan, horrelako saioetan parte hartu izan dut ikasketak egin nituen unibertsitatean, eta Oñatin horrelakorik egiten ote zen galdetu nuen. Interesgarria iruditzen zait herritarren artean horrelako dinamika egitea.

**Zein gai jorratuko dituzue?**

Liburuak zein testuak irakurri ahala, gai desberdinak irtengo dira, eta, hain zuzen, horietatik landuko ditugu. Edozelan ere, saioetan parte hartzen ari den norbaitek beste gairen bat



M.R.

proposatzen badu, ongi etorria izango da.

**Saioetako parte hartzaileetatik zer espero duzu?**

Parte hartzaileak eroso sentitzea gustatuko litzaidake, eta, bereziki, dituzten zalantzak argitzeko erabilgarria izatea. Nork bere esperientziak izango ditu, baina horiek gainontzekoekin partekatzea interesgarria dela iruditzen zait, eta, modu horretan, tailer ireki bilakatzea da asmoa.

miketan parte hartzen aritu da. Oñatin horrelako ekintzarik ez zegoela ohartu zenean, proposamena helarazi zuen liburutegira. Asteon egin dute lehen saioa, eta, aurrerantzean, hilabetero elkartuko dira.

**HILABETERO ELKARTUKO DIRA ETA ASMOA DA ZAZPI SAIOA EGITEA, GUZTIRA**

## Magia eta umore ikuskizuna Antixenean Ekain-Txouren

Haur, gazte zein helduentzako ikuskizuna eskainiko du Ekain-Txou pailazo azpeitiarrak domekan, Antixena gaztetxean, 18:00etan hasita. 2 urtetik beherakoek sarrera doan izango dute, baina gainontzekoek hiru euro ordaindu beharko dute. Sarrerak aurrez eros daitezke, Mizke eta Kiku gozoki dendetan, baina egunean bertan ere Antixena gaztetxean erosteko aukera egongo da.

Ekain Ibarguren da pailazoaren berezko izena, eta 2016an sortu zuen pertsonaia. Ordutik, sudur gorria jantzi eta Euskal Herriko hainbat herritan ari da, magia eta umorea uztartzen dituen emanaldia erakusten.

## 'Superlópez' filma ikusgai asteburuan zinema aretoan

*Superlópez* filma ikusteko aukera ugari egongo dira asteburu honetan Oñatin. Izan ere, haurrentzat zein nagusientzat film bera egongo da ikusgai, eta lehen hitzordua gaur izango da, 22:30ean, Oñatiko Zinema aretoan. Bihar, emanaldi bikoitza izango da –17:00 eta 22:30– eta domekan, berriz, hirukoitza –17:00, 19:30 eta 22:30–. Astelehenekoa azken emanaldia izango da, 19:30ean.

Filma izen bera duen komikian dago oinarrituta eta heroia historia kontatzen da komedia bidez. Dani Rovira, Alexandra Jimenez, Maribel Verdu eta Julian Lopez dira, besteak beste, protagonista nagusiak.

X. Urzelai / E. Azkarate BERGARA

Entrenatzailea estreinatzaileak zortea dakarren esaera berretsi ahal izan zuten realzaleek joan den domekan, Bernabeun Imanolen mutilek *merengeei* 0-2 irabazi eta gero. Eta, kolpe bakarrean, garaipen horrek Realaren zuzendaritzak Gabonen bueltan hartutako erabakia –prezipitatu, askorendako– isilarazi du. Imanolen debutaren aurretik, GOIENA bederatzirentzako Realako kontseiluko kide izan den Juanjo Arrietarekin eta kargu berean urtebete daraman Javier Igartzarekin izan zen. Asier Garitano izan zuten berba, baina baita Realaren gaineko beste zenbait gai ere, barrutik ezagutzen dute-eta klub txuri-urdina.

**Bidegabekoa izan da Asier Garitanoren kaleratzea?**

**Juanjo Arrieta:** [Hasperena] Ikusten dut galdera zailenarekin hasiko dugula elkarrizketa. Bai, nik uste dut bidegabekoa izan dela Asierren kaleratzea. Futboleko partiduak galtzen badituzu, zaleek segituan egiten dute entrenatzailearen kontra. Baina kasu hau salbuespena izan da, Anotako zaleek oraindik ez zutelako Garitanoren kontra nabarmen egin. Akaso, bai berdegunean zeuden hainbat jokalariren kontra, baina ez entrenatzailearen kontra; nabarmen ez, behintzat. Eta, Asier bergararra izanda, Bergarako realzaleek ez dute erabakia batere ondo hartu, herrian maitatua delako. Hemen min egin du erabaki horrek.

**Javi, barrutik zelan bizi izan duzue egoera?**

**Javier Igartza:** Hasteko, uste dut Asierrek dena izan duela kontrarioaren Realen, ez du zortirik izan. Lesionatu mordoa izan ditu, eta aste askotan filigranak egin behar izan ditu hamaikako lehiakor bat zelairatzeko. Hortik aurrera, emaitzak ez dira nahi modukoak izan, eta, bereziki, abendua oso txarra izan zen. Orain, bidegabekoa izan den Asierren kaleratzea? Ez dut erantzun egoki bat emateko nahikoa informazio, baina, pertsonalki, pena handia hartu dut.

**Kanpotik, baina, erabakia azkarregi hartu ote den sentsazioa egon da. Etxekoekin pazientzia gutxi izango bagenu moduan.**

**J.I:** Akaso, beste entrenatzaile batzuekin zuzendaritzak pazientzia handiagoa izan du, baina kirol zuzendaritzatik garbi zuten



Juanjo Arrieta eta Javier Igartza, joan den zapatuan, Bergarako Sagarpe elkartearen. XABIER URZELAI

# "Etxeko entrenatzaileekin ez dugu izaten pazientziarik"

**JUANJO ARRIETA ETA JAVIER IGARTZA** REALEKO KONTSEILUKO KIDE OHIA ETA KIDEA **FUTBOLA** Real barrutik ezagutzen duten bi bergarrek Garitanoren kaleratzearen gainean egin dute berba, eta klub txuri-urdinaren gaineko errebasoa egin dute

ez zela Realaren etorkizuneko entrenatzailea. Hori izan da erabakia hartzeko motibo nagusia.

**Horregatik, barruan zerbait arraroa gertatu den susmoa izan dute zaleek eta kazetariak... Harreman txarra jokalariekin, bigarren entrenatzaileekin...**

**J.A:** Bigarren entrenatzaile Ruben de la Barrerak aste batzuk lehenago Real uztea erabaki zuen, eta halakoak ere susmoak zabaltzeko oso aproposak dira. Baina erabaki hori ulertzekoa

ere bada, Ruben Qatarrera joan delako entrenatzaile moduan eta hango kontratuak hemengoak baino dezente hobekak izaten direlako. Nik, esaterako, garbi daukat Asierrek eta Rubenek [De la Barrera] ez dutela inongo arazorik izan.

**Baina oso estilo diferenteko entrenatzaileak dira.**

**J.A:** Batzuetan, futbolaren gainean ikuspuntu ezberdinak izan eta hainbat ideia komunean izatea ez da txarra izaten. Horrek kontrarioa ikuspuntu ezberdineta-

tik aztertzeko aukera ematen dizu. Hau futbola da, ez zientzia fikzioa.

**J.I:** Nik, hain zuzen, badakit ze helbururekin fitxatu zuen Realak Ruben de la Barrera. Entrenatzaile ezberdina delako ekarri zuten Realera, eta, gainera, Asierrek bere ikuspuntua beste norbaitenarekin alderatu gura zuen, aurreko etapetan izandako lantaldean ez zuelako halakorik izan; kirol zuzendaritzatik proposamena egin ziotenean, badakit begi onez ikusi zuela.

**Azken hamarkadan Realak estilo oso ezberdinetako entrenatzaileak kontratatu ditu. Kanpotik informazio asko falta zaigu, baina zuzendaritzak garbi dauka zer-nolako Real gura duen?**

**J.A:** Entrenatzaile bakoitzak bere liburuxka izaten du, garbi dago hori. Denak ez dira berdinak, inondik inora. Gu sartu ginenean, Juanma Lillo zegoen, eta hura ezberdina zen. Gero, Moyes, Montanier, Eusebio... Beste estilo bat zuten, bakoitzak berea, eta lan egiteko modu propioa. Eta bakoitzak emaitza ezberdinak batu zituen.

**J.I:** Nik Realean daramadan denboran ikusi dudana da entrenatzaile bat fitxatu denean fokua jarri dela entrenatzaile horrek futbola ikusteko daukan moduan. Eta Asier fitxatutakoan ere hor jarri zen indarra: filosofia konkretu batekin lan eginda taldeak progresio bat izan zezala. Gero, zirkunstantziak izan dira izan direnak.

**Juanjo, Jagoba Arrasaterekin ere ez zenuten pazientzia handirik izan, ala?**

**J.A:** Egia da. Eta uste dut gipuzkoarrok garen modukoak gare-lako gertatzen dela hori. Entrenatzaile ingeles bat, frantses bat edo hegoamerikar bat ekartzen badugu, pazientzia handiagoa izaten dugu, orokorrean. Etxekoei ez diegu bakarrenean barkatzen, eta hau gertatu da Jagobarekin [Arrasate], Asierrekin [Garitano] eta, seguruenik, Lilloarekin [Juanma] ere bai. Gero, egia da talde oso gutxi daudela etxeko entrenatzaileekin lan egiten dutenak. Eta, bestalde, oso zaila da *cache* handiko entrenatzaileak gurera ekartzea; Emery moduko bat, esaterako. Hasteko, dauden lekuan hemen baino lau aldiz gehiago kobratzen dabiltzalako, edo denak ez daudelako prest harrobiko jokalariren aldeko apustu serioa egin eta fitxaketa gutxi egin behar direla onartzeko... Realera halako mailako entrenatzaile bat etortzeko, entrenatzaileak berak interes handia izan behar du, eta gauza asko utzi behar ditu alde batera.

**J.I:** Ni ados nago Juanjok esan duenarekin, baina ez dut uste hori gipuzkoarroi bakarrik gertatzen zaigunik. Seguru Madril oso entrenatzaile onak daudela, eta harrobietan oso jokalaririk izan dituztela, baina, ez dutenez brasildar baten *cache*-rik, bada... Errazago egiten da kan-



potarren aldeko apustua, askotan ilusioa delako saldu behar den hori.

**Komentatu den beste kontu bat da Realaren partetik Asierren agurra oso hotza izan zela.**

**J.I:** Baina ez Asierren kasuan bakarrik, Eusebiorena ere antzerakoa izan zen; entrenatzaile berria aurkeztu zen, eta ez zen askoz gehiagorik egin. Hori hobetu egin beharko genukeela? Bada, seguruenik, bai.

**Javier, kontu izaguzu, ahal duzuneraino, behintzat, zelan hartu zenuten Asier kaleratzearen erabakia.**

**J.I:** Kirol zuzendariak [Roberto Olabe] klubaren kontseiluaren aurrean beharrezko azalpenak eman zituen, zergatik uste zuen Asierrek ez zuela Realeko entrenatzaile izaten jarraitu behar. Eta erabaki horren gainean kirol zuzendariak berak hainbat mediotan onartu du bere akatsa izan zela Asier kontratatzea. Ikusitakoak ikusita, ez zuelako uste etorkizunean Rearendako entrenatzaile egokia zenik. Ondoren, gai horren gainean eztabaidatu egin genuen kontseiluko kideok, eta erabakia hartu zen. **Erabakia aho batez hartu zen?**

**J.I:** Ez; gehiengo batek iritzi bat zuen, baina baziren beste ikuspuntu batzuk ere.

**Zuretako, bereziki izango zen erabaki gogorra.**

**J.I:** Asier aspaldiko laguna dut, Castello inguruan entrenatzen zebilen garaitik ezagutzen dut, eta ez, ez dira egun errazak izan. Baina Realeko Kontseiluko kide zaren momentuan, halakoak ere onartu egin behar dira.

**Zuk ze iritzi duzu, Juanjo?**

**J.A:** Nik zuzendaritzak hartutako erabakia errespetatzen dut, baina ez dut partekatzen, ez nator bat hartutako erabakia-ekin.

**Asierren kaleratzea alde batera utzita, Juanjo, Aperribayrekin batera iritsi zinen Realera. Eta hamarkada honetan Realaren egoerak hobera egin du nabarmen.**

**J.A:** Nik ez daukat zalantzarik, baina Kontseilu horretako or-

dezkeri izan naiz urte hauetan guztietan eta ez dagokit niri halako analisiak egitea. Aperribayri onena opa diot, merezi duelako, gainera. Lan handia egin du Realean, eta lan ona, gainera.

**Europar futbolaren bueltan gerta daitezkeen aldaketen aurrean, Realak hor egon gura du. Anoeta berria da hor egoteko giltza?**

**J.I:** Futbola ikuskizun handi bat da, baliabide ekonomikoak sortzen dituena, eta jendeak kontsumitu gura duen zerbait da. Eta Anoeta berriak zaleei eskaini behar die ikuskizun hori modurik onenean gozatu ahal izatea, erosotasun guztiekin, azken teknologiarekin... Realak Ligako zelai txukunenetako bat izan gura du.

**J.A:** Gainera, Europa mailako liga bat sortzen badute, Realak hor egoteko halako zelai bat izan beharko du. Izan ere, eskaera zorrotzak izango dituzte: zerbitzu guztiak eskainiko dituen futbol zelaia izatea, edukiera, gutxieneko bazkide kopurua...

**J.I:** Esaterako, Anoeta da ikusentzunezko zerbitzuei dagokienez puntan dagoenetako bat. Esaterako, denek ez dute armiarma-kamera famatua.

**Anoetaren edukieraz berbetan gabiltzala... orain, 40.000 lagun sartuko dira, baina, hamabost egunean behin, salbuespenak salbuespen, kopuru horren erdia baino ez da joaten Reala ikustera.**

**J.I:** Ni arlo horretan oso baikorra naiz. Ez dizut esango partidu guztietan 38.000 lagun batuko direnik Anoetan, baina, atzera egiten badugu, Atotxan 16.000 lagunendako tokia zegoen, eta 11.000 lagun joaten ziren Reala ikustera. Anoetan, berriz, 30.000 lagunendako tokia izanda, 23.000 lagun joaten dira. Hau da, daukazun eskaintzaren arabera, ikusle kopurua hazi egiten da. Nik uste dut 30.000 laguneko kopurura iritsi gaitezkeela.

**J.I:** Zaleek eta bazkideek erraztasunak izango dituzte partiduetara joan daitezten. Horretarako, baina, ezin dituzu igo sarreren

edo kuoten prezioak. Gainera, garai batean ez moduan, irudi eskubideetatik datoz diru sarre-rra handienak, eta ez sarreretatik edo bazkide kopurutik.

**Komentatzen da telebistek ematen duten dirutza horren bueltan, burbuila hori ere lehertuko dela...**

**J.I:** Baliteke, baina lehertzen ez den bitartean... Garbi dagoena da Realaren eta Eibarren arteko partidu batek gurean sortzen duela interesa, baina Real Madrilen edo Bartzelonaren partidu bat Japonian ere ikusten dute. Horrek dirua sortzen du. **Hain zuzen, klub handiek hartzen duten dirutzak Ligako lehiakortasuna kolokan jartzen du, klub txikiak ez dute zereginik.**

**J.I:** Bai, baina joera ziklikoa da. Duela 2-3 urte, aurrealdeko taldeek 100 puntu batzen zituzten, eta 35 punturekin posible zen kategoriari eustea. Aurten, ikusita gauzak zelan dauden, posible da 40 punturekin larri ibiltzea, eta aurrealdekoak ez dabilta horrenbeste irabazten.

**J.A:** Telebistako dirua aurreko urteetan baino banatuago egon da, eta talde txikiak ondo indartu dira. Horrek oreka handiagoa ekarri du txapelketara, eta, gaur egun, ez dago talde txarrik. Getafe moduko talde bat, Leganes... Talde horiek gaur egun diru asko dute fitxatzeko, eta, gainera, harrobian lan handirik egiten ez dutenez, diru sarrera guztia lehenengo taldera bideratzen dute. Duela 30 urte, esaterako, Realaren eta Valladoliden artean alde handiagoa zegoen. Gaur egun, Valladolidek Anoetan irabazi egiten ditu.

**Anoetako obrak direla-eta ELAK prekaritatea salatu du estadioaren eraberritze lanetan.**

**J.I:** Kasu horretan, Realetik ez dugu uste askorik esaterik dugunik. ELAk esandakoak errespetatzen ditugu, baina Realak kasu honetan egin duena da zerbitzu bat azpikontratatu. Edozein kasutan, gurekin beharreen, ELAk proiektua gauzatu duten enpresa horiekin egin beharko luke berba.

**"ASIERREN KALERATZEA ONARTU BAI, BAINA EZ DUT ERABAKIAREKIN BAT EGITEN"**

JUANJO ARRIETA

**"KONTSEILUAK EZ ZUEN KALERATZEAREN ERABAKIA AHO BATEZ HARTU, BAINA BAI GEHIENGOZ"**

JAVIER IGARTZA

**"EUROPAKO FUTBOLA BATU EGITEN BADA, REALAK HOR EGOTEKO BEHARREZKOA DU ANOETA BERRIA"**

JUANJO ARRIETA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONA.

#### Mondra-Hondarribia

Zapatua. 16:30. Mojategi.

#### Elgoibar-Bergara

Zapatua. 16:30. Mintxeta.

#### Allerru-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Lezo.

#### ERREGIONAL PREFERE.

#### Lagun Onak-Antzuola

Zapatua. 15:30. Azpeitia.

#### Getariako-Aloña Mendi

Domeka. 16:00. Orío.

#### Anaitasuna-Aretx. UDA

Domeka. 16:30. Azkoitia.

#### EMAKUMEZKOEN ERRE.

#### Leintz Arizme.-Tolosa

Zapatua. 18:30. Mojategi.

#### Bergara (atsedena)

#### LEHEN ERREGIONALA

#### Ikasberri-Aloña Mendi

Domeka. 15:30. Azpeitia.

#### Ordizia-Bergara

Zapatua. 16:00. Altamira.

#### Arizmendi-Zarautz

Zapatua. 17:30. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

#### EUSKADIKO TXAPELK.

#### Eskoriatza-Aretxabal.

Zapatua. 18:00. M.Muñoz

#### Mondrate-Tolosala

Zapatua. 17:30. Musako.

#### EMAKUMEZKOAK

#### Idiazabal-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Idiazaba.

### ESKUBALOIA

#### EUSKADIKO TXAPELK.

#### Txikipolit-Fagor indus.

Zapatua. 17:45. Zarautz.

#### Ford Mugarri-Corazon.

Domeka. 11:30. Iturripe.

#### EUSK. TXAP. EMAKUM.

#### Berango-Aloña Mendi

Zapatua. 19:30. Berango.

#### GIPUZKOAKO TXAPELK.

#### Labarra-Soraluce

Zapatua. 19:00. Zumaia.

#### GIP. BIGARREN MAILA

#### Sesiñena Aloña-BM Co.

Domeka. 12:00. Zubikoa.

#### Bergara-Orioko

Zapatua. 16:00. Labegar.

### SASKIBALOIA

#### EBA

#### MU-La Gallofa

Domeka. 18:30. Iturripe.

#### GIPUZKOAKO SENIORRAK

#### Mekalki Aloña-Zarautz

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

#### GIP. BIGARREN MAILA

#### Añorga-Bergara Soral.

Zapatua. 18:00. Donostia.

#### GIP. HIRUGARREN MAILA

#### Mekalki Aloña-Interna.

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

#### Zalburi-MU C

Gaur. 19:30. Deba.

#### EMAKUMEZKOAK

#### Eskoriatza-Txintxu

Gaur. 20:15. M.Muñoz.

### PILOTA

#### GIPUZKOAKO TXAPELK.

#### Aretxabaletan. Gaur, 18:00etan hasita:

Alebin, infantil, kadete eta gazte mailako zazpi norgehiagoka.

#### Oñatin. Gaur, 18:15ean hasita:

Infantilen, kadeteen, eta gazteen sei norgehiagoka.

#### Arrasate. Gaur,

#### 20:30ean hasita:

Kadeteen eskuz binakako partidu bat.

### ERRUGBIA

#### EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Kanpan. ART-Gaztedi

Domeka. Zehaztu barik.

### ARETO FUTBOLA Derbia Eskoriatzaren eta UDAREN artean

Urte berria norgehiagoka intergarriarekin hasiko dute Euskal Ligan diharduten Eskoriatzak eta Aretxabaletak, zapatu arratsaldean (18:00, Intxaurtxueta) bi talde horiek derbia jokatuko dute-eta. Gainera, bietako inork ez zuen 2018a garaipenarekin agurtu. Sailkapenean bata bestearen ostean daude. Eskoriatzarrek aretxabaletarrek baino bi puntu gehiago dituzte, eta 12. jardunaldiak balioko du bien arteko aldea handitzeko, edo sailkapena gehiago estutzeko.

Hirugarren postuan dagoen Mondratek ere etxean jokatuko du zapatuan, atzerago dagoen Tolosaldearen kontra (17:30, Musakola).

### FUTBOLA Mondrak eta Leintz Arizmendik etxean jokatuko dute

Ohorezko Erregionalean dabil-tzan taldeen artean Bergara izan zen 2018a garaipen batekin agurtu zuen ordezkari bakarra. Hala, urtea ondo hasi gura duen Mondra da etxean jokatuko duen bakarra (zapatua, 16:30, Mojategi), azken postuan dagoen Hondarribiaren kontra. Aretxabaletak Allerruren kontra jokatuko du, bihar (16:00, Lezo), eta Bergarak Elgoibarren jokatuko du (16:30).

Emakumezkoen Ohorezko Erregionalean, berriz, Bergarak atsedena izango du, eta laugarren postuan dagoen Leintz Arizmendik seigarren dagoen Tolosa hartuko du zapatu arratsaldean Mojategin (18:30).

# Azken euskaldunaren istorioa, 'Ghero' lanean

Euskaltzaindiaren enkarguz Tartean konpainiak sortutako antzezlanaren bi emanaldi eskainiko dituzte asteburuan Debagoiengan: gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean, eta etzi, domeka, Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Mendeurreneko ospakizunen barruan eskatu zion Euskaltzaindiak Tartean konpainiari antzezlan egiteko, baina, atzera begiratuta beharrean, etorkizunera salto eginda osatu zuela gidoia dio Patxo Telleriak: "Koldo Mitxelena idazleak zioen euskararen misterioa ez zela bere jatorria, bere iraupena baik, eta horixe da, hain justu, *Ghero* lanaren motorra. Euskarari buruzko hainbat antzezlan egin izan ditugu aurretik, baina honako honen dohainik garrantzitsuena originaltasuna da".



Ane Pikaza eta Patxo Telleria *Ghero* antzezlanean. GUILLERMO CASAS

**Bederatzi fabularekin kontatuta** 3000. urteko ospitale batean abiatzen da istorioa; balizko gizarte horretan urte askoan bizi da jendea, eta hizkuntza bakarra hitz egiten da munduan. "Hiltzear dagoen azken euskalduna da protagonista; kezkatuta dago, bera hiltzerakoan berekin batera euskara hilko delako, ez baitu, bere arbasoek egin zuten moduan, euskarak bizirik irauteko nahikoa ahalegin egin; lekukoa pasatzeko oinordekorik ez izatea, adibidez. Hortaz, nolabaiteko errudun sentimendua dauka, eta azken euskalduna izatea zama moduan bizi du. Esan daiteke istorio bat

dagoela, baina horren barruan beste hainbat kontakizun sortuko dira; izan ere, euskararekiko duen ikuspuntua hainbat fabularekin islatzen da, askotariko tonu eta estiloetakoak".

Mikel Martinez aktorea da, gaixoa, eta harekin batera beste lau lagun daudela dio Telleriak: "Istorioren haria Martinezek eta Ane Pikazak (medikua) daramate, eta Iñaki Marurik, Olatz Ganboak eta hirurok kontaktzen dituzten fabulak gorpuzten ditugu. Aipatzekoa da, era berean, Iñaki Salvadorrek egindako

musikak duen pisua. Oso kantu bokalak dira, eta aktoreek nolabaiteko polifonia sortzen dugu".

**Gazteentzat eta helduentzat** Oinarrian gai sakona den arren, Tartean konpainiak marka duen umorea eta ironia ez dira falta. "Pozik gaude emaitzarekin, eta harrিতuta gazteen erantzunarekin, euren klabeetarako ikuskitzun aproposa dela ikusi dut".

Sarrerak 10 eurotan eskura daitezke, leihatilan, Oñatiko Txokolateixan eta [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) eta [Oñati.eus](http://Oñati.eus) atarietan.

## "Amets txiki bat zen, eta amets handi bat egia bihurtu da orain"

**GAIZKA SALAZAR** MUSIKARIA

EraBatera taldearen kontzertua etzi Oñatiko gaztelekuan

**A. A. OÑATI**

Kantu pertsonalak sortu zituen Salazarrek, minetik, eta lagun musikariei eskatu zien, gero, forma ematen laguntzeko. Bide-lagun izan ditu taldekide duen Mikel Caballero (Gatibu) baxujolea, Beñat Serna (Ken Zazpi) gitarra-jolea eta Jurgi Ekiza (Willis Drummond).

**Zer da, zuretzeko, EraBatera?**


Amets txiki bat zen eta amets handi bat egia bihurtu da orain. Hau guztia dator aita hil zitzai-gunetik, eta min horrek eragin zidan, handik eta denbora batera, gitarra soinean hartu, berba batzuk paperean islatu, eta abestien zirriborro batzuk egitea; eta, itxura ona zutela ikusi nuen, lagun musikariei deitu nien. Eskertzekoa da hasieratik baiezkoa eman zidatela. Pixkanaka sortutako proiektua da.

**Zelan sentitzen zara barruko min hori lehenengo taldekideekin eta gero publikoarekin partekatzen?**

Egia esan, oso ondo. Prozesu luzea izan denez, orain, sentimenduak baretuta daude, eta dena bere tokian dago. Lehenengo entseguetan, baina, kantuak entzuterakoan, momentu nahiko bereziak izan dira.

**Lagun musikarien atea jo zenuen.**

Mikel Caballero, niretzako, anaia modukoa da, eta hari komentatu nion zertan ari nintzen. Ondoren, Beñatekin landu nituen kantuak, eta, Jurgi oso gustuko dudanez, hari eskatu nion horiek abesteko. Orain, berriz, taldekideek nik besteko ilusioa edo



Gaizka Salazar bateria-jolea. G. S.

handiagoa dutela esango nuke. Kontzertuetan, baina, beste bi lagun gehiago daude: Miguel Moyano (Gari, Smile) sintetizadoreekin eta Josu Aginaga (Smile) gitarrarekin eta koroak egiten.

**Zelako kantuak idatzi zenituen?**

Hitzak askotarikoak dira: aitari eta lagunei eskainitakoak, bikote harremani eta errefuxiatuei buruzkoak... Orokorrean, pop-rock estiloan koka daitezke, baina kolore edo estilo ezberdinetako kantuak dira.

**Kantu horiekin amaitzen da EraBatera proiektuaren ibilbidea?**

Gure ideia jarraitzea da, gogotsu gaude eta proiektuan sinisten dugu, nahiz eta guztion agendak uztartzea konplikatu den.

**Eguerdiaren izango da etziko kontzertua. Zer deritzozu?**

Aukera interesgarria da, zerbait ezberdina. Polita!

## ELKARRIZKETTAP

**GOIENA TELEBISTA**

**ONINTZA ENBEITA BERTSOLARIA,**  
LEIRE PALACIOSEK ELKARRIZKETATUTA

URTARRILAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**ALEX GIBELALDE STORYTEL-EKO ESPAINIAKO ZUZENDARIA,**  
MAITE GOÑIK ELKARRIZKETATUTA

URTARRILAREN 16AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# 'Musikarium' ikuskizuna estreinatuko dute etzi

Zuzeneko musika, antzerkia eta ikus-entzunezkoak uztartzen ditu Baga-Biga ekoiztetxeak haurrentzako sortu duen lan berriak; Oihan Vega bergararrak idatzi du gidoia eta eskarmentua duten musikariek osatu dute agertokian izango den taldea

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Zuzeneko musika duen ipuin musikatu da, baina kontzertu didaktiko baten ezaugarriak ere badituena. Baga-Biga Produzioak-ek ekoiztu du, Oihan Vega bergararrak idatzi du gidoia, eta eskarmentua duten musikariek interpretatzen dituzte Xabi Zabalak konposatutako doinuak.

Domekan estreinakoz eskainiko dute Seminarixoan, 18:00etan. Sarrerak lau eurotan eros daitezke leihatilan; aurrez, [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) atarian.

## Baga-Bigak Vegari enkargua

Aurrez ere egin ditu Vegak haurrentzako antzezlanak eta musikalak, eta halaxe jaso zuen Baga-Bigatik ikuskizun berri bat egiteko eskaera. "Ohere handiz hartu nuen proposamena, eta segituan hasi nintzen gidoia idazten. Musikaria naizenez, musika konposatzeko prest nengoela azaldu nien Baga-Bigakoei, eta harrিতuta eta pozik hartu nuen Xabi Zabala konpositore ezagunak egingo zuela esan zidatenean; eta, are gehiago, Igor Torre -Euskadiko Orkestrako biolin-jolea eta kamera orkestrako kontzertinoa, Luis M. Moreno Pirata -Buenafuenteren teledista saioko musikaria- eta Igor Telletxea ere ikuskizuneko



Oihan Vega eta Xabier Zabala. RITXI AIZPURI

kide izango zirela adierazi zidatenean. Azken bi horiek bata bestearen ordezko izango dira", azaldu du Vegak.

## Askotariko osagaiekin eginda

Taularen gainean hiru musikari izango dira, eta, musika jotzeaz gainera, narratzaile lanetan ere jardungo duela azaldu du Vegak: "Ilargi 8 urteko neskatilaren istorioa baliatuta, musika tresnak, kultura eta herrialde ezberdinetako musikak... erakutsiko dizkiegu haurrei, eta hori guztia sakelako telefonoen gaia

ere ekarrira; izan ere, gazteei adierazi gura diegu tresna onuragarria den arren, erabileraren arabera arriskutsuak ere izan daitezkeela. Pantailan erakutsiko dugun Ilargi, marrazki bizidunetako pertsonaiak, eta biok eramango dugu kontakizunaren haria, eta, bien bitartean, musikariak musika tresna asko jo eta partekatuko dituzte".

## Sarrerak, lau eurotan

Seminarixoko leihatilan eta [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) atarian eros daitezke domekarako sarrerak.

# Poeten arteko lehia estua, iazko Karmele Igartua sorkuntza bekan

Miren Peñagarikanorenzako saria, eta aipamen berezia Marian Porcelen eta Eneko Barberenaren poesia lanek

**A. A. ARETXABALETA**


*Nik kontrolatzen dut makina* poesia lanarekin irabazi zuen, abenduaren 30ean, hernaniarrak Karmele Igartua saria (2.500 euro). "Lehen liburua badu ere, igartzen da poesia asko idatzi

duela. Irudi bereziak erabiltzen ditu, eta intelektualki indar handia du. Idazle brillantea da! [Idazten.com](http://Idazten.com) atarian dago liburua irakurgai", dio Idazle Eskolako zuzendari eta sariketako antolatzaile taldeko Tere Irastortzak.

Irastortzaren esanetan, ez da erraza izan irabazle bakarra aukeratzea, eta, horregatik, dirutan ez bada ere, Marian Porcel eta Eneko Barberena arrasatearren lanak goraiatu dituzte: "Oso liburu ezberdin eta duinak dira hirurak. Barberenaren poemak udazkenean eta hainbat herri txikitako kokatutakoak dira; oso erraz irakurtzen dira. Porcelen lana ere oso berezia da; jendarteko sentipenak agerian daude, eta irudi oso indartsuak erabiltzen ditu".

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko urtarrileko sariak!



#### Tableta

SPC Heaven 10.1 tableta  
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



#### 'Larga vida a Rip'

Rip taldearen liburu eta diskoa  
Parte hartzeko sariaren izena: Rip

#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harronmendak.org](http://www.harronmendak.org)

Bereziki Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileren artean egingo da zozketa.

Indar eragile DPE 10/1000 egoan edo jatorriko dugu, eta diru pertsonailearen konfiantza. Datorren lehen egunetan, liburuak eta diskoak bakarrik izango dira. Datorren lehen egunetan, liburuak eta diskoak bakarrik izango dira. Ez dago zozketaren ondorioz irabazlearen izena ezarriko. Irabazlearen izena zozketaren ondorioz irabazlearen izena ezarriko. Irabazlearen izena zozketaren ondorioz irabazlearen izena ezarriko.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA Jatezia

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri esker

"Inondik inora" haur antzezlanerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilaren 19an | 17:00etan

### Bergarako Udaleri esker

"Normadak-Kometa" taldearen kontzerturako sarrerak ditugu.

Bergara | Seminarixoa | Urtarrilaren 18an | 22:00etan

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "Inondik inora / Normadak-Kometa" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileren artean egingo da zozketa.

Indar eragile DPE 10/1000 egoan edo jatorriko dugu, eta diru pertsonailearen konfiantza. Datorren lehen egunetan, liburuak eta diskoak bakarrik izango dira. Datorren lehen egunetan, liburuak eta diskoak bakarrik izango dira. Ez dago zozketaren ondorioz irabazlearen izena ezarriko. Irabazlearen izena zozketaren ondorioz irabazlearen izena ezarriko.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Egin zaitez Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 56 € bakarrik! Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazte, denok irabazte!

## URTEURRENA

**Balentin  
Gantxegi Alberdi**

2018ko urtarrilaren 30ean hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2019ko urtarrilaren 11n.

## URTEURRENA

**Jose Mari  
Arregui Irastorza**

2018ko urtarrilaren 5ean hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Zure emaztea, Emilia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2019ko urtarrilaren 11n.

## URTEURRENA

**Jesus  
Arechaga Ecenarro**

2018ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 13an,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2019ko urtarrilaren 11n.

## URTEURRENA

**Carmen  
Ugarte Arregui**

Miguel Goñiren alarguna



2018ko urtarrilaren 8an hil zen, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan,  
urtarrilaren 12an, izango da,  
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2019ko urtarrilaren 11n.

## URTEURRENA

**Jesus  
Celaya Arregui**

Rosario Yarza Villarren alarguna



2018ko urtarrilaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 12an,  
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2019ko urtarrilaren 11n.

## ESKER ONA

**Iñaki  
Arrieta Beistegui**

2019ko urtarrilaren 4an hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko urtarrilaren 11n.

## ESKER ONA

**Nieves  
Juldain Kerejeta**

2018ko abenduaren 28an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko urtarrilaren 11n.

## ESKER ONA

**Jose M.  
Ortiz de Mendibil  
Landa**

2018ko abenduaren 31n hil zen, 67 urte zituela.

